



ARGAZKI PRESS

**Urribetxeberria
preso ohia, pozik
baina ahul** | 4

**Euskararen
erabilera:
%47tik %64ra**

Umeei eta gazteei entzuten zaie gehien euskaraz Oñatin | 18

Mazmelan auzotarrendako elkarte berria irekiko dute laster | 22



San Martin jai bereziak Bergaran, urteurrenagatik | 17



Def Con Dos eta Kaimanleon bihar zuzenean, 22:30ean, Oñatin | 31



Kartzelara bisitan. | INTXORTA 1937

36ko gerra eta errepresioa emakumeek kontatuta

Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa izenburua duen dokumentalean 16 arrasatearren testigantzak jaso dituzte. Hilaren 18an, martitzena, estreinatuko dute Arrasateko Amaia antzokian. Garai hartako egia azalertzera dator Intxorta 1937 Kultur Elkartearen azken lana. | 2



KOLOREAK DEFENDATZEKO GERTU

Ohorezko erregional mailako taldeek asteburuan hasiko dute liga; Mondrak eta Aretxabaletak derbia jokatu dute; talde guztien aurkezpena egin dugu, jokalariz jokolari. | 26

Juan Mari Enekotegi (UDA), Jabier Aspiazu (Aloña Mendi), Pedro Rico (Bergara KE) eta Jose Luis Ezkurra (Mondra). | JOSETXO ARANTZABAL

SINADURAK

- Kataluniaren bideak | 6
JON ETXEBERRIA
- Bidegorria marra gorri barik | 6
MIREIA BIKUNA
- Uzarragari bertsoa | 23
KONTXI LASKURAIN
- Visca Catalunya Lliure | 40
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 26
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38



**Begarako
Mariaren
Lagundian bisita
gidatuak** | 10

**Alejandro Altuna
(JMA): 22 urte
daramatzate
lanlekua
euskalduntzen**

Langileen %90 elebidunak dira gaur egun | 14

IKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
ONATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Gerrako eta gerra osteko krudelkeria, emakumeen ahotik kontatua

- ▶ 16 arrasatearren testigantzak jaso dituzte DVD baten
- ▶ Hilaren 18an estreinatuko da Amaia antzokian, doan



Pasarteak birsortu dituzte DVDan. Irudian, Emeteri Aranburuzabala, Paula Muxika, Maria Areitio, Florencia Olazagoitia eta Francisca Oiangurenen fusilamendua.

INTXORTA 1937

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Horrenbesterako ez zen izango". Horrenbesterako ez, hori baino gehiago". Testigantza horrek, *Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa* izenburu duen dokumentalean jasotzen diren beste askok moduan, ondo islatzen du 36ko gerraren eta osteko krudeltasuna. Amandrearen hitzak izan daitezke, gerraren gainean entzun dituen istorioak gutxietsi dituen biloba bati erantzunez. Gerra eta osteko diktadura pairatu ez dituelako esan du bilobak ez zela horrenbesterako izango, benetan gertatu zena ezagutzen ez duelako.

Bada, garai ilun hartako egia azaleratzera dator Intxorta 1937 Kultur Elkartearen azken lana. Hilaren 18an estreinatuko dute Arrasateko Amaia antzokian: euskarazko emanaldia 19:00etan izango da, gero omenaldi labur bat egingo diote testigantzak eman dituztenei eta horren ostean gaztelaraz dagoen bertsoia proiektatuko dute. Udaleko Kultura Sailarekin adostu dute sarrera doakoa izatea.

Ametsa zena, amesgaizto

Bigarren Errepublikaren aurka matxinatu zirenek eta, gerra



INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA

PROTAGONISTAK Ezker-eskuin: Julene Iturbe, Jaione Bengoa, Luzia Uranga, Juanita Okina, Nati Moreno, Felisa Zubizarreta, Carmen Arrieta, Trini Ruiz de Alegria, Primitiva Araolatz, Juana Uranga eta Libe Bengoa.

FELISA ZUBIZARRETA

"Egun baten, etxera heldu nintzanean, amari honakoa galdetu nion: 'Ama, denek dute aita eta guk ez daukagu?'. Sekulako zarrada eman zion, ez zen ezer erantzuteko gai ere izan. Une hori ez zait burutik kenduko bizitza osoan".

JUANITA OKINA

"Gure Florentina ere... [Florentina Olazagoitia Zeziaga, fusilatu zuten emakumeetako bat. Bost hilabeteko haurdun zegoen frankistek erail zutenen]... haurdun zegoela akabatu zuten, hori egin behar da gero...".

LUZIA ARREGI

"Etxean gertatu zenaz akordatzen naiz. Mortero bonba bat bota ziguten ez dakit nondik: 18 urteko anaia hilda, aita zaurituta, ganadu guztia akabatuta... Ganadua eraman zuten soldadu frankistek jan zezaten, guretako ezer utzi gabe. Lotsagabeak...".


KARMEN ARRIETA

"Parrokoaren etxera joateko eskatu zieten apaizei. Han zegoen Maria Rosa Urraca Pastor [Errepublikaren aurkako agintari karlista]. Honela esan zien: 'Eskola euskaldunei lagundu diezueenez, fusilatuta egon beharko zinatekete. Ez da hala izan gugatik'".

ondoren, Francoren diktadurapean bizi eta haren errepresioa jasan zutenen gainekoa da dokumentala, garai ilun haiek bizi izan zituzten emakume arrasatearren ahotik kontatua.

DVDak 15 emakume eta gizon baten –haren amaren bizipenak kontatzen ditu– bizipenak jasotzen ditu. Juanita Okina, Juana Uranga, Felisa Zubizarreta, Luzia Arregi, Felisa Arbulu, Nati Moreno, Primitiva Araolatz, Libe Bengoa, Jaione Bengoa, Leandro Azkoaga –Modesta Bidabururen semea–, Mari Tere Agiriano, Julene Iturbe, Sabina Dolara, Carmen Arrieta, Trini Ruiz de Alegria, Eugeni Langaran eta Felisa Murgizu dira dokumentaleko protagonistak.

Bigarren Errepublikaren etorkizun justuago baten ametsa izan behar zena gerra eta diktadura bihurtu zen amesgaiztoa bizi zutenen gorabeherak dira abiapuntu: "Historia idatziak ez jaso arren, emakumezkoak izan dira urte goibel hauetako protagonista nagusiak. Sufritu dute, baina jardun dute, sortu dute eta aurrera egiten jakin dute. Dokumentalak emakumeek jasandako ahanztura eta isileko istorioa aieratu nahi ditu", diote egileek.



IparProject

www.iparproject.com
info@iparproject.com

Prezioak mantentzen ditugu!

Eskaintza bereziak!



BERGARA
Telleria 23 - D5 pabilioia. Labegaraieta industrialdea
Tel.: 943 76 98 30 / Faxe: 943 76 52 44

AZPEITIA
Landeta auzoa. Atxubiaga 5 - Behea
Tel.: 943 15 03 33 / Faxe: 943 15 73 16

Barne diseinua - Gremioen koordinazioa
Erreforma eta ekipamendu integrala - Altzariak eta merkatuko lehen markak



JULIA MONGE
INTXORTA 1937 ELKARTEA

"Gorrotorik gabe kontatzen dituzte orduko bizipenak"

Bi urtez luza-
tu den lana
izan arren,
emaitzak

merezi izan duela uste du
Julia Mongek.

Emakumeak dira protagonista DVDan. Zergatik?

Emakumeen papera nabarmendu nahi genuen. Espainiako gerraren gainean egin diren lanetan gizonezkoak izan ohi dira protagonista, baina ez dugu jakiten emakumeek zein lan egin zuten eta zein garrantzitsuak izan ziren familiak aurrera ateratzeko orduan. Euren testigantzetan oinarrituz orduko Arrasate gogora ekartzea izan da gure helburu nagusia.

Testigantza horiek hartzeraz joan zinetenean zerk harritu zintuen gehien?

Sekulako indarra izan zutela. Egoerarik zailenetan ere oso ausartak izan ziren aurrera egiteko. Horrek harritu ninduen gehien. Gaur egun testigantza eman dutenean, garai haiek gogoratzea ez da erraza izan euredako, baina behin horretara jarrita, gorrotorik gabe kontatzen dituzte bizipenak. Hori bai, gerra eta gerraostea oso gogorra eta krudela izan zela diote, ezer gabe geratu zirela.



Emakume Abertzale Batza; Paula Muxika bertako kide izan zen. | INTXORTA 1937

"Oso gai sentsiblea"

DVDean parte hartu dutenez gain, Frankismoaren biktima izandako beste batzuekin ere egon ziren Intxorta 1937 Kultur Elkartekoak: "Horietako batzuek baiezkoa eman zuten berba egiteko, eurek edo euren familiartekoen. Baina gero atzera egin zuten, oraindik ere garai horiek gogoratzea oso gogorra egiten zaielako. Gaia oso sentsiblea da; gainera, beste batzuk gaixorik ere jarri ziren. Pena da testigantza horiek galtzea, oso interesgarriak izan zitezkeelako, baina gure errespetu osoa merezi dute".

Emanaldi pribatua uztailean

Gaia horren sentsiblea izanik, datorren martitzeneko estreinaldia baino lehen, DVDean parte hartzen dutenek azken emaitza ikusteko aukera izan zuten uztailean Kulturaten: "Elkarrizketa bakoitzak bi ordu inguru irauten du eta beraz, sintesi lan handia egin behar izan dugu. Errespetuz jokatzeko helburuz, argitaratu aurretik euren oniritzia behar genuen", adierazi du Monjek.

Guztiak ez ziren aurre-estreinaldi horretan egon, baina orokorrean asko gustatu zitzaizkien eta

hunkigarria iruditu zitzaizkien gehienei.

DVDaren egileak pozik daude azken emaitzarekin. Hori bai, Monjek zehaztu duenez, hasierako asmotik azken emaitzara alde handia dago: "Proiektuak iraun duen bi urte hauetan bizi izan duguna jakin ostean, ziur beste era batera egingo genuela. Hala ere, lan polita irten dela esango nuke; ea jendeak zer uste duen".

Egia, justizia eta kalte-ordaina

36ko gerra abiapuntu duen Intxorta 1937 Kultur Elkartean beste lanen moduan, honakoak ere egia, justizia eta kalte-ordaina dituzten premisa nagusi. Mozioak aurkeztu dituzte ibarreko herri ezberdinetan, kalte-ordainak lortu ahal izateko. "Argentinako epaile batek kausa bat ireki du eta hil honetan Madril egotekoa da. Talde ezberdinek testigantza erreala aurkeztuko dituzte eta guk ere prest daukagu dokumentazioa. Espero dugu Euskal Herrira ere etortzea. Ez da bide erraza, baina saiatzeagatik, behintzat, ez da izango". Kalte-ordainak jasotzeko bidea iluna da, beraz, baina ezin ukatu halako lanek bide hori argitzen laguntzen dutela.

Dokumentalean, testigantzez gain, garai hartako pasarteak birsortu dituzte; irudi egiazko, gogor eta hunkigarriak sortuz. Birsortutako pasarteetako bat da 1936ko azaroaren 5eko eta 6ko gauean fusilatutako bost emakume arrasatearren kasua: Emeteri Aranburuzabala, Paula Muxika, Maria Areitio, Francisca Oianguren eta Florencia Olazagoitia. Olazagoitia bost hilabeteko haurdun zegoela erail zuten: "Dakigunez, 'hazia ere akabatu behar da' esan zuten fusilamendua gidatu zuten agintari frankistak", dio Julia Monjek.



FITXA

IKUS-ENTZUNEZKOA, DVD-A.

ARRASATE 1936: EMAKUMEA, GERRA ETA ERREPRESIOA

Generoa: Dokumentala.

Egilea: Intxorta 1937 Kultur elkartea.

Prezioa: 12 euro. Estreinaldian bertan erosteko aukera egongo da.

Iraupena: 70 minutu.

Aktiba zaituzte

mondragonLingua

 rekin


HIZKUNTZAK IKASTEKO METODORIK ERAGINKORRENA.

www.mondragonlingua.com



Gure 10 ikasletik 8k
Cambridgeko azterketak
gainditzen dituzte.

MONDRAGON LINGUAren konpromisoa

Aktiba zaituzte gure klaseekin.
Adin guztiak; haurrak, gazteak eta helduak.
Maila guztiak.
Hizkuntza guztiak.

Aktiba zaituzte teknologiarik aurreratuenarekin.
Zure ordenagailutik bertatik, eroso asko.
Gazteenentzat bideojoko didaktikoak.



ARRASATE

Araba etorbidea 4, Tel. 943 71 20 55

OÑATI

Motxon kalea, Tel. 943 71 60 00



eta iPad bat
jasoko duzu doan,
zure prestakuntzan laguntzeko.

Dauden guztiak agortu arte balio du promozio honek.
Ikasle partikular helduei zuzenduta dago.

Arrasateko etxea "gertu" dauka Uribetxeberriak

Hura etxeratzeko zain egon arren, oraindik luze joko duela uste dute, oso ahul dagoelako


GOIENA | ARRASATE

Auzitegi Nazionalak Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasuna berretsi ondoren, hunkituta eta pozik azaldu dira senitartekoak. Hala ere, Jabi Uribetxeberria anaiak GOIENARI esandakoen artean, gogora ekarri du preso ohiaren egoera "oso larria" dela eta "tratamenduarekin jarraitu ahal izateko indartu beharrean" dagoela: "Laguntza behar du jaikitze, ibiltze... Gogortu egin behar da aurrena, eta horretarako denbora beharko du. Nahiago nuke bihar etxean izango dugula esan, baina ez dut uste egun batzuetako kontua izango denik, luze joko duelakoan nago; astebete, bi aste edo auskalo, akaso gehiago".

Gaineratu du Arrasateko etxea "gertu" duela eta "noiz etorriko zain" daudela: "Ikusiko dugu nola antolatzen garen senitarteko eta gertuko lagunaren artean, Josu bakarrik ez uzteko".

"Mila esker, Euskal Herria"

Bien bitartean, Donostiako ospitalean segitzen du Uribetxeberriak; orain, hori bai, barra bako leihoa duen gelan. Eta bertatik esker oneko berbak izan zituen askatasunaren gaineko erabakiaren berri izan bezain laster: "Mila esker, Euskal Herria, zuekin beti eduki dot konfiantzia".



Josu Uribetxeberria, Donostia ospitalean. | ARGAZKI PRESS

Baldintzapeko askatasuna

Esandako moduan, baina, baldintzapeko askatasuna da Auzitegi Nazionalak berretsi duena. Hona koak dira Uribetxeberriak bete beharreko baldintzok: "Ezingo da Arrasatetik atera baimen barik, debekatuta izango du biktimekin harremana izatea eta ezingo du ez manifestazioetan parte hartu ez edozer gauza esan".

"Beranduegi" dator

Uribetxeberriaren askatasuna aldarrikatzen jardun duen Herri-Elkartearen ustez, "beranduegi" dator haren askatasuna. "2005. urtean aurkitu zioten lehen aldiz

minbizia, baina orduan eginiko askatasun eskaera atzera bota zuten epaitegiek. Espetxean mantendu zuten, jakinda horrek bere egoera okertu baino ez zuela egingo; azkenean, hala izan da".

Gogora ekarri dute beste 13 presoren egoera ere larria dela, eta dei egin dute "bizi osorako espetxe zigorra amaitzeko" eskaera aldarrikatzeko egingo duten mobilizazioetan parte hartzeko. Arrasaten gaur manifestazioa egingo dute, 19:00etan, eta Oñatin bihar, 19:30ean.



Gripearen kontrako txertoak, astelehenetik

Aldez aurretik txanda hartu beharra dago tokian tokiko osasun etxean edo anbulatorioan

G.A./U.M. | DEBAGOIENA

Urteroko kontua da, baina Osakidetzaren ustez gogora ekarri beharrekoa ere bai: gripea gaitasun infekzioso da eta edonork harrapa dezake; eta gehienetan larria ez bada ere, batzuetan arriskutsua izan daiteke ondorengo talde hauetan: 65 urtetik gorakoak, diabetikoak eta 65 urtetik beherako gaixo kronikoak (biriketakoak, bihotzekoak, gibeletakoak eta giltzurrunekoak). Hori abiapuntu, dei egin dute astelehenetik urriaren 31 bitartean gripearen kontrako txertoa hartzera joateko.

Edurne Marañon Arrasateko anbulatorioko ordezkariaren esanetan, Osakidetzak urtetik urtera handitu egiten du txertoa hartu beharko luketen herritarren kopurua, justu, garrantzitsu ikusten duelako ahalik eta herritar gehien bakunatuta egotea.

Txandarekin edo barik

Txertoa hartzeko nor bere herriko osasun etxera edo anbulatorioa jo beharko du. 65 urtetik gorako kasuan, nahikoa da osasun-txartel indibi-



Txertoa ematen. | GOIENA

duala edo NA eramatea; aipatutako arrisku talderen batekoa izanez gero, ohiko medikuarengana joan beharko da papera hartzera.

Horrez gain, herri bakoitzean txertoak emateko bestelako hitzorduak ere egiten dituzte: auzoz auzo joaten dira, erretiratuaren egoitzetara eta beste.

A eta B motako birusak

Marañonek azaldu duenez, normalean B motako gripea da gurean izaten dena, "baina A motako gripea izan zenetik, A eta B motako gripearen kontrako txertoa ematen dugu".

Industrialdeen fusioak "ekimen publikoko industrialdeen amaiera" ekar dezake

Bost herritako ordezkariak fusioarekiko desadostasuna berretsi dute asteen

U.M. | DEBAGOIENA

Debagoieneko Industrialdea SAKo kide diren bost udalek (Arrasate, Oñati, Bergara, Eskoriatza eta Aretxabaleta) "berretsi" egin dute Jaurilaritzak Sprilurren bitartez abiarazitako Debabarreneko eta Debagoieneko industrialdeen fusioarekiko kontraktotasuna: "Gure industrialdeen amaiera ekar dezakeelako, operazio honen atzean oraindik azaldu ez dizkiguten ezkutuko interesak daudelako eta, batez ere, gure kapitala industrialdeei laguntzeko eta lehiakor bihurtzeko egitasmoak bultzatzeko erabili beharreko delako".

Asteen egindako prentsaurrekoan, bost herriotako ordezkariak azpimarratu duteenez, fusioaren "ondorioak latzak izan daitezke sozietatearentzat. Eskualdeko pers-



Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, Bergara eta Oñatiko ordezkariak. | U.M.

pektiba galtzeak norabiderik gabe utz dezake sozietatea. Eskualdeko ekimen publikoko industrialdeen amaiera izan daiteke".

Ildo beretik, salatu dute udalek ez dutela "gertuko politika egiterik izango", fusioaren ondorioz, Udalek

gaur egun duten indarra eta ordezkariak erdira jaitziko delako.

Eta behin eta berriro eskatu arren, operazioaren gaineko informazioz eza izan dutela salatzeaz bat, atzetik interes partidistak daudela adierazi dute.



LAB sindikatuko ordezkariak Kulturaten. | MONDRABERRI

LAB: "Alternatiba errealik egon badagoelako, 26an greba"

G.A./U.M. | ARRASATE

Irailaren 26ko greba orokorra-ekin bat egitea eskatu du asteen LAB sindikatuak prentsaurreko bitartez. "Egungo erreformekin hazkundea ezinezkoa da, baina badago alternatiba errealik, eta euskal gizarteari dagokio horien artean aukeratzeari", adierazi dute.

Hain justu, hiru erabaki hartu behar direla uste dute: "Espainiako Gobernuaren erreformak ez aplikatzea, euskal instituzioen aurrekontu publikoetan ezarritako murrizketak baliogabetzea eta plan instituzional berri bat jartzea mahai gainean".

LABek salatu du Estatuaren neurriak ez direla koiunturalak, "ezta fase ekonomiko batean soilik aplikatzekoak ere. Estatuaren eredu aldatzeko erreformak dira". Hala, kritikatu dute estatua "ekimen pribatuari laguntzen, kontrol soziala bermatzen" eta "sektore publikoa suntsitzen" dabilela.

Politika ultraneoliberalak

Gaineratu dute krisia ekarri duten politika neoliberaletatik politika ultraneoliberalera pasatu" garela. Eta kalera irteteko beharra azpimarratu dute.



Jon Albizu | Atez atekoaren informatzailea

"Industrialdeetan ere hiri hondakinak soilik jasoko dira"

Atez atekoaren azalpenak emango zaizkie Bergarako eta Oñatiko enpresariei

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Bergaran eta Oñatin hiri hondakinak atez ate batzeko sistema 2013ko lehen hiruhilekoan jarriko dute martxan. Horrela, atez ateko informatzaileek herriotako enpresetako ordezkariak gonbidatu dituzte batzar informatzaileetara, eguaztenerako (hilak 19). Bergaran, euskaraz Irizar jauregian (11:00etan eta 18:30ean) eta gaztelaniaz udaletxean (11:00etan eta 18:30ean) dira bilerak; eta Oñatin kultura etxean euskaraz eta gaztelaniaz (11:00etan) eta udaletxean euskaraz eta gaztelaniaz (18:30ean).

Zer azalduko zaie enpresariei?

Gonbidapena industriaguneetako tamaina zein sektore ezberdinetako enpresei egin diegu. Industrialdeetan atez atekoak nola funtzionatuko duen azalduko da, eta garbi utziko zaie industrialdean ere hiri hondakinak soilik jasoko direla, horrela, euren esku geratzen da ekoizpen prozesuan sortzen diren hondakin arriskutsu zein arriskutsu ez diren gainontzeko produktuen kudeaketa, gaur egungo legediak ezartzen duen bezala.

Industriari dagokionez, behin azalpen orokorra emanda, kasu bakoitza aztertuko da bertan sortzen diren hondakin mota eta kopurua ezagutzeko. Gaur egun indarrean dagoen legeak zehaztu bezala, euren kabuz kudeatu behar dituzten produktuekin



Jon Albizu. | ZVDM.

Bestalde, etorkizunean sistema hau Debagoieneko herri gehiagotara iristea aurreikusten denez, bertan ere herritarrekiko arreta zerbitzua bermatuko da, tokian tokiko bulegoak ahalbidetuz.

Bestalde, azaroan prozesu parte-hartzailea hasiko da Oñatin eta Bergaran. Batzarren eta bestelakoen hitzorduak aurrerago zehaztuko ditugu.

Dena den, informatzaileak dagoneko hasita zaudete lanean; zer da orain arte egin duzuen?

Komertzio eta instituzioekin (kirol zerbitzuak, hezkuntza, osasun arloa, e.a.) kontaktuak egiten hasi ginen. Horretarako establezimendu bakoitza bisitatzen saiatu gara, eta euren behar, kezka, e.a. jasotzeaz gain, atez ateko sistemaren inguruko azalpen orokorra eman diegu.

Orain kontaktu horietatik jaso ditugun ekarpenak ikertzen ari gara, sistema berria ahalik eta hoberen herritarrei egokitze. Horrez gainera, Bergararen kasuan, herritarrekin auzoka burututako informazio bileretan ere parte hartu dugu.

Ze kezka jaso dituzue? Horrelako aldaketa batek gure ohiturak aldatzea dakar, eta hori askotan kostatu egiten zaigu.

Galdera gehienak, berriz, sistemaren funtzionamenduaren ingurukoak izan dira. Ahal den heinean horiek guztiak argitzen saiatu gara.

"Informazio bulegoak datorren hilabetean zabalduko dira"

zalantzarik izanez gero, horiek argitzen saiatuko gara.

Bergaran eta Oñatin informazio bulegoak zabaltzekotan ziren; zein puntutan daude? Beste herri batzuetan ere zabalduko dira hala-koak?

Hurrengo hilabetean zabaltzea aurreikusten da. Herri bakoitzean bina bulego. Eta informatzaileak egongo gara bertan, herritarren zalantzak argitzeko prest.

Tokikomen jardunaldien jarraipena irailaren 21ean eta 28an izango da

U.M. | DEBAGOIENA

Tokikomen (euskarazko tokiko hedabideen elkartea) eta Topagunearen (Euskara Elkartearen Federazioa) ekimenez uztaileen hasitako Tokikom jardunaldiek datozen bi egubakoitzetan izango dute jarraipena.

Tokikom Plataforma Digital Komuna izenburua du, zehazki, irailaren 21eko mintegian landuko duten gaiak.

Hain justu ere, Tokikom gorpuzten joateko ardatz nagusienetakoa bazkideen eskura jarri gura duten plataforma digital komuna da. Bada, horren zirriborro orokorra aurkeztu eta zehazten joan gura dute lehen saio horretan.

Bigarrenean, berriz, Tokikomen finantzazioa izango da berbagai (irailak 28). "Publizitate bateraturako aurreikusten dugun markoa azaldu, eta horren gaineko iritziak, ekarpenak eta, hala badagokio, oniritzia jaso" landuko dute. "Finantzazio bide alternatiboen inguruko ideia-jasa ere egin nahiko genuke", adierazi du Joxe Rojasek, Topaguneako ordezkariak.

Izena aldeaz aurretik

Mintegiok Eibarko Markeskua jauregian egingo dituzte, Udako Euskal Unibertsitatearen egoitzan. Parte hartzeko, irailaren 18a (martitzena) baino lehen eman behar da izena.



ANDER MONEDERO

Udal euskaltegien ikasturte berria

Nik euskara maite dut lelopean aurkeztu dute asteon Debagoieneko udal euskaltegien 2012-2013 ikasturteko kanpaina. Euskalduntze maila guztiak, alfabetatzea, hizkuntza eskakizunak eta EGA eskainiko dituzte. Aurtun, alfabetatzea eta mintzamina lantzeko egitasmoak indartu nahi dituzte, eta eskolara joan ezin diren ikasleentzako auto-ikaskuntzako eskainiko dituzte.

Kooperatiben nazioarteko urtea ospatzeko bideoklipa

U.M. | ARRASATE

Joan den domekan Katarain estudioetan (Azkarate-Nafarroa) kooperatiben gaineko bideoklipa grabatu zuten, Konfekoop erakundeak eskatuta. Debagoiendarrak izan ziren lanaren egile eta ekoizle: Jon Sarasua zuzendari artistiko eta

kantuaren egile; Oier Sarasua eta Aitor Ziardegi aretxabaletarrak musika-egile; Oñatiko Ganbara Abesbatzako 15 lagun ahotsa jartzten; eta Aretxabaletako Arteman kooperatiba lana koordinatzen eta zuzentzen, eta grabazioa eta post-produkzioa egiten.

Kantu berezia da sortu dutena, 15 hizkuntzatan egin dutelako. Emaizta azaroaren 11n estreinatuko dute, Durangon.

Kooperatibismoaren balioa

Nazio Batuen Erakundeak 2012a Kooperatiben Nazioarteko Urte izendatu duela-eta egin dute bideoklipa. Helburua da "mundu guttira hedatzea kooperatibismoa balizko eredu gisa, kooperatibismoak mundu hobe eraikitzen laguntzen duela".



Ganbarako kideak atzean eta Aitor Biain aurrean (Ganbarako zuzendaria). | ARTEMAN

SARI NAGUSIA

19"KO
TELEBISTA

EROSKI



SARRERAK

EUREKA! ZIENTZIA
MUSEOA ikusteko
gonbidapenak.

eureka!
zientzia
museoa



goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!



goienakluba" 2012

Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

ZABALIK

JON ETXEBERRIA
http://goiena.net/iritzia/



Kataluniaren bideak

Duela urte gutxi "Oasi katalana" bezala ezagutua izatetik, nola pasa da Katalunia horrenbesteko krispazio mailara eta modu hain masiboan Estatu berri bat aldarrikatzera? Oasiaren amaiera Aznarren azken urteetan hasi zen. 2003ko hauteskundeetara alderdi guztiak (PP izan ezik) Espainiarekin harreman mota berri bat lortzeko helburuarekin aurkeztu ziren. Estatut berria 2006an onartu bazen ere, gauzak ez ziren baretu: batetik, Espainiako zenbait sektoretatik aurkako erreakzio bizia sortu zen (produktu katalanei eta bereziki Cavari egindako boikota...); bestetik, 2005ean Parlamentetik adostasun maila itzelarekin irten zen Estatutak (Zapatero onartzera konprometitu zena...) murrizketa nabarmenak jasan zituen: lehenik, Masen eta Zapateroren pakto erdi sekretuaren ondorioz eta bigarrenik, 2010eko Epaitegi Konstituzionalaren sententziak eragina; ondorioz, indarrean dagoen 2006ko Estatutak inor gutxiren nahiak asetzen ditu.

Azkenaldian, testuinguru ekonomikoaren okertzeak (langabezia altua, murrizketa latzak, Madrilgo inbertsio eskasak...) katalanen haserrea bizitu egin du. Komunikabide eta politikari katalan gehienek egoeraren errudun bera aurkitu dute, "Kataluniak Espainiarekin duen harreman ekonomiko bidegabekoa", eta haserrea modu garbian Madrilerantz bideratu da. Ondorioz, egoera "aldatzeko" bi bide planteatzen dira: "Pakto fiskala" lortzea (funtsean euskal erregimen fiskala) edo independentzia. Masek pulstu bat jaurti dio Madrili udazken honetan pakto fiskala lortzeko. Assemblée Nacional Catalanak, ordea, independentzia nahi du zuzenean. Biek Diadako manifestazioan indarrak neurtu dituzte, eta argi dago zeinek lortu duen herritarren babes masiboa, manifestazioa independentziaren aldeko oihu garbia izan baitzen. Hurrengo asteak klabeak izango dira, ez bakarrik Kataluniaren etorkizuneko, baizik eta Estatu osoarendako, bide bat edo bestea zabalduz gero eredu izan daitekeelako eta inongo biderik zabaltzen ez bada tenperaturak igotzen jarraituko duelako Katalunian.

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.com

Bidegorria marra gorri barik

Oñatiko Otadui zuhaiztian bidegorri berria ipini dute. Hainbat lanen ondoren, errepidea margotu dute. Baina, bidegorria izanik, non daude marra gorriak? Bidegorria baino gehiago, atletismo pista dirudi. Errepideak lau bide ditu, baina zeintzuk dira bidegorriari dagozkionak? Autoarekin nondik joan behar dugu? Mila burutazio batera, bidegorriari begira ipinita.

Oñatin askotariko bidegorriak egin dituzte: errepide erdian margotutakoak Errekalden, espaloian integratutakoak Lazarragan, errepide erdian abiadura moteltzeko elementuak dituen Euskadi etorbidean; baina halakorik ez nuen inondik espero.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Debalde joatea ere

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Egun pare baten buruan, euskal herritarrok gora begiratu eta, hodeirik ez bada tarteko, hantxe ikusten ditugun bi gizontxoan elkarrizketa bana eman dute telebistan. Frantziako presidenteara izan zen lehena, igande arratsean, TF1 kate orain pribatuan; eta Salomon Uharteetako lehen ministroarena, barka, Espainiako presidenteara, astelehen gauean, La1 oraino publikoan. Astelehenkoa Mariano Raxoik presidente denetik —iazko azaroaren 20tik— telebistan eskaintzen duen lehen elkarrizketa izan zen —hedabide bati eskaintako lehena orain gutxi izan da, ABC berripaperari—. François Hollande aurtengo maiatzaren 15etik da presidente, eta bigarren telebista elkarrizketa zuen igandekoa. Beste konparaketa bat, audientziak. Hollanderen ordu erdiko mintzaldia 9,9 milioi ikuslek jarraitu zuten, audientziaren %41,1ek, 11 milioko tontor batekin —uztailaren 14ko elkarrizketa, TF1 eta France2 kateek batera eman zutena, 9,3 milioi jarraitu zuten orotara—.

Raxoiren 50 minutuek, aldiz, ez zuten tamainako bozkariarik sortu: 3.258.000 ikuslerekin, %20,6ko share-a lortu zuten —tontorrek 4.029.000 ikusle eta %22,7 share-a—. [...]

Eta elkarrizketa bakoitzaren analisiak ezagunak dira gaugerero: batez ere ekonomiaz aritu ziren biak ala biak, zertaz bestela, neurri berriak iragarri frantsesa, orain artekoak nola-hala zuri nahian espainola. Euskal aferaz —neurri ekonomikoak euskal afera ere badirela kontziente—, Hollandek ez zuen hitz erdirik esan. Tokitan gaude Frantziako agenda politikoan. Raxoik, aldiz, hartu zuen tartetxo bat, Euskal Erdian sozialistekin gobernatu izanaz damu ez dela eta Bolinaga kasuak (sic) higuina sortzen diola esateko. Baina arduratuago zirudien katalanekin: eskatu zuen, mesedez —mesedez!—, ez dela iskanbilatan aritzeko garaia.

Eta konparaketa makurrera, azkenerako: Hollande telebistara esateko zerbait zuela joan zen bitartean, ez zitzaizuen iruditu Raxoi debalde xamar aritu zela? Hots, agertu ez balitz ere, berdintsu esnatuko ginela biharamunean? Espainiarrek esaten dute ba: joan behar bada, joango gara, baina debalde joatea ere tontakeria da.

Madrilburg

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Denok gara txit ondrtuak, norbaitek begien aurrean jarritako diru-mazo eder batek itsutzen gaituen arte. Mark Twain-ek badu gai eta muin horren inguruko kontakizun harrapari bat —irakurlea harrapatzen duena—, Hadleyburg usteldu zuen gizona izenekoa (Javi Cillerok euskaratua, Ereinek argitaratu zuen): atzeritar bat iritsi da bere burua txit bertutetsutat daukan herri batera, diru-distira handiko eskaintza tentagarri eta legez kanpoko batekin. Hasieran denek egiten diote muzin. Azkenean, herriko bertutetsuena ere tentaldian erortzen da.

Memoria gezurretan ari ez bazait, narrazioko arrotzak ez du izenik. Madriliko politika ofizial guztia usteldu duen gizonak, bai: Sheldon Adelson du grazia eta bedeinkapen guztiak ditu —baita ez legalak ere— Madrilén Eurovegas kasinoa eraikitzeko.

Esperanza Aguirrek ez du Twainen kontakizunaren berririk: bestela, honezkero erretiratua zuen Madrilko biblioteka guztietatik.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EEGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER ARRASATE 20500:
Oñalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Kapitalismoaren alde

Eñaut Portuondo

Arrasate

Aspaldi honetan, kapitalismoa gaur egun bizi ditugun miseria guztien erantzule egiten dutenen oihiak entzuten ditugu.

Kapitalismoaren aurka, gorrotoz gorritutako begiekin hitz egiten ikusten ditugu.

Eta beraiek ez dira konturatuko, baina ez gaituzte engainatzen.

Badakigu beraien aldarrikapen demagogikoen atzean ez dagoela ezer. Ez konponbiderik, ez alternatibarik. Ez dute inoiz arazoan konponbiderako proposamen bat ere aurkezten. Ez dute inoiz lanpostuak sortzeko zer egin behar den esango. Eta are gutxiago, sortuko.

Baina Arrasaten jai daukate. Arrasaten badakigu kapitalismoa dela soluzioa.

Badakigu kapitalismoak aurpegi asko dituela.

Badakigu lanaren, hezkuntzaren eta konpromisoaren bitartez kapitalismoa moldeatu daitekeela, gizarte justu bat lortzeko.

Inongo herrialde sozialista batek (Sobietar Batasuna, Kuba, Ipar Korea...) inoiz lortu izan dituen baino bizi maila altuagoak lortu baititugu Euskal Herrian, kapitalismoa moldeatzen jakin dugulako.

Arrasaten, kapitalismoan txertatuko enpresa-kooperatibei esker, aberastasuna sortu eta berau banatzen jakin izan dugu.

Enpresa kooperatiba hauek kapitalismoaren fruitu dira.

Sozialismoak ez du inon horrelako fruitu oparorik eman.

Baina ez dakigu kutxa automatikoei su ematera dedikatzen direnek sozialismoa proposatzen duten edo ez, ez baitute esaten.

Baina badakigu sozialismoa ez dela ezeren konponbide.

Orduan, zein da kapitalismoaren aurka daudenek proposatzen duten alternatiba?

Badakate alternatibarik? Arrasatetarrok, ezezkotan gaude.

Ibarra kiroldegia, merezi dau?

Amaia Arroyo Sagasta

Aretxabaleta

Aretxabaletan orain dela gutxi bizi banaiz ere, irrikan nengoen Ibarra kiroldegia barrutik ezagutu eta instalazioez gozatzeko.

Joan zen ostiralean, irailaren 7an, izan nuen probatzeko aukera eta ezusteko ederrak hartu nituen.

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak bame). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Lehenengo sorpresa eguneko sarreraren prezioa izan zen, oso garestia iruditu zitzaidan: 8,95 euro, hain zuzen ere.

Bigarren ezustekoa instalazioen kalitatea izan zen: igerileku ederra eta spa gunedotorea.

Oso gustura egon nintzen bertan eta, irtendakoan, nire poztasuna adierazi nion bertako sorosleari, baita nire lagun eta senitartekoei ere.

Etzera abonatu txartela egiteko bi triptikorekin eta prezio guztien zerrendarekin iritsi nintzen, kontuak egiteko prest.

Jakina da, gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoan, dirua inbertitzeko erabakiak lupaz begiratu behar ditugula.

Beraz, birritan pentsatu beharreko gauza da 36,30 euroko matrikula eta hileroko 29,04 euro (urtean 348,48 euro) ordaintzeko erabakia hartzea.

Dena dela, deskontuak daude langabeentzako eta 65 urte baino gehiago duten pertsonentzako.

Egun, langabezia nago. Paroa kobratzen dut, baina ez dut lanik.

Beraz, langabeei dagokien deskontua kontuan hartu eta berriro ere kontuak egin nituen.

Azkenean, hileroko 19,36 euro irteten zitzaidan, urtean 232,32 euro, matrikulaz gain.

Ados, nire sasoiari eusteko hori ordaintzeko prest nengoela erabaki nuen.

Joan zen asteartean, irailak 11, abonatzeko dokumentuak bildu nituen: erroldatze-agiria eta Lanbideko agiria.

Ibarra kiroldegira iritsi eta, hara, hirugarren ezustekoa: langabeei dagokien deskontuaz gozatzeko ez da nahikoa lanik ez egotea: ez da inolako diru-sarrerarik izan behar! Orduan, paroaan egonez gero, langileek bezala ordaindu behar da.

Ez naiz gehiago luzatuko.

Bakar-bakarrrik, zenbait hausnarketa: paroaan gaudenok ez al gara, bada, langabeak?

Zerbitzu publiko bat izanda, nola daiteke horrelako prezio altuak izatea?

Badakigu (eta ikusi dugu) instalazioak primerakoak direla, baina ez al zaizue iruditzen denon eskura egon beharko lirakekeela, ez bakarrrik aberatsen eskura?

Nola liteke urteko abonurik ez egotea, prezioak jaisten laguntzeko?

Hau guztia kiroldegiko harreraren adierazi dut, baina udaletxera joateko esan didate, dena Udalak eta kiroldegia kudeatzen duen enpresak hitzartutako akordioan adostuta baitago.

Hartutako erabakiak alda daitezkeela aldarrikatu nahi dut, Aretxabaletaren onerako; izan ere, kirola guztion eskura egon beharko litzateke.

Bestela, kiroldegia lema aldatuko nuke: Ibarra kiroldegia, merezi dau?

Hamahiruak askatu; mendeku politikarik ez!

Inazio Azkarragauriz

(Arrasateko Udal Gobernu Taldea) Arrasate

Ez dute sekula, inoiz, halakorik egin preso batekin.

Eta ulertezina da alde humanitariotik zentzua topatzen saiatzen den edonorentzako.

Baina Iosurena momentu politikoko berezi batean etorri da, euskal jendartea elkarrizketa bidezko soluzio batean lerrotzeko ari denean.

Eraldaketa sozial eta politikoa alderdi mugimendua indarra hartzen hasi denean.

Eskubideen errespetuan oinarritutako prozesuari mendeku politikaz erantzuten ari da espainiar gobernu.

Presoei aparteko neurriak aplikatzen jarraitzen dute eta horren adibide dira: hiru laurdenak beteta dituztenak, Euskal Herritik kanpoko espetxeetan sakabanatuta daudenak, 1997/2006 dotrinarekin kondena luzatu dietenak eta gaixotasun larriak izanda ere, espetxean mantentzen dituzten 13ak.

Iosuk, eskubidez eta legez, aspaldian behar luke etxean, baina espainiar justiziak atzora arte lau poliziaren zaintzapean mantendu du Donostia ospitalean, 47 kilorekin, bere kabuz ohetik altxatu ezinda egon arren.

Auzitegi Nazionalaren erabakia, pozgarria izan arren, beranduegi etorri da eta azken hilabeteotan euskal jendarteak egindako ahaleginak bultzatuta, zalantza barik.

Hemendik aurrera bere senide eta lagunaren babesean jarraituko du Iosuk bere bidea,

baina ez dezagun ahaztu beste 13 preso gaixo larrik espetxean jarraitzen dutela.

Beraien gaixotasunei duintasunez aurre egiteko eskubidea dute eta espainiar legediak berak aitortzen die askatasuna.

Arrasateko Udal Gobernua osatzen dugunok mendeku politika desaktibatzeke exijitzen diogu espainiar estatuari, sufrimendua eragiteak ez diolako inori mesederik egiten eta halakorik ezin delako, inolaz ere, berriz gertatu.

Era berean, jendea mobilizatzen jarraitzea animatzen dugu.

Orain Iosurekin hasitako bidea jarraitu behar dugulako, beraien legea preso gaixo larri guztiekin, salbuespen barik, bete dezaten.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!

Aitor Biain

Oñati

Abuztuaren 9an (osteguna zen), paseatzen nenbilela Oñatiko San Lorentzo auzoko 62. atariaren parean, harmaila batean trabatu eta erori egin nintzen.

Bada, orduan lagundu zidaten bizilagun taldeari eta Udalarri eskerririk beroenak eman nahi dizkiet, emandako arretagatik.

Eta eskerrik asko, baita ere, osasun zerbitzuetako medikuei eta erizainei ere.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez (*vielen dank*).

Alardiak, gizurrak eta asmatutakuak

Joseba Iparragirre

Antzuola

Juan Martin Elexpuruk idatzitxakua leittu eta ezin jat eutsi erantzuteko tentaziñu.

Ezer baino lehen argitu nik neure izenian idazten dotela, ez inongo talde edo batzordien izenian.

Seguruenik goguan izango dok, Juan Martin, zela 2010an Alardeko diskurtsua aldatu eta motzaua eitteko asmoz laguntasun bila hiregana jun ginan.

Aldaketa haren ardatzak, kontatzen dana leienda edo kondaira bat dala argitzia, laburra eittia, herri bezala daukun nortasun eta izaeria aittatzia, beste herri batzukiko adiskidetasuna, eta azkenian harmarrixan ageri dian errege eta kañoiei lehen bezala aipamenik ein barik, horrek anaien arteko borroka, hik aipatzen duan 1522kua jakiña, batekuak diala esaten dok.

Ez dok gure asmua Valdejunkerakuai buruzkua ezkutatzia, kontrakua baizik, konturatu gaittuk jende askok onddio uste oker hori daukala ospakizun honen inguruan; izan be, galdeketa baten ondoren jende askon ustia dok Valdejunkeran antzuolarrek eindako hazaiñian anibertsaixua edo antzerako zeozer zelebratzen dala.

Honen harira, herriko seme dan Iñigo Ramirez de Okarizek 1990. urtian idatzitako *Antzuolako alardea, mairuaren jailadia* liburuan garbi esaten jok honen jatorrixa zein dan.

Leienda horrek bere momentuan Antzuolako herrixan "nortasuna eta independentzia" goratzeko balio izan jua, eta hori dok gaur be bizirik daona, *Antzuolarra naiz eta harro nago!* Bergarakuak honez gero jabetuta egongo zate honetaz, ala ez?

Aldaketak ein-ein dittuk, ez nok sartuko tradiziño eta abarren pertzepziñuetaz eztabaidan, baina hik be, formal informau barik zuen lagun zanan Pisto aiñako gizurra, barkatu asmakizuna, bota dok!

Azkenik, ez juak nahi aukera hau galtzeik hurrengo urteko alarderako gonbidapena luzatzeko, etortzen bahaiz udaletxeko balkoian tokitxo bat eingo dostau, kañoiak primeran entzuten dittuk hortik! Ondo izan.

Pertika-jauzilari itzela

Mikel Aranzabal

Eibar

Athletici *gol* ikaragarria sartu ostein, futbolari izateari utzi eta pertika-jauzilari sartu da Javi Martinez.

Lezamara joan, 02:00 aldera, eta hesia salto egin.

Jakina, hark dio ea nola sinets daitekeen hori. Dio 22:00etan joan zela eta ez zuela hesirik salto egin. Lezamako zaintzaileek, aldiz, baietz.

Txutxu-mutxu saioetan ere halakoak izaten dira: batzuek X diote eta beste batzuek Y, nahiz eta gai berari buruz hitz egiten ari.

Bada, *Sálvame Deluxe* baterako emango luke kontuak. Gonbidatuak? Bielsa, Urrutia... A, eta saioa aurkezten, Jose Maria Garcia handia, noski.

Jon Peli Uriguen | Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko diputatua

"Ekimen berrietarako dohain handiak erakusten ditugu gipuzkoarrok, gure marka da"

- Baserri ingurunearen, industriaren eta turismoaren gainean dihardu Uriguen diputatuak
- "Langileak enpresarekiko zenbat eta konpromiso handiagoa, lehiakorragoa da enpresa"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Jon Peli Uriguen (Elgoibar, 1968) injinerua da lanbidez eta Antzuolako Elay enpresako langile, 2007a ezkerro eszedentzian dagoen arren. EAKo zerrendaburua izan zen Elgoibarren 2007ko udal hauteskundeetan eta bigarren 2011koetan Bilduren zerrendan. Gaur egun Diputazioko eta Elgoibarko zinegotzi karguak, biak, dauzka.

Berrikuntza, landa garapena eta turismoa; hasiera batean, hiru sail oso ezberdin dirudite...

Geroago eta harreman handiagoa dauka turismoak landa edo baserri eremuen garapenarekin. Turismoa ez da hondartzakoa bakarrik. Hona datorren turistak beste gauza batzuk ere bilatzen ditu. Eta, bestalde, lurraldearen orekarako oso garrantzitsuak dira, esaterako, landa turismoak. Bestalde, berrikuntza zeharkako kontua da, ez dagokio alor bakar bati.

Zertan egin die min, bereziki, krisiak lurraldeko enpresei?

Gipuzkoan beste toki batzuetan baino hobeto gaude krisiari aurre egiteko, baina arazoa finantziazioa da. Eskariak badaude, ekimenak badaude, baina horien dako finantziazioa lortzea da arazoa. Lehiakortasuna ere bada erronka eta ezinbesteko baldintza, baina enpresa asko, lehiakor eta berritzaile izanda ere, finantziazio arazoekin dabilta.

Enpresa eta ekimen berriak sortzen laguntzeko 4,5 milioi euroko diru zatia aurreikusi du Gipuzkoako Foru Aldundiak aurtengorako. Zein da helburu zehatza?

Ekintzailetasun programari dagozkionak dira dirulaguntza lerro horiek. Enpresak hobetzeko edota gazte jendeak ekimen berriak bultzatzeko programak dira. Baina, aurretik, beste batzuk abiatu ditugu, enpresei nazioartera zabaltzen laguntzeko, langileen parte hartzea bultzatzeko...

laz 80 enpresaren eta 331 lanposturen sorrera ekarri zituen dirulaguntza horrek...

Bai, proiektu ezberdin asko aurkeztu ziren eta asko laguntza barik geratu ziren, ez geneukalako behar beste diru. Bestalde, inbertsio honek baditu beste inbertsio eratorri batzuk. Ekintzaileek jartzen dituzten indarrak eta ezagutzak, eta erakundeek jartzen dituzten laguntzak, ekonomian eragin handia dute, sektorea pizten laguntzen dute, beste sektore batzuk sortzen dira eta, hala, aberastasuna sortu.

Dirulaguntza deialdiaren arrakastak erakusten du lurraldean bada goela ekimen berriak bultzatzeko adorea.

Bai, hala da. Ez dago diru nahikoa proiektu guztiak bultzatzeko, baina, era berean, pozgarria da ikustea zelako proiektu interesgarriak sortzen ari diren eta ekimen berrietarako zelako dohainak erakusten ditugun gipuzkoarrok. Gure marka da. Euskal Herriak bai, baina Gipuzkoak badu bere marka propioa. Hemen, enpresa hainbat sortu da bertako semeen ekimenez. Ideia bat izan dutelako eta produzitzen eta saltzen jakin izan dutelako, eta une txarretan ere eusten jakin izan dutelako.

Enpresetan parte-hartzea bultzatu nahi duzue. Zer da proposatzen duzuen, zein eredu duzue buruan?

Kooperatibismotik abiatuta badira beste eredu batzuk langileek enpresetan parte hartzea bultzatzen dutenak. Enpresarekiko konpromisoa bultzatzen du erabakietan parte hartzeak. Edota irabaziak banatzeak edota inbertsioak egiten langileek ere parte hartzeak. Enpresa asko dator kigu proiektu berriekin. Ildo estrategikoetako bat da gureta. Langilearen zenbat eta konpromiso handiagoa, lehiakortasuna ere handiagoa da.

Berrikuntza garestia da?

Inbertsioa da, eta ezinbestekoa da. 2010eko Eustateko datuek diote, berrikuntzari, ikerketari, garapenari..., Barne Produktuaren 2,58 eskaintzen zaiola Gipuzkoan. Erkidego osoan, 2,08. Espainian, %1 eskas... Ikerkuntza eta berritasunean inbertitzen dutenek langabezia tasa txikiagoa dute eta lehiakorragoak dira.

Urugayn egon zarete Gipuzkoako enprekin batera. Ze etor daiteke handik Gipuzkoako enpresendako?

Bi bider izan gara han, azkeneko, uztailean, Gipuzkoako 20 bat enprekin. Urugayn %40ak euskal jatorria dauka. Bestalde, Mercosur dela-eta ondo kokatuta dago, hazten doan merkatua da, Brasil, Txile edo Perurekin batera... Eraikuntzan, hezkuntzan, itsasoko sektorean... aukera handiak irekitzen zaizkie Gipuzkoako enpresei.

Gipuzkoako enpresaburuen elkarrearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko harremanak zelakoak dira?

Onak, nahiz eta hedabide batzuetan kontrakoa adierazi hainba-



Uriguen diputatua, joan den martitzenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

"Krisiari hobeto erantzun dio makina-erreminta sektoreak"

"Lehengaien kostuak garestitu izana arazoa da baserriarrendako"

"Lehen sektoreak ezin die bizkarra eman teknologia berriei"

"Krisian gaudela kontuan hartuta, urte ona izan da turismo aldetik"

tean, modu interesatuetan. Harreman ona da eta hala izan behar du, gainera.

Zergak direla-eta, eztabaida izan da enpresaburuen eta ogasunaren artean. Gipuzkoako zerga politikek mesede egiten die enpresei?

Interes orokorrak defenditu behar ditugu eta oreka puntuak topatu. Zentzuzkoa da gehien daukanak gehiago ematea edo ordaintzea. Horrek ez du esan nahi enpresak zigortzen ditugunik, justuagoak izatea da kontua.

Gaur egun landa ingurunearen arazo eta erronka nagusia zein da?

Arazoetako bat da lehengaien prezioak garestitzea eta lehiakortasuna galtzea. Hemengo nekazaritza eremu txikikoa da eta horrek zailtasunak areagotzen ditu.

Udako oporrak zela joan zaizkie landetxe edo baserri turismoei?

Ondo joan zaizkie oporrak. Espainiako turismoa jaitsi egin da, bai hoteletan eta baita baserri turismoetan ere, baina, beste toki batzuetatik etorri dira. Datu onak dira. Abuztuan, logelak beteta izan dira. Krisian gaude la kontuan hartuta, urte ona izan da.

Zertara etortzen dira turistak Gipuzkoara?

Zerbait ezberdinaren bila, sentsazio berrien bila. Gastronomiak asko erakartzen du eta, horren inguruan, kultura eskaintza goi mailakoak ere bai. Gainera, hemen oso harrera ona egiten zaio turistari. Oso arraroa da hona etorri eta berriro itzultzea.

Hiriburura edo kostaldera ez ezik, barrualdera ere bai?

Donostiak asko erakartzen du, jakina, baina, aurreko lehen aldiz, esaterako, lurraldeko eskualde guztiak sinatu ditugu akordioak eskaintza orokor bat egiteko. Izan ere, hiriburua edo kostaldeaz gain, barruko turismoa ere saldu nahi dugu, asko dugu-eta eskaintzeko.

Zenbateraino da garrantzitsua turismoa Gipuzkoako Foru Aldundiarentzako?

Oso garrantzitsua da. Gipuzkoako Barne Produktu Gordinaren %7 da turismoak ematen duena; Bizkaian, %4.

Bilbok aurre hartu dio Donostiari azken urteotan?

Negozio turismoa asko hazi da Bilbon, azpiegitura aldetik asko hobetu delako azken urteotan.



“Trending topic” diseinua prezio onean

**irteera-
eskaintza**
Irailaren 30erarte
LUZAEZINA

Tuit sofa
lehen 1.203 €
irteera prezioa



999€



berria

Tuit Sofa 3plaza + chaiselonguea. Eserleku lerragarriak, beso zabalak eta buru mugikorrek. Mixtura 28 koloredun ehunean tapizatua. Neurria 287zm. Prezioa 999 €. Adierazitako neurri eta ehunarentzat balio duen promozioa. Bez-a barne.

tuit #sofa

www.kibuc.com Jarrai gaitzazu  

KIBUC Gure Ametsa

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 15 16 81

KIBUC

Azkenean gure etxean

HERRIAK

Bakardadeko Ama
Birjinaren irudia.

ARGAZKIAK: MIREN ARREGI



Lorategia: goian
Libanoko zedroak.

Aldare nagusia; Juana
Lestonnac ezkerrean, Andre
Maria erdian eta Loiolako
San Inazio eskuinean.

BERGARA

Eliza, irudiak, bobeda, lorategia eta gehiago ikusgai Mariaren Lagundian

200 urte baino gehiago du eraikinak, eta balio artistiko handia: Turismo Bulegoak bisitak eskaintzen ditu

MIREN ARREGI | BERGARA

200 urtean Mariaren Lagundiak bergararrak hezteko egin duen lana goraiatu eta bertako balio artistikoa herritar zein bisitariari ezagutarazteko asmoz, Bergarako Turismo Bulegoak Mariaren Lagundira bisita gidatuak eskaintzen ditu duela oso gutxitik. "Lagundikoen meritua, gainera, bikoitza da, hasieratik emakumeen heziketa izan baita euren jomuga", dio Alaia Aberasturik, Bergarako Turismo Bulegoko langileak.

1799a ezker Bergaran

Tuteratik iritsi ziren Mariaren Lagundiko mojak Bergarara. Hasieran, Rocaverde markesaren etxean hartu zuten ostatu; 9 urte geroago, Magdalena Goizuetak diruz lagunduta eraikitako eta gaur ezagutzen dugun Mariaren Lagundira joan ziren. 10 moja eta hamairu ikasle ziren orduan.

Eliza modernista

1818an hasi ziren ekiza eraikitzen, eta bukatu 1924an bukatu zuten. Nabe bakarreko elizaren alde baten komentua dago, eta beste aldean, berriz, eskola: "Bi funtzio zituen egitura horrek: batetik, klausurakoak ziren mojak eta ikasleak banatzea; eta bestetik,

guztien elkargune ere izatea", dio Aberasturik. Orduko aldare nagusiak eta gaurkoak badute desberdintasunik. Lehen, Bakardadeko Ama Birjinaren irudia zegoen aldarearen erdian, eta alde banatan lau santu jesuitaren irudiak: Loiolako San Inazio, San Franzisko Xabier, San Luis Gonzaga

eta San Estanislao de Kostka. 1900. urtean, Mariaren Lagundiaren sortzaile Juana Lestonnac beatifikatu zuten urtean, aldare nagusia aldatu zuten. Bakardadeko Ama Birjina, esaterako, ondoko beste aldare batera eraman zuten eta aldare nagusian Andre Mariaren, Loiolako San Inazioren eta Juana Lestonnacen irudiak ipini zituzten.

Bobeda eta organoa

Elizan jarraitzen dugu; izan ere, badago zer ikusi. Bobeda, esaterako, Eugenio Azkuek marraztu zuen 1857an. Juana Lestonnacen beatifikazioaren urtean, 1900ean, berriz margotu zituzten irudiak: "Andra Mariaren zeruratzea irudikatzen da bertan, lau aingeruk lagunduta", dio Aberasturik. "Organoa ere osoa aberatsa da, Bartzelonan egina, oso tailu bereziak dituena".



Mariaren Lagundia, kanpotik. | MIREN ARREGI

Bakardadeko Ama Birjina

Elizan jarraituz, eskuineko aldean dagoen Bakardadeko Ama Birjina ezin alde batera utzi. Iru-di hori, gainera, berezia da bergarrendako, XIX. mendean handik San Pedroro eroaten baitzuten irudia lehorte garaian euria eskatuz edota izurriteen kontra. Bestelako berezitasunik ere badu; izan ere, aurpegia eta eskuak bakarrik ditu. Gorputza egur zati bat da, eta, beraz, arropa bereziki jantzita dago, ikuslea horretaz jabe ez dadin.

Lorategia, ederra

Garai bateko barnetegian egoten ziren neska ikasleek lorategian aurkitzen zuten aisialdirako gunea. Horren adierazle dira gaur ere mantentzen diren pasealekuak, zuhaitzak, mahaiak eta eserlekuak... Libanoko zedroak ere aipatu behar dira.

Bestetik, badago Baserri deitzen dioten eraikin bat; XVII. mendeko eraikina, non aipatzekoa den hormen zabalera.

Bisita gidatuak asteburuetan

Hori eta gehiago ikusteko aukera asteburuetan duzue: zapatuetan 11:00etan eta 16:30ean eta domeketan, 11:00etan. Bisita 2 euro da; euro bat, langabe, ikasle eta erretiratuendako.



BEDOÑABE HAURRESKOLA (0-2 urte)

Matrikulazio epea zabalik: irailaren 12tik aurrera

NON: Bedoñabe Haurreskola • Alfonso VIII, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 76 86

bedonabe.arrasate@haurreskolak.net

NORENTZAT: 2011-12an jaiotakoentzat.



Rosa Sarabia | Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

"Obesitateari aurre egiteko irtenbide mediko eraginkor eta segurua da"

Sarabia doktoreak, Pronokal metodoan espezialista, kontsulta inauguratu du Arrasaten

Rosa Sarabia doktoreak kontsulta inauguratu du Udalaiz Zentro Medikoa, Arrasaten. Medikuntza estetikoan eta obesitatearen eta gizentasunaren gaineko tratamenduetan esperientzia dauka. Hala, bezeroei Pronokal metodoa eskaintzen die.

Metodo horren gainean konfiantza osoa dauka doktoreak; izan ere, emaitza eraginkorrekin demostratuta geratu da obesitate handia dutenen kasuan eta arrakasta barik askotariko dietak egin dituztenen kasuan. Metodo zientifikoa eta medikalizatua da. Pazientearen dietari, lan multidisziplinarra duen talde batek jarraipena egiten dio hasieratik bukaeraraino; baita bukatu ostean ere. Horrela lortzen da pisua eraginkortasunez galtzea eta, gainera, epe luzean mantentzea.

Sarabia doktorea, zertan datza Pronokal metodoa?

Medikalizatutako metodo pertsonalizatua da. Proteina oinarri duen dieta bat da eta helburua da, pazienteak galdutako pisua ez berreskuratzea. Gure asma da tratamendu hau bizitzan behin egitea eta metodoaren hiru etapak bukaeraraino eramatea. Koipeak eta azukrea murrizten ditugu, baina, gorputzeko masa muskularra gal ez dadin, proteina nahikoak mantentzen ditugu.

Nori zuzendutako metodoa da Pronokal?

Pisua galtzeko beharra dutenendako eta protokoloaren deskribapenean kontraindikaziorik ez dutenendako da. Bereziki, gizen-



Rosa Sarabia doktorea, Sarabia klinikako zuzendaria Bilbon eta Pronokal metodoan medikuen formatzailea.

tasun maila handia dutenendako, eta pisua galtzeaz gain honi lotutako patologiak hobetu nahi dituztenendako: bigarren mailako diabetesa, arterietako hipertentsioa, kolesterola... Horregatik, oso garrantzitsua da proteina dieta jarraitzeko, betiere, medikuaren kontrolpean egitea.

Sarabia doktorea, zein da zure lana?

"Galdutako pisua berriro ez berreskuratzea da helburua"

Paziente bakoitzaren segurtasuna eta osasun egoera ona bermatzeko ardura daukat. Horretarako, pertsona egokia den erabaki behar dugu metodoarekin aurrera egin ahal izateko: zenbat pisu galdu behar duen eta fase bakoitza zein momentutan gainditu duen ebaluatu behar dugu. Mediku analisian oinarritzen gara, eta pazientearen azterketa fisikoan. Gainera, etengabeko jarraipena egiten diogu, eta, bere dietan gabeziarik egon ez dadin, beharrezko osagaiak errezetatzen dizkiogu.

Diabetesa dutenendako zergatik da baliagarria Pronokal metodoa?

Bigarren motako diabetesa eta obesitatea lotuta dauden bi patologia dira. Oso garrantzitsua da diabetesa duen pertsonak bere pisu orekatuari eustea, arazoak eta bihotzeko arriskuak saihesteko. Pronokal metodoa oso eraginkorra da, betiere, medikuaren kontrolpean eta multidisziplinarra den talde batek lagundutako ohitura osasuntsuak jarraitzen

"Eraginkorra eta pertsonalizatua da Pronokal metodoa"

badira; luzaroan mantentzea da asma. Une honetan, Espainiako hamar ospitaletan Diaprokal ize-neko ikerketa egiten ari dira. Proiektu klinikoa, irekia eta kontrolatua. Obesitatea duten paziente diabetikoen tolerantzia eta segurtasuna ebaluatzea da asma. Horretarako, proteina oinarri duen dieta kaloria askoko dietarekin alderatzen dute.

Sarabia doktorea, zu medikuak formatzen zabilta. Zer esan nahi du horrek?

Mediku batek Pronokal metodoa errezetatzeko, oso kurtso zehatza egin beharra dauka. Oso harro nago nire lagun eta lankide diren medikuei pisua galtzeko aparte-tresna baten berri emateaz; gure pazienteen egoera hobetzeko denok jakin beharreko metodoa dela uste dut. Proteina oinarri duen dietak nire lanbideak eman dizkidan poztasunik handienak eman dizkit. Metodo horrekin 80, 40, 20 kilo... galdu dituzten pazienteak ikusteak, intsulina injektatzeari utzi diotela ikusteak edota metodo horri esker gazteek hondartzara joateari, dantza egiteari berriro ekin diotela ikusteak profesionalki bete eta konpenttsatu egiten nau.

Interesa duen pazienteak nora jo dezake informazio eske?

Sarabia klinikak doakoa den lehen kontsulta eskaintzen dizue. Bertan, metodo honen gaineko informazio guztia emango dizuegu; betiere, modu pertsonalizatuan eta zientifikoki garatua izango dena. Gure esperientzia zabalaz, pazienteari segurtasun eta eraginkortasun osoa eskaintzen diogu.

Orain Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

Rosa Sarabia doktoreak
kontsulta berria ireki du:



Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

PronoKal[®] metodoa
Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

Esan baietz
betiko

Ekintza bete zaku dator asteburua Arrasatera

Merkemerkaua, Baserritarren Azoka eta Uribarri-Erguingo jaiak protagonista

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Egongo da zer egin asteburuan Arrasaten; izan ere, egutegian askotariko hitzorduak ditugu gaurtik domekara.

Bi azoka, egun bakarrean

Hirugarren asteburua denez gero, ohi bezala, Baserritarren Azoka egingo dute bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 09:00etan hasita. Sasoi honetan ortuak produktuz gainezka egoten dira eta bertan ipiniko dituzten 17 postuetan ere nabaritu da aurtengo uzta opa-roaren emaitza.

Gainera, Jesus Romero sukaldariak denboraldiko produktuekin eginiko pintxoak dastatzeko aukera egongo da.

Baina ez da azoka bakarria izango, Merkemerkauaren zortzigarren edizioa egingo da 10:00etan hasi eta osoan herriko kaleetan; guztira, 32 saltoki aterako dira kalera. Txistulariek kaleak alaituko dituzte eta Erraldoi eta Kilkien Konpartsa irtengo da kalera, 17:00etan.

Modu horretan, bi azoka izango dituzte herritarrek eskura. Marga Garmendia Udaleko Enplegu eta Toki Garapen Saileko teknikariaren esanetan, bientzako onuragarria da aldi berean egitea, horietariko batera joaten denak bestean kuxkuxeatzeko aprobeitza baitezake.

Uribarri-Erguingo jaiak

Asteburuko beste hitzordu bat Uribarri-Erguin auzoko jaiak dira. Gaurtik domekara bitartean bertaraten direnentzako egitarau zabala antolatuko dute. Gaztetxoenentzako ekintzekin emango diete hasiera jaiei; Txatxilipurdiren eskutik jolas eta tailerrak egingo dituzte gaur, 17:00etan hasita.

Aurten zenbait aldatetarekin datoz jaiak; izan ere, aurreko urteetako hitzordu finko batzuk ez dira sartu egitarauan, herrikirolak eta bertsolarien saioa, kasu.

Herri bazkariari dagokionez, berriz, Kristina Zeziaga auzo-alkateak adierazi du horren aldeko apustu sendoa egin dutela, nahiz



Barazkiak begiratzen baserritarren azokan | GOIENA

URIBARRI-ERGUIN JAI EGITARAU

EGUBAKOITZA

23:00 Bitter Honey, Dirty Brothers eta Screammers & Sinners, Udalteplazan.

ZAPATUA

11:00 Puzgarriak, Usaetxen.

14:30 Auzo bazkaria, Larrea Plazan.

22:00 Versions Band.

DOMEKA

11:00 Patin topaketa, aparkalekuan.

19:00 Herrixa dantzan, Arimazubin.

eta uste baino erantzun txikiagoa eduki duen. Animatu direnak, baina, Larrea plazan elkartuko dira mahaiaren bueltan bihar, zapatua, 14:30ean.

Beste makina bat ekimenak osatzen dute aurtengo jai egitaraua eta aspertzeko aukerarik ez dute izango Uribarri-Erguingo auzotarrak. Besteak beste, Bitter Honey, Dirty Brothers eta Screammers & Sinners rock kontzertuak egubakoitz gauean; zezen eta poneyak, Lontxo taldearekin erromeria zapatuan; auzoari bira emateko patin topaketa, Lore Gazteak dantza taldearen emanaldia, tirolina, ohe elastikoak, skate eta patin pista, eta abar.

Azokak eta festak nagusi; erabateko asteburu aurretik, beraz, gaur hasi eta domekara bitartean, Arrasaten.



Ate joka dabil aurtengo Mugikortasun Astea

Astelehenean hasiko da eta irailaren 23ra arte ekintza ugari egingo dituzte: azoka, hitzaldiak...

Z.V.D.M. | ARRASATE

Urteroko hitzordu bilakatu da arrasatearrentzat Mugikortasun Astea. Ekintza ugari antolatu dituzte eta Birzikleta Azoka da hitzordurik arrakastatsuenetako bat; hilaren 22an egingo da. Herritarrek emandako materialari esker antolatzen da: bizikletak, kaskoak, patineteak, gurpilak... Antolatzaileek materiala jasoko dute azokan hainbat egunetan. Bihar, zapatua, izango da lehen eguna, 11:00etatik 13:00etara; eta irailaren 18an eta 20an, berriz, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, toki berean.

Autobusa eta poltsak, doan

Aste Berdearen harira, Ibai-Arteko dendetan erosketak egiten dituzten bezeroek debalde jasoko dituzte poltsa berrehabiltgarriak, irailaren 17an hasi eta poltsak agortu arte. Eta herri autobusari dagokionez,

aste osoan erabilera doakoa izango da.

Nabarmenezko beste hitzordu bat gidatze iraunkorrari buruzko ikastaroa da. Hilaren 22an egingo da, baina irailaren 19a baino lehen eman behar da izena BAZen bulegoan.

Kalearen erabilera, berbagai

Kaleei askotariko erabilera eman dakieke: jolasteko izan daitezke, eskolara oinez joateko... Horren harira, astelehenean Marta Roman geografo eta kontsultoreak *Eskola Bidea* hitzaldia eskainiko du, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian. Bertan, egun egiten den kale erabileraren gainean egingo du berba Romanek, eta haurren ikuspuntua ere landuko du. Esperientzia dauka alor horretan hizlariak; besteak beste, hainbat liburu idatzi ditu eta hiri antolamendua landu izan du genero ikuspegitik.



lazo Birzikleta azokako saltokietako bat, produktuz beteta. | GOIENA

'Euskaraz bizi nahi dut' herri lasterketan izen-ematea zabalik

Euskal Herriko zenbait herritan egingo dituzte *Euskaraz bizi nahi dut* lasterketak irailaren 22an, baita Arrasaten ere. Herriko Plazan hasiko da, 18:00etan, eta adinaren arabera ibilbide ezberdinak egingo dira. Aurrez eman daiteke izena: www.euskaraz-bizinahidut.org.

Haurren katekesian parte hartzeko izen-ematea irekita

Bi egunetan eman ahal izango dute izena katekesian 2006an jaiotako haurrek, hilaren 19an eta 20an eta 18:00-19:00 bitartean toki hauetan: San Juan Batzaiztailearen abade-etxean; San Andresko parrokiako aretoetan; Uribarriko abade-etxean; eta Santa Teresa-San Isidroko bulegoetan.



xarma
edertze zentroa

943 79 91 25
ARRASATE

Xarma eraberrituta dator,
helbide berrian:

Olarte 31n

(Beinke ondoan)

Adi egon!
Laster izango gara
zuekin berriz ere!



Pitxi Herreroen oroimenez iaz egindako partidu baten argazkia. | GOIENA

Jesus Maria Herrero 'Pitxi'-ren omenez asteburu berezia egingo dute Iturripen

Zortzigarren aldiz omenduko dute eskubaloi taldeko entrenatzaile izandakoa

Z.V.D.M. | ARRASATE

Asteburu honetan, irailaren 15ean eta 16an, denboraldi-aurreko hitzordu berezia dauka Ford Mugarri Eskubaloi Taldeak. Izan ere, aurten, zortzigarren aldiz, herriko eskubaloi taldeko entrenatzaile izan zen Jesus Maria Herrero Pitxi-ren oroimenezko

jardunaldia egingo dute Arrasateko Iturripeneko kiroldegian.

Lau talde norgehiagokan

Lau taldek hartuko dute parte Pitxi Herreroen oroimenezkoan. Zapatuan, 17:00etan hasita, lehenengo finalaurrekoa jokatu dute lehen nazional mailako Eibar

Eskubaloi eta Trapagaran taldeek. Jarraian izango da bigarren finalerdia: Euskadiko Txapelketan lehiatzen diren Ford Mugarri Arrasateren eta Gure Auzune gasteiztarren txanda izango da, 18:30ean.

Domekan jarraituko du Pitxi-ren omenezko hitzorduak: hiru-

garren eta laugarren postuak zeinentzat izango diren erabakitzekeo partidua izango da 11:00etan. Eta 12:30ean finala jokatu da Iturripeneko kantxan.

Denboraldiari, gogotsu

Ford Mugarriko mutilek irailaren 30ean hasiko dute ofizilaki 2012-2013 denboraldia, Askartzaren kontra, Leioan. Etxean jokatu duten aurreneko partidua, aldiz, urriaren 7an izango da, domekan, eta Gasteizko Corazonistas izango dute aurrez aurre.

Oraindik lehiaketa ofizialekin hasteko zenbait aste falta diren arren, Ane Herreroen mutilek asteak daramatzate denboraldia prestatzen. "Ondo ikusten dut nire taldea, baina aurretik badaukagu lana egiteko; besteen artean, dinamika hartzea falta zaigula esango nuke".

Bi urte daramatza Herreroen eskubaloi taldea entrenatzen. "Ez da lan samurra izaten, baina, zorionez, taldeak asko errazten dit egiteko. Asko gustatzen zaie eskubaloi, ongi jokatu nahi dute, eta, ondorioz, ez dute partidurik galdu nahi. Oro har, motibatuta ikusten ditut jokalariek guztiak".

Entrenatzaile arrasatearraren iritzi, ligan zenbait talde indartsurekin egingo dute topo hasteko duten denboraldian. "Iruditzen ziat Askartza dela momentu honetan, agian, atentzio handien ematen digun taldea. Baina edozeinek eman dezake ezustekoa; horregatik, motibatuta eta prest egon behar dugu".

Eman daiteke izena 1951n jaiotakoan urteroko txangoan

Antolatu dute 1951n jaiotakoan urteroko txangoa; oraingoan, Bizkaiko kostaldea bisitatuko dute, urriaren 20an, hain zuzen. Bazkaria ere egingo dute, eta horretarako, Bermeo hautatu dute geldialdia egin eta mokadutxo hartzeko. Antolatzaileek bertan parte hartu gura dutenei gogorazi nahi diete urriaren 12a baino lehen 60 euro sartu beharko dituztela euren izen-abizenak ipinita Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0047 13 0471083108.

Lurrin-terapia tailerra antolatu du Ekin Emakume Taldeak

Ekin elkartearen ekimenez, irailaren 27tik azaroaren 22ra bitartean lurrin-terapia izeneko tailerra egingo da. Bertan, olio esentziak eta uken-duak egiteko aukera izango da, besteak beste. Bazkideek 23 euro ordaindu beharko dituzte; 25 euro, berriz, bazkide ez direnek. Izen-ematea irailaren 24ra arte egongo da irekita, Ekinek Pablo Urangan duen egoitzan; 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 zein *ekin.emakumeak@telefonica.net* helbidean.



ARRASATE

ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2012
IRAILAREN 17tik 23ra



HIRI BUSA

Irailaren 17tik 23ra hiri busean DOAN ibili ahal izango da.

** Adingabeek autobusa erabili ahal izango dute nagusi batek lagunduta badoaz edo ohiko eskola bidaiak egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezten)

Irailak 17 - Astelehena

HITZALDIA - Kalean haurren autonomia sustatzen. Eskola bideak - Marta Roman
Kulturate - Areto nagusia 18:30ean

Irailak 22 - Zapateria

BIRZIKLETA AZOKA - Bigarren eskuko bizikleta azoka Seber Altube plaza 11:00-15:00
• Noiz eta nola batuko den materiala (*)

SEG WAY eta TRIKKE - Biteri plaza - 11:00-14:00

ERAKUSKETA - EMISIO TXIKIKO IBILGAILUAK 'Mugitzeko beste era bat'

Biteri plaza - 11:00-15:00
Auto hibridoak eta elektrikoak, paseoko bizikletak, tolesgarriak, elektrikoak, segwayak...

IKASTAROA - Gidatze eraginkorra / Gidatze ekonomikoa

Kulturate - Jokin Zaitegi gelan - 09:30-13:30
Ikas ezazu autoa gidatzen, erregaiaren kontsumoa %20 txikituta.
Informazioa eta izen-ematea: Ingurumen Sailean edo BAZen
Izena emateko azken eguna: 2012/09/19. Plaza mugatuak.

Irailak 23 - Domeka

BIRZIKLETA BIRA - Arrasatetik Eskoriatzako plazaraino bidegorritik
Irteera: Seber Altube plazan 11:00etan

(*) BIRZIKLETA azoka - Noiz eta nola batuko dugun materiala:

• **Zer batuko dugun:** Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurrentzako bizikletak, trizikloak, patinak, patineteak, kaskoak, abiadura-neurgailuak, gurpilak, eskularruak, maillotak...

• **Noiz eta non batuko dugun materiala:** Udala Azokan

- Irailaren 15ean, zapatua - Irailaren 18an, martitzena, eta 20an, eguena
11:00-13:00 11:00-13:00
17:00-19:00

Salneurria jabeak jarriko dio

Saltzen ez den materiala eta saldutakoaren zenbatekoa jabeari itzuliko zaio. Irailaren 27an, eguena, 17:00-19:00, Udala Azokan

Alejandro Altuna (JMA): 22 urte lanlekua euskalduntzen

- ▶ Militantzia hasi zuten euskalduntze prozesua, ia 110 langileren artean
- ▶ Urte bukaerako neurketaren arabera, langileen %90 elebidunak dira gaur egun

UBANE MADERA | ARRASATE

"Alejandro Altunaren barne-jardueran hizkuntza nagusia euskara izatea nahi dugu. Euskara gure ondarea dela sinesten dugu, ondare bakarra, eta horregatik, guztiok zaindu behar dugula uste dugu, euskararen erabilera gure lanleketan bultzatuz. Ez dugu zalantzarik konpromiso hori erabat bateragarria dela beste hizkuntzen erabilerarekin, eta zuek guztiok ere horrela ikustea nahiko genuke, eta baita, bakoitzaren testuingurua eta aukerak kontuan hartuta, konpromiso horren alde egitea Alejandro Altuna osatzen dugun gutako bakoitzak ere".

Alejandro Altuna, SAK, JMAk, aspaldi dauka hartuta konpromiso hori eta hala azaltzen dute enpresako Hizkuntza Politika Orokorraren gaineko eskuliburuan.

Arrasateko fabrika barrura sartuz gero, berehala egiten da agerikoa euskaren presentzia: errotulu, jakinarazpen, kartel, harrera zerbitzua... horietan guztietan euskarari lehentasuna ematen saiatzen dira.

Euskarari lehentasuna

Eta konpromiso horren adierazgarri, enpresako Hizkuntza Politika Orokorra landu eta argitaratu dute aurten, eskuliburu itxuran, hiru hizkuntzatan: euskarak, gaztelaniaz eta ingelesez.

Enpresako langile guztien artean banatu dute, eta Euskal Herriko bezero eta hornitzaile nagusiei ere bidali diete.

Hizkuntza politikaren irizpidea ondorengoa da: "Barne-jardueran euskarari lehentasuna ematea eta kanpo-jardunean, aukerak daudenean, euskarari sarbidea ematea".

"Alejandro Altunako Hizkuntza Politika Orokorraren proiektu

hau euskararen normalizazioa lortzeko planteamendu orokor baten barruan txertatzen da, jasotzen dituen helburu eta irizpideak betetzeko prozesu baten barruan", azaltzen dute eskuliburu horren sarreran.

Hain justu ere, prozesu horrek laster 15 urte beteko ditu. Orduantxe hasi ziren modu ofizialean Alejandro Altunaren euskararekiko jauzia eman, eta lanlekua eta lan-jarduna euskaratzen.

Aitzindarien artean

Hizkuntza Politika Orokorra laburbiltzen duen eskuliburu eskuan hartuta, sinplea eta erraza dirudi egindakoak. Baina urte askotako lana dago JMAn gaur egungo errealitate euskaldunaren atzetik.

Are gehiago, prozesuaren hasierara joz gero, Debagoienean (eta, oro har, Euskal Herrian) JMA aitzindarietako bat izan zen lanlekuan euskararen normali-

zazioa bultzatzen. Izan ere, inguruko kooperatiba gehienetan 1999 inguruan jarri zituzten martxan euskara-planak. EMUN Lana Euskalduntzeko Kooperatiba ere orduan sortu zen, eta horrek bultzada handia eman zien euskalduntze prozesuei.

Hala ere, gure ibarrean, Antzuolako Elay enpresa izan zen euskara plana martxan jartzen lehena (1991). Are gehiago, Elhuyar Aholkularitzak eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzat bitartez abiarazi zuten lehen esperientzia hura. Eta beste kasu bat aipatzearren, Fagor Ederlan ere 1999a baino lehen hasita zegoen zeregin horretan.

Oinarria: militantzia

Alejandro Altunari dagokionez, 80ko hamarkadaren amaierara jo beharra dago euskararen babesarako hasierakoen bila.

"JMAn 1989an hasi ginen elkartzen eta euskararen alde

lanean, Euskara batzorde moduko batean. Baina orduan ez genituen gaur egungo baliabide berak, ezta gutxiago ere.

Garai hartan JMAn gaztelaniaz hitz egiteko joera zegoen, kaleko joera ere hori zelako. Gainera, langile asko, alfabetatu barik ere bazeuden, eta horrek erraztu egiten zuen gaztelaniarantzko joera hori", kontatu du Alberto Etxagibelek, JMAko Euskara batzordeko eta zuzendaritzako ordezkariak.

Hala ere, hark azpimarratu du Alejandro Altunako ugazabak euskaltzaleak direla eta beti izan dutela euskararekiko konpromisoa. Hori dela eta, beti egon dela euskararekiko kontzientzia handia fabriketan.

Etxagibelek kontatu du zela hasierako fasearen ostean, talde txiki asko sortu ziren JMAn, eta bakoitzak arlo desberdinetan lan egiteko ardura hartu zuen: "Inprimakiak, tailerreko kartelak,

dokumentazioa euskaratu... Hori guztia militantzia egiten zen, ez modu profesionalean. 110 langile ginen orduan eta ia guztiok parte hartzen genuen, lanak banatu eta norberaren lan ordutegitik kanpo".

Kanpoko aholkularitza

Hala ere, beste pauso bat emateko beharra ikusi zuten: "Euskaratze lan honekin jarraitu edo ez erabakitze, langileen artean bozketa egin genuen eta %95 alde azaldu zen. Bozketaren erantzuna jakinda, 1998an, Arrasateko Euskalan Elkartarekin elkarlanean hasi ginen (1996an sortu zuten Euskalan, lan munduan eta enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko).

Euskalan elkartarekin lan egiteko arrazoia izan zen lan horrek dedikazioa behar zuela konturatu ginela. Modu horretan, lana hobeki planifikatzeko lehenbiziko pausoa eman genuen", jakinarazi du JMAko Euskara batzordeko eta zuzendaritzako ordezkariak.

Eguneroko lana

Aurrerapauso handien sasoia izan zen 90eko amaiera hura, ia guztia zegoen-eta egiteko.

Eta 22 urte hauen ostean lortu duten emaitza esanguratsua da, duda barik.

Hona hemen horren erakusle diren datu batzuk: urte bukaerako neurketaren arabera, JMAko langileen %90 elebidunak dira. Eta iazko udazken-neguko neurketaren arabera, berriz, euskararen ahozko erabilera da %45ekoa.

Baina, oraingoz, eta zoritxarrez, bukaerarik ez duen lana da JMAn dutena. "Heltzen da momentu bat aurrerapenak ez direla horren argi ikusten. Eguneroko lana da.

JMAko Euskara batzordea

Bederatzi lagunek osatzen dute JMAko Euskara batzordea. Haiekin batera, gainera, hamabostean behin Elhuyarko teknikaria izaten da. Batzordeko bederatzi lagun artean, enpresako arlo desberdinetako ordezkariak egoten ahalegintzen dira: produkzioa, bulego teknikoa, zuzendaritza... Jarduteko moduari dagokionez, hamabost egunean behin elkartzen dira egoeraren jarraipena egin eta motibazio ekintzak prestatzeko.



Euskara batzordeko kideak, JMAn logoaren aurrean. | JMA

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel.: 943 79 48 77 ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Olatz
Musika akademia

- Gitarra, piano eta baxu eskolak.
- Irakasteko hainbat metodo aukeran: solfeo, tablatura, zifratu amerikarra eta esperimentalak.
- Adin guztietarako.

Alfontso X Jakintsua 7 (Grupo San Juan) ARRASATE.
Tel.: 627 13 26 14 • olatzurkia@gmail.com



JMAko langileek apirilean egindako batzar orokorra baino lehen ateratako argazkia, Musakolako enpresaren aurrean. | U.M.

Gauza batzuk falta direla ikusten dugu. Azken batean, ohitura kontua da. Ohiturak oso barneratuta ditugu, eta aldatzea oso zaila da. Adibidez, gertatu izan zaigu batzar batean gehienak euskal hiztunak izatea, baina baten batek euskarerikiko joerarik ez badu eta nahiz eta pertsona horrek ulermen mai-

la ona izan, batzar horren zati handi bat gaztelaniaz egitea. Urte asko daramatzagu gure artean hizkuntza joera berak erabiltzen, eta horiek aldatzea oso zaila da", kontatu du Idurre Arbulok, Euskara batzordeko kideak eta JMAko giza baliabideetako teknikariak.

Euskaraz bakarrik, nekez
Horrez gainera, argi dute oso zaila dela JMAko jardun guztia osotasunean euskaraz egitea: "Onartzen dugu oso konplexua dela. Izan ere, badago portzentaje oso txiki bat euskaraz ez dakiena. Horri, gehitu behar zaio kanpotik datozenek ere ez daki-

tela euskaraz, eta gure merkatu handiena Euskal Herrikan kokoa dela. 10 giltzatik 7 Estatutik kanpora doaz: Frantziara, Alemaniara, Ingalaterrara...", azaldu du Mikel Arenatzak, Alejandro Altunako Euskara koordinatzaileak.

Euskara ia galduta izatetik...
Beraz, zein da egin beharra orain? Dagoenetan utzi, aurrera segi... Alberto Etxagibekek argi dauka: "Euskara zaindu egin behar da. Orain 40 urte euskara ia galduta zegoen. Orain berreskuratu egin dugu, baina falta zaiguna erabiltzea da. Esaterako, hitz tekniko asko falta dira, baita alfabetizazioa ere. Kontuan hartu 40 urtean euskara ez zela erabili. Adibidez, fabrikak sortu zirenean geldi zegoen, eta horregatik falta dira horrenbeste hitz tekniko".

Hark gaineratu du, adibidez, kataluniarrak eredugarri izan daitezkeela euskararen bizirau-penerako: "Hemendik aurrera katalanizatu egin behar gara. Ez gu bakarrik baita gizartea bera ere. Eta bide horretan oztoporik handiena guztion ohitura aldaketa izango da".

ESANAK

"Ohiturak oso barneratuta ditugu, eta aldatzea oso zaila da"

IDURRE ARBULO
EUSKARA BATZORDEA / GIZA BALIABIDEAK

"Kanpoko da merkatu handiena; beraz, konplexua dena euskaraz izatea"

MIKEL ARENATZA
EUSKARA KOORDINATZAILEA

"Katalanizatu egin behar dugu; ez gu bakarrik, baita gizartea bera ere"

ALBERTO ETXAGIBEL
EUSKARA BATZORDEA / ZUZENDARITZA

JMAren ezaugarriak

- ▶ 1942an sortutakoa da.
- ▶ 200 langile ditu Arrasaten, bi plantatan banatuta.
- ▶ 5 planta produktibo ditu.
- ▶ 10 filial: Frantzia, Argentina, India, Maroko, Mexiko, Uruguai, Polonia, Portugal, Britania Handia eta AEB.
- ▶ Giltzak eta bikoizteko makinak egiten ditu.
- ▶ Europako giltza ekoizle handiena da.

Euskararen alde egiten dihardutena

Alejandro Altunako hizkuntza-irizpideak lau ardatz nagusiren inguruan daude antolatuta:

1. Irudi korporatiboa: gutun-azaletan, telefonoz, iragarkietan, orri buruetan, posta elektronikoaren oharretan, txartel pertsonaletan...Guztiak dira elebidunak, hirueledunak edo neutroak. Bestalde, telefonoz eta aurrez aurre, adibidez, lehenengo berba euskaraz esaten dute.
2. Barne-harremanak: barne inprimakietan beti agertzen da euskara, barne erabilerako inprimakiak euskaraz bakarrik daude, euskaldunetz osatutako bilerak euskaraz egiten dituzte...
3. Kanpo-harremanak: ahal denean, hornitzaile, bezero eta erakunde publikoekin eta finantza-erakundeekin euskaraz jarduten dute.
4. Giza baliabideak: langile berria kontratatzerakoan hizkuntza profila kontuan hartzen dute beti; ez dakienari enpresak matrikula ordaindu eta erraztasunak ematen dizkio ikasteko, euskara planaren berri ematen zaie berriei, langileekin komunikazioa euskaraz da... dira jardunbideetako batzuk.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

San Martin eta Aranzadik obrekin hasi dute kurtsoa

Aranzadik Gabonetan bukatuko ditu lanak eta San Martinek, urtebete barru

A.B. | BERGARA

Matinez de Irala eraikina aldai eta oihal beltzez inguratu ta topatu dugu udako oporren bueltan. Izan ere, San Martin eskola dagoeneko hasi da eraikinean egin beharreko egokitzapenak eta lanak egiten, horiek bukatu ostean Haur Hezkuntza bertan kokatu ahal izateko. Martinez de Irala egokitzeko proiektuak bi fase izango ditu. "Lehenengo fasean, orain hasi berri duguna, teiltua eta eraikinak dituen saneamendu arazoak konponduko ditugu. Bigarren fasean, berriz, eraikina barrutik egokitzuko dugu", adierazi du San Martin eskolako zuzendari Begoña Otxoak.

Eraikina 70eko hamarkadako da; konponketek ez dute kanpoko egituraren eraginik izango. Egokitzapenak bukatu ostean San Martin eskolako Haur Hezkuntzako ikasle guztiak kokatuko dira Martinez de Iralan eta jangelak ere bertan jarraituko du, egokitu eta berriztu egingo duten arren. Asmoa da hurrengo ikasturterako (2013-2014) egokitzapenok amaituta egotea. Eskolako zuzendariaren hitzetan, aldaketa horiek guztiak gaur egun dituzten espazio arazoak konpontzen lagunduko dute.

Aranzadiko lanek, martxa ona
Aranzadi Ikastolan, bestetik, aurrerajarratzen dute berriztatze lanek,



Martinez de Iralan hasi dituzte egokitzapen lanak. | A.B.

eta, dena ondo bidean, Gabonetarako Aranzadiko ikasle guztiak Errege Seminarioko eraikinean kokatuta beharko lukete. "Lan potoloena bukatu dugu; zarata, zikinkeria eta hautsa sortzen zuen guztia amaitu dugu", adierazi du



Aranzadiko fatxada. | A.B.

Aranzadi Ikastolako zuzendari Ane Barrusok.

Haur Hezkuntzako gelak egokitzuta daude, eta baita Lehen Hezkuntzakoak eta Batxilergokoak ere. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gelak egitea faltako

litzateke, eta, horretarako, gaur egun museo dagoen tokian hainbat gela egokitu beharko dira. Udalaren asmoa da museo iraila eta urria bitartean lekuz aldatzea. Hori horrela izanez gero, Barrusok uste du espazio horretan egokitu beharreko gelak egokitu eta Gabonak baino lehen aurrefabrikatutako etxetxoetan dauden ikasleak Errege Seminariora joan ahal izango direla. Esan bezala, beraz, dena ondo bidean, Gabonetarako Aranzadi Ikastolak amaituta izango ditu lanak eta Seminarioko jolastokia ere libre geratuko litzateke berriro ere. Horrek arnasa hartzea ekarriko du, zuzendariaren hitzetan: "Aste Santuan batu ginen guztiok Errege Seminarioan, baina modu txarrean batu ginen: irakasle-gelak egokitu barik, lanak amaitu barik... Obrak eta instalazioak amaitu ostean, gure lana behar bezala egiten hasi ahal izango gara. Azken urte eta erdian oso gaizki egon gara".

Ikasturtea obraz inguratuta hasi dute bai San Martin eskolak eta baita Aranzadik ere, baina, lan horiekin, ikasturte honen amaieran finkatuta geldituko litzateke Bergarako mapa eskolarra.



Haurtzaindegiko gela amaituta dago eta laster hasiko dira erabiltzen. | A.B.

Argiteria adimenduna ipini dute Angiozarren

A.B. | BERGARA

Bergarako Udalak Angiozar auzoko Goiko kaleko argiteria berri du eta LED lanpara bidez argiztatzen duten 17 farola adimendun jarri ditu. Ezarri den *Berdin-Luix* argiztapen berriarekin, 150 wateko sodiozko betiko bonbillak 50 wateko LEDekin ordezkatu dira.

Aferreko kontsumoa jaitsi

Argi horiek, gainera, presentzia detektoreak dauzkate, argiaren potentzia erregulatzea ahalbidetzen dutenak. Modu horretan, argiteria potentzia txikian egongo da programatuta -%20an-, baina pertsona edo ibilgailu baten presentzia sumatzerakoan, bonbillak indartu egingo dira. Ondorioz, inor ez dabilen orduetan, alferreko kontsumoa era esanguratsuan murriztea lortzen da, %80 inguru gutxiago.

Ekimen horrekin, teknologia efizienteagoak erabiltzeko eta argiteria-gastua murrizteko hasitako ibilbideari jarraitu nahi dio Udalak.

170.000 euro gastatu dira

Bergaran 3.031 farola daude. 2011n argiteria publikoan 281.549 euro gastatu zituen Udalak, aurreikusitakoa baino 30.000 euro gehiago. 2012-rako 270.000 euro bideratu ditu Udalak argiteriara eta dagoeneko 170.000 euroko gastua egin da.



Ondo pasa San Martinetan!

Jardunen 'Herrixa Dantzan' plaza dantzen ikastaroa urrian itzuliko da

ARRITXU BARRUSO | BARRUSO

Joan den urteetan izandako arrakasta ikusita, Jardun Euskara Elkarteak antolatzen duen *Herrixa Dantzan* ekimenak beste ikasturte bat hasiko du urrian. Hain justu ere, urriaren 2an egingo dute lehenengo saioa. Martitzetan izango dira saio guztiak.

Maila ezberdinak

Hiru talde bereiziko dituzte, eza-gutza-maila ezberdinetako jendeak parte har dezan: 18:00etatik 19:30era hastapeneko taldearen txanda izango da; 18:30etik 20:00etara bigarren mailakoena; eta 20:00etatik 21:30era dantza txokoa egingo dute.

Eskolak urriaren 2an, martitzena, hasiko dira, eta izena emateko epea zabalik dago. Jardun elkarteak Errotalde jauregian (kultura etxea) duen bulegoan edo jardunkultura@topagunea.com helbidera idatzita eman ahal izango da izena.

Ikastaroaren prezioa 17 euro da hilean, eta Jarduneko bazkide izanez gero, 15 euro. Informazio gehiago behar izanez gero, 943 76 36 61 telefono zenbakira dei daiteke.

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1 | 943 76 02 57
Toki Eder plaza 3 | 943 76 14 87
BERGARA

Burdiñate
Puente al Inglés
Akademia

Ingelesko klaseak • , Azterketa ofizialean prestaketa
Eskolen errefortzua

Informa zaitenez konpromiso gabe!

Tel.: 943 54 09 12 - Burdiñate 5 behe, BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Jaietako ohiko ekitaldiei San Martinen omenezkoak batuko zaizkie asteburuan

San Martinen bideoaren aurkezpena eta dantza txapelketa egongo dira gaur

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Dena prest dago gaur hasi eta domekara arte San Martin jaiak ospatzeko. Aurten bereziak, gainera, San Martinekin lotutako hiru urtemugak markatutako egitaraua prestatu dute-eta, aurreko egubakoitzean aurreratu genuen moduan: 150 urte betetzen dira martiria kanonizatu zutela eta 50 urte Surragan gurutzea jarri eta Simon Arrietak udaletxean murla margotu zuela. Eta horrek guztiak isla izango du jaietan.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, San Martini buruz egindako bideo berezia aurkeztuko dute osoko bilkuren aretoan. Bideo horrek honakoak jasotzen ditu: 1962ko Bergarako ekitaldien irudiak -100. urteurrenekoak-; 1962ko Nagasakiko ekitaldien irudiak -Nishizakako martirien monumentuaren inaugurazioa-; 2012ko Nagasakiko ekitaldien irudiak; 1931ko martiriei buruzko pelikula japoniarra; eta 2012ko martiriei buruzko film berria. Bideo horren laburpena ikusgai egongo da udaletxeko arkupeetan jaietan barrena. Aurkezpenaren ondoren, San Martin plazan jarri duten Surragako gurutzearen erreplika inauguratuko dute.



Urteurreneko ekitaldiak antolatu dituen talde eragilea muralaren ondoan. | A.B.

Bihar meza egongo da 18:00etan Surragan, eta gero, omenaldia gurutzea eta murla egin zutenei: Fernando Azkargortaren oinordekoei -gurutzearen diseinatzailea-; Simon Arrietaren oinordekoei -muralaren egilea -Mari Cruz Uriarteren oinordekoei -Surragako lursaila laga zuena-; eta Jesus Arregiri -gurutzearen obrako aparejadorea.

Nagusien danborradari dago-kionez, martirioa indartu egingo dute eta Gabero abesbatzak, Bergarako Orfeoak, Musika Eskolako zenbait ikaslek eta beste zenbait herritarrek hartu-

ko dute parte. Bestalde, Alfredo Gz. Chirlaquek konposatutako musika berria joko du musika bandak.

DATUA

51

GAZTA LEHIATUKO DIRA

Barazkietan 14 eta frutan 5 lehiakide egongo dira. Beste 46 postu ere jarriko dituzte.

Domekan, 10:00, San Pedroko kanpaien kontzertua eskainiko du Aretxabaletako Areantza kanpai eskolak. 12:00etan Martin eta Martina izenekoak batzeko dei egin dute argazkia ateratzeko San Martin plazan eta 12:30ean bandaren kontzertua egongo da.

Gaur dantza eta bihar feria

Jaietan ohiko bihurtu diren ekitaldiak ere egongo dira. Gaur, Moises Aspiazuren omenez egiten den bikote nagusiendako 28. dantza solte txapelketa jokatuko da, 19:30ean, Udal pilotalekuan. 11 bikote arituko dira.

Bihar, zapatua, feria egongo da, 10:00etan hasita. San Martin plazan eta Seminarioa jarriko dira postuak. Barazki lehiaketan 14 parte-hartzaile egongo dira; frutan, 5; eta gazta lehiaketan 51. Askotariko produktuak saltzen dituzten beste 46 postu ere etorriko dira.

Gainera, Urtzelai, Imaz, Joseba, Gaittao, Imanol Albizu, Igarza eta Bixain harategiek emandako odolostea dastatzeko aukera ere egongo da plazan. Aranzadi ikastolak kudeatuko du txosna hori eta Seminarioan talo postua jarriko du Jardunek. 14:30ean Txomin-gero bazkaria ere egongo da -bazkaria norberak eramanda-. Udalak 160 lagunendako mahai eta aulkiak jarriko ditu Iralan.

Domekan sokamuturra egongo da 09:00etan, eta 18:30ean umeen danborrada hasiko da.



OHARRAK

DOMEKAN EZ DA EGONGO 12:00ETAKO MEZARIK

San Martin eguna dela eta, domekan ez da 12:00etako mezarik izango Santa Marina parrokian. Meza nagusia 11:00etan izango da. Bestalde, parrokiatik gogora ekarri dute 10:00etan Aretxabaletako Arientza auzoko Kanpai Eskolakoei kontzertua egingo dutela San Pedro parrokiako kanpai berrituekin.

1960AN JAIOTAKOAK AFARIA EGINGO DUTE


Urriaren 6an egingo dute, Azpeitxi jatetxean. Izena emateko 10 euro aurreratu behar dira Ariznoa tabernan edo Josefina estankotan.

1942AN JAIOTAKOAK BILBORA JOANGO DIRA

Irailaren 29an joango dira. 10:00etarako egin dute hitzordua merkatu plaza ostein. Izena emateko 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 0090089619 zenbakian. Azken eguna irailaren 19a.


POSTAZ BOZKATZEKO BULEGOA IREKI DU EAJ-K

Legebiltzarrerako hauteskundeetan botoa postaz emateko bulegoa jarri du EAJK, 11:30etik 12:30era eta 18:30etik 20:00etara. Kontsultetarako deitu 943 76 47 00 zenbakira.



ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA
FAGOR
banatzaile ofiziala

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA
expert
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2012 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Umeei eta gazteei entzuten zaie gehien euskaraz berba egiten

Azken 20 urteetan %47,9tik %64ra egin du gora erabilerak kaleetan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Joan den udazkenean egin zuen Soziologia Klusterrak euskararen kale neurketa Oñatin. Hilabetez, 5.000 herritar baino gehiagoren hizkuntza portaera neurtu zuen herriko hiru gunetan: herrigunean, Olakua eta San Lorentzo auzuneetan eta Errekalden.

Behaketa zuzenean oinarritu da ikerketa. "Datuak biltzeko ez zaio inori ezer galdetu, gertatzen dena datu bihurtu eta jaso da. Modu diskretoan egiten da eta zer entzuten den berri jasotzen da fitxa batzuetan", azaldu du Soziologia Klusterreko Belen Uranga teknikariak.

%80 baino gehiago

Euskal Herriko kale neurketaren diseinua jarraitu du Oñatiko neurketak ere, lau adin tarteko datuak hartu dituzte: haurrak (2-12 urte), gazteak (15-24), helduak (25-64) eta hortik gorakoak, adinekoak. Herritarren sexua eta elkarrizketa gertatzen den unean umeak dauden edo ez ere jaso du ikerketak, portaerak asko aldatzen direlako umeak egon edo ez.

Ikerketa horrek eman duen datuetako bat da egun %64koa dela euskararen erabilera herriko kaleetan. Duela 20 urte, %47,9 zen eta goranzko joera hori oso garrantzitsutzat hartu dute bai ikerketa egin duten teknikariek bai udal ordezkariak. "Egun, umeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak kalean, %80tik gora. Gazteek ere asko erabiltzen dute, %75ek, nahiz eta azkenaldian



Kultura etxean aurkeztu zituzten kale neurketaren emaitzak. | T.M.

jaitsi egin den kopuru hori pixka bat. Helduen eta adinekoen erabilera txikiagoa da", zehaztu du Belen Urangak.

Nerea Zubia Euskara zinegotziaren ustez ere oso datu onak dira, poztekoak: "Baina ezin gara erlaxatu, alerta mantendu egin behar da".

Plan estrategikoa martxan da

Kale neurketaren emaitzekin batera etorri da Udalak martxan jarri duen euskararen plan estrategikoa ere. "Plan horrek 2013-2017 laurtekorako erronkak definitu ditu arlo ezberdinetan, baina

horiek zehaztu behar ditugu aurretik. Horregatik, geldiune bat egingo dugu hemendik eta abendura bitartean, orain arteko hutsuneak eta hobekuntzak aztertzeko", azaldu du euskara zinegotziak.

Bilera irekiak

Plan estrategikoaren diseinua lantzeko, bilera irekiak egingo ditu Udalak abendura bitartean. Gaur da lehena, 18:30ean, euskaltegian, eta 22an hurrengoa. Herriko eragileak zein norbanakoak daude deituta. Abenduan Euskara Herrijorran egingo dute.



Batzokian egin zuen hitzaldia Joseba Egibarrek eguaztenean. | O.E.

Egibar: "Ekonomia eta gizartea dira zutabeak"

Oñatin izan zen eguaztenean, Gipuzkoatik Barrena ekitaldiaren barruan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatin izan zen eguaztenean Joseba Egibar jeltzalea, Gipuzkoatik Barrena ekitaldiaren barruan. Herria ikusi ostean, hitzaldia egin zuen batzokian. Lourdes Idoiaga Oñatiko EAJko zerrendaburua, Mikel Iturrospe Uri Buru Batzarreko presidentea, Ainhoa Galdos eta Aitor Urrutia Legebiltzarreko zerrendakideak Gipuzkoatik, Arrasateko EAJko zinegotzi Juan Carlos Garitano eta Ibon Arrupe, Bergarako zinegotzi Aintzane Oiarbide eta Antzuolako zinegotzi Maria Eugenia Arrizabalaga egon ziren, besteak beste, hitzaldian, Oñatiko EAJko alkate ohi, egungo eta lehengo zinegotzi eta hainbat herritarrekin batera.

Bi puntu nabarmendu gura izan zituen Egibarrek hitzaldiaren hasieran: "Bata, ETAririk gabeko lehen euskal hauteskundeak direla eta indar politiko guztiek tokia izango dutela, babesaren arabera. Bestea bizi dugun egoera ekonomikoa da. Larria da, baina ezin gara ibili besteen egoerekin konparatzen".

Ekonomia eta gizartea

Hain zuzen, datorren hauteskunde kanpainan ekonomiari buruz asko entzungo dugula adierazi zuen Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentea. "Politikoki, inguruko ekonomiak nola dauden ikusita, geure proiektu politikoari ekarpen ekonomikoa egiteko unea. Etor-kizuneko bide hori bi zutabetan eraiki behar da: bata, politikan, eta bestea, ekonomia eta gizartean", gaineratu zuen.

Oñati bisitatzen

Hitzaldiaren aurretik, Oñati bisitatu zuen Lourdes Idoiaga eta Mikel Iturrospe lagun zituela, besteak beste. Hasi kale zaharretik eta San Lorentzora joan ziren eta pintxo-poteoa egin zuten han. "Oñati aurretik ere ezagutzen nuen. Duela 15 bat egun ere pasa nintzen bizikletan lagunekin, Arantzazura bidean. Krisi ekonomikoari lotuta, ezin da Gipuzkoa osora zabaldu Oñatiren egoera. Nahiz eta langabeziak gora egin duen, probintzian badira zona ukituagoak", esan zuen Oñatirri buruz galdetuta.

Harrerak Oñatiko taldea aurkeztu du

Espetxetik irteten diren presoak gizarteratzeko helburuarekin sortu dute Oñatiko Harrera taldea; izan ere, kartzelan urteak pasatu ostean, zenbait presok egunerokotasunera bueltatzeko arazoak izaten dituzte. Taldeari buruzko informazioa banatuko dute bihar, Lizargarate Trikitizale Elkartearen egunaren barruan.



TXOMIN MADINA

Lizargarate Trikitizale Elkartearen eguna ospatuko dute bihar

Lizargarate Trikitizale Elkartearen eguna ospatuko dute bihar, zapatua. Arrano tabernatik irtenda triki-poteoa egingo dute eguerdian, eta horren ostean, bazkaria; umeendako tailerrak eta erromeria egingo dituzte afaldu aurretik. Ekitaldi guztiak Unibertsitate atzealdearen eta agustindarren etxearen artean dagoen adokinatuan egingo dituzte. 50 bat lagun elkartuko dira bazkaltzeko. Txosna ere jarriko dute eta han egingo dute ogitartekoak jango dituzte jai giroan jarraitu gura dutenek. Erromeriak afalostean jarraituko du, Izer eta Alabiarrekin.

Curtisko espexera egin beharreko martxa atzeratzea erabaki dute

Terrorismoaren Biktimen Elkarteak beste martxa bat egin behar zuen egun berean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Herrirak hilaren 15ean Curtisko espexera egin behar zuen martxa atzeratzea erabaki du. "Terrorismoaren Biktimen Elkarteak beste martxa bat egin behar zuen egun berean eta leku berera. Martxaren atzeratzea erabakirik arduratsu eta onena dela uste dugu", esan zuten Herrirako kideek.

"Inolako konfrontaziorik eta nahi ez genuen argazki bat ekiditeko eta gure integritatea babesteko hartutako neurria izan da", gaineratu zuten. Herrirak hau esan zuen: "Giza eskubideak era baketsuan aldarri-

katzea da gure asmoa eta ez dugu nahi bi pankartetako eszenatoki bat islatzea".

Bestalde, garbi utzi zuten Alberto Plazaolaren "eskubideak aldarrikatzeko lanean" jarraituko dutela. "Hori da gure konpromisoa, eta gaur berresten dugu", esan zuten.

Manifestazioa

Azkenik, bihar, zapatua, Euskal Herriko beste 60 herritan egingo den antzera, manifestazioa egingo dute, 19:30ean, herriko plazatik irtenda, *Bizi arteko zigorrik ez, minutu bat gehiago ez lelopean*.



Meabebasterretxea –Kultura teknikaria–, Biain alkatea, Soraluze –Kultura suspertzzailea– eta Egaña –Kultura zinegotzia–. | T.M.

Berriz dator sokamuturra Atzeko kalera eta Kale Barrira

Jaietako danborradan eta Herri Egunean ere berrikuntzak daude

TXOMIN MADINA | OÑATI

Egitarau ofizialak irailaren 22tik aurrerako ekintzak jasotzen ditu, eta aurreko urteekin alderatuta hainbat berrikuntza dakartzat. Hala, esaterako, Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketaren inguruan bada aldaketarik: prezioa jaitsi egingo dute, eta egun horretan, San Martinen gunere berezia ere jarriko dute. Pottokak eta txakurren erakustaldiak egongo dira. Astelehenean eman zuten aditzera jaien egitaraua udal ordezkariak, eta berau osatzeko jai batzordean eta herriko eragileekin egindako bileretan jasotako iritziak haintzat hartu zituztela adierazi zuen Mikel Biaian alkateak. Eskerrak eman zizkien horiei guztiei, Udaleko langileei eta herritarrei.

Lazarragan kontzertua

Beste berrikuntza nabarmenetako bat danborradan izango da: betiko konpainiei Txosna Batzordeak eratu duen konpainia berria batuko zaie: denera, 200 danbor-jotzaile berri inguru.

San Migel egunean berriz, bi ekintza azpimarragarri: 13:00etan, Lazarraga jauregiko lorategiaren ateak zabaldu egingo dira Udal Musika Bandaren kontzerturako eta 19:00etan, Oñatz dantza taldeak *Euskal Herria Dantzan* ikuskizuna eskainiko du. Irailaren 30ean izango da beste berrikuntza nagusietako bat: azken urtean jaiotako ume oñatiarrei ongiatorria egingo diete.

Egun berean, eta baita Erro-saixo Bixamonean ere, sokamuturra egingo dute. Baina aurten,

azken 14 urteetan galduta egon den ohitura berreskuratuz, arratsaldeetako saioetan sokamuturra Atzeko kalera eta Kale Barrira zabalduko dute. Udaletik gogoratu dute 16 urtetik beherakoek debekatuta dutela sokamuturrean parte hartzea.

Herri Egunari begira ere aurten bada aldaketarik: herriko sagardogileek euren txokoa izango dute Txaketua inguruan, eta herri bazkarian herriko produktak eskainiko dituzte.

Aurrekontua, oraindik guztiz zehazteke badago ere, 178.000 euroren bueltan egongo da, iazkoa baino apur bat txikiagoa.

Bestalde, Edurne Otxoa-Aizpuruarena da egitarauaren azaleko diseinua. Harena da jaietako kartela.



Oñatiko Herrirako kideak udaletxean. | GARAZI GOITIA

Natra-Oñatiko aparkalekuak, futbol zelaira doazen esku

M.B. | OÑATI

Natra-Oñati eta Aloña Mendiko futbol saila ahozko akordioa heldu dira. Hori horrela, txokolate enpresaren inguruan dauden aparkalekuak erabilgarri egongo dira Azkoagain futbol zelaira doazen jokalariei eta zaleendako. Aparkalekuak libre egongo dira astelehenean egubakoitzera 18:00etatik aurrera eta zapa-tuetan eta domeketan egun osoan.

Natra-Oñatik eta futbol sailak lortutako akordioa Udalak Azkoagain futbol zelaiaren

inguruan aparkatzeko ipinitako debekuaren ondotik dator.

Lezasarriko bizilagunen eskaera aintzat hartuta –aparkatutako autoek errepidea asko estutzen zuten–, marra horia margotu zuten futbol zelaiaren aurreko errepidearen alde bietan. Hala, Azkoagainera doazene beste leku batzuetan utzi beharko dute autoa: Urrintxo ondoko zelaiaren herri onurakoa da, eta erabil daiteke–edo Natra-Oñatiko aparkalekuan. Beste aukera bat, jakina, bizikletan joatea da.

San Migeletako eskubaloi txapelketa jokatu dute senior, kadete eta gazte mailako taldeek

Aloña Mendiko eskubaloi sailak San Migeletako eskubaloi txapelketa egingo du aste bukaeran. Kadete, senior eta gazte mailako taldeek Zarauzko eta Usurbilgo taldeen kontra jokatu dute: kadeteak, neskak, bihar, 15:45ean; gazteak, neskak, 17:00etan; seniorrak, neskak, 18:30ean; eta seniorrak, mutilak, domekan, 12:00etan. Txapelketa horrekin hasten dute eskubaloi taldeek denboraldia. Guztira, alebin mailakoak kenduta, 13 talde ditu eskubaloi sailak.

Dantzan egiteko 500 ume baino gehiago elkartuko dira domekan Oñatin, Haurren Egunean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

42. Haurren Eguna egingo dute domekan Oñatin eta 500 umetik gora elkartuko dira dantzan egiteko. 13 dantza talde etorriko dira aurten: Arrasate, Soraluze, Legazpi, Antzuola, Lizarra, Aretxabaleta, Gernika, Portugalete, Sestao, Zarautz eta Zumarraga-Urretxuko dantza taldeak. Azken herri horretakoa, gainera, Irrintzi, lehen aldiz etorriko da aurten Oñatiko Haurren Eguna. "Horiei guztiei, 320 ingururi, beste 200 baino gehiago batuko zaizkie Oñatin, Oñatzekoak", azaldu du Jesu Irizar *Txutxin*-ek.

Herriko elkarteetan banatuta

09:00etan elkartuko dira ume dantzariak Otadui zuhaitzian, eta taldeei ongiatorria egin eta pintxo bana jan ostean, alkate txikiaren agurra egingo dute plazan eguerdian. Intza Osa izango da aurtengo alkate txikia. Kaleetan zehar ibiliko dira dantzan gero eta arratsaldean alardea dantzatu dute plazan. "Alardea eta oholtza gaineko dantzak tarteatu egingo ditugu arratsaldean", zehaztu du *Txutxin*-ek.

Bazkalordurako banatu egingo dituzte umeak. %70k herriko etxeetan bazkalduko dute



Haurren Eguna Oñatin. | GOIENA

eta gainerakoek Oinarri, Batzokia eta Etxaluze elkarteetan. Nagusiendako bazkaria, berriz, Pago Uson, Nekazarien Elkarteetan eta Makalena Elkarteetan prestatuko dute.



Ibarra kiroldegiko Hiruatx rokodromoa, eskalatazailak lanean noiz hasiko zain. | M.A.

Kirol jarduera mordoa eskaini dituzte kiroldegian urrirako

Uretan egitekoak eta areto bizikleta gaineoak dira asko; Debagoieneko eskalatazaila taldearekin batera eskalada eskola abian jartzeko asmoa dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ibarra kiroldegiak dagoeneko zehaztu du kirol jardueren eskaintza; eskaintza zabala egin ere. Horren guztiaren berri webgunean dakar *www.ibarrakiroldegia.com* eta astelehenean etxe guztietara banatuko dute argibideen liburuxka. Izena emateko epea ere astelehenean zabalduko dute. Jardueren prezioa 10 euro gehi BEZ izango da hileko -abonatu- ta egonez gero-, eta, taldeak osatzeko, gutxienez hamar lagun beharko dira lehorreko jardueretan eta zortzi uretakoetan.

Sei hilabetetik uretan

Umeak, helduak eta nagusiak kontuan hartuta 25 bat jarduera eskaini dituzte. Horietako asko uretan egitekoak dira. Hala, umeendako hiru ikastaro daude: sei hilabete eta bi urte artekoendakoa; bi eta lau urte artekoendakoa; eta bost eta bederatzi urte artekoendakoa. Helduendako bi: hastapena eta hobekuntza; eta nagusiendakoa, hastapeneko. Horiez gain, Urgim -egoera fisiko mantentzeko uretan burututako jarduera gidatuak- eta

Aquaerobik -musikari jarraituz koreografia eta dantzaren bitartez gaitasun aerobikoa lantzea- ere badaude helduendako.

Bestalde, areto bizikletari etekina zelan atera irakatsiko dute hainbat jardueraren bitartez: areto bizikleta arrunta; arina -intentsitate txikiagoarekin, egokia pertsona nagusiendako-; eta gazteendakoa -14 eta 20 urte bitartekoendako.

Gimnasiari dagokionez ere hainbat eskaintza daude: multi- fitnessa; sasoiaren egoteko gimnasia; nagusiendakoa; ur-lehor gimnasia; giharren tonifikazioa; GAP -glu-

teoak, abdominalak eta hankak lantzen dituen jarduera-; eta Atzegiko gimnasia. Horiez gain, hipopresibo abdominalak lantzen dituen jarduera ere badago; baita aerodancea ere. Eta jarduera lasaiagoak gura dituztenek pilatesa eta yoga dauzkate. Gainera, salsa ikastaroa ere eskaini dute; bakarka edo bikoteka egiteko, eta egubakoitzetan izango dira saioak ikasteko zein hobetzeko.

Eskalada eskola

Bestalde, Debagoieneko eskalatazaila taldearekin batera ume eta gazteei zuzendutako eskalada eskola abian jartzeko asmoa dute kiroldegiko Hiruatx rokodromoan. 10 eta 16 urte arteko gaztetxoek osatuko dute eskola hori, eta oraindik ez dituzte zehaztu ordu-egia eta prezioa.

Eta helduek ere izango dute aukera eskalatzen ikasteko: oinarriko segurtasun eta progresio teknikak irakatsiko dituzte, bategi; eta materialaren eta beharrezko ekipamenduaren ezagutzak eta teknikak, bestetik. Martitzen eta eguenetan elkartuko dira (19:00-20:00) rokodromoan.

'Maitasunaz eta mugez' hitzaldia eguaztenean

Haurraren Arimaren Zaintza proiektuko kide Cristobal Gutierrez adituak emango du

M.A. | ARETXABALETA

Maitasunaren eta mugen gainean jardutera etorriko da eguaztenean, hilak 19, Cristobal Gutierrez aditu katalana Arku- pera (18:00). 31 urte daramatza helduen formazioan eta 18 haur- tzeroaren eta familiaren zaintza kontuetan. Kataluniako lehen bi eskola libreen sortzaileetako bat da, gainera. Haurraren Ari- maren Zaintza -CAI Cuidado del Alma Infantil- proiektuko arduraduna ere bada.

Hala, Gutierrezek uste du gurasoak beldur eta egonezin askorekin bizi direla seme-ala- bei dagokienez: ikasten duten edo ez, metodo hau edo hori hobe ote den... "Tentsioz bete- ta daude guraso horiek eta benetan zer den garrantzitsua antzematen ez diete uzten tentsio horiek", dio. Hortik abiatu maitasunaren eta umei ezartzen zaien mugen gainean jardungo du eguaztenean.

Erditze naturala berbetagai

Bestalde, astelehenean, hilak 17, erditze naturalaren gaineko berbaldea eskainiko du Debagoieneko ospitaleko emagin David Monterok. Arkupen da hori ere (19:00).

2007a ezkerro egiten du lan Monterok ospitaleko Erditze Zerbitzuan, eta etxeko erditze- tan laguntzen jarduten du erki- dego osoan. Azalduko dituen artean daude: erditze naturala eta ohikoa zer diren; abantailak eta desabantailak; erditze natu- ralen ezaugarriak ospitalean (bitartekoak, interbentzioak, mina zelan landu...), eta beste hainbat kontu.

Kinesiologia zer den azalduko dute gaur Aredhana Yoga taldeko kideek Santa Kurtz kaleko lokalean

Kinesiologiak sentitzen dugunaren eta gorputzeko organo garrantzitsuen artean dagoen harremana azaltzen duela jakinaraziko dute Aredhanako kideek gaur, egubakoitza, egingo duten hitzaldian (19:30), Santa Kurtz kaleko 24. zenbakiko lokalean. Gure energia mailan pentsamenduek duten eragina kinesiologiari esker uler dezakegula azalduko diete hurreratzen direnei. Gainera, jakinarazi dute interesa agertzen dutenekin ikastaroa antolatuko dutela urri inguruan.

Zirku tailerra egingo dute Arkupen irailaren 22an, zapatua, 7 urtetik gorako neska-mutikoendako

Zirkuko teknikak irakatsiko dizkie Bizkaiko Biribil taldeko Xabier Larrea adituak 7 urtetik gorako neska-mutikoei: esku- jokoak, oreka jolasak, akrobaziak... Arkupen elkartuko dira irailaren 22an, eta ordu eta erdiko saioa egin (11:00-12:30). Horretarako, aurrez eman behar da izena Arkupen bertan. Dagoeneko antolatzen duten laugarren saioa da, eta orain arte- koek oso erantzun ona izan dute.

DATUA

25

JARDUERA

Umeak, helduak eta nagusiak kontuan hartuta 25 kirol jarduera inguru jarriko dituzte abian kiroldegian, urritik aurrera.

PI-ENSOS

SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Haurren hezkuntzan laguntzeko taldeak jarriko ditu abian Kuku Miku elkarteak

Hitzaldia iragarri dute irailaren 24rako Ana Bacigalupe adituaren eskutik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kuku Miku haurren garapenerako elkarteak hazkuntzarako laguntza taldeak sortu gura ditu. 0-3 eta 3-6 urte bitarteko umeak dituzten gurasoendako izango dira talde horiek, eta zer diren ezagutzera emateko berbaldia antolatu dute hilaren 24rako, astelehena. Ana Bacigalupe aditua, Amalur elkarteak kidea, etorriko da, eta Arkupeko bigarren solairuan elkartu (11:00etan eta 18:00etan).

Kuku Miku ekain inguruan sortu zen eta kideek asmoen berri eman zuten orduan: "Gurasoon

arteko elkarrekintza, gogoeta eta laguntza bultzatu gura ditugu; eta haurren hazkuntza eta hezkuntzari zein guraso izateari lotutako zalantzak eta gogoetak trukatzeko eta laguntzeko erreferentziatzeko bilgune izan".

Udalarekin hitzarmena sinatu zuten eta Durana kaleko 30. zenbakian dagoen lokala utzi. Egunotan jaso dituzte bertako giltzak eta txukuntze lanetan dabilta orain. Gertatu ondoren ate irekiak egingo dituzte herriko guraso guztiek ezagutu dezaten, eta hazkuntza taldeak osatu ostean lanean hasiko dira.



Hitzarmena sinatzen. | M.A.

OHARRAK

IXADEBALDE AZOKAKO ZENBAKI SARITUAK

Ixadebalde azokan zozketatutako zenbaki sarituak hauek dira: lehenengoa: 149.479 (hotelean egonaldia eta afaria); eta bigarrena: 148.883 (hotelean egonaldia eta gosaria). Ageritzeko azken eguna: irailak 15. Hirugarren saria (UDaren bazkide txartela) Silvia Gomezek jaso zuen (149.670).

KARATE ESKOLAK ABIAN

UDako karate sailak hasi du denboraldia. Entrenamenduak Kurtzebarri eskolako gimnasioan dira martitzen eta egubakoitzetan. Orduetia: txikiak, 18:00-19:00; eta helduak, 19:00-20:00. Argibide gehiagorako: 656 71 17 37.

Urbaltz eguna ospatuko dute bihar, zapatua, elkartekoek

M.A. | ARETXABALETA

Azken urteotan egin ohi duten legez, Urbaltz eguna antolatu dute bertako bazkideek. Bihar, zapatua, izango da, eta hainbat ekitaldi iragarri dituzte, tartean herri bazkaria (herri-tar guztiei zabalik). Txartelak gaur arte izango dituzte salgai Urbaltz tabernan, 20 euroren truke.

Herriko taldeen kontzertuak

Eguerdi partean hasiko dute jai giroa Lapurditik etorritako Kuxkuxtu txarangako kideekin (12:00). Gero, bazkaltzeko elkartuko dira bazkideak eta herri-tarrak Mitarte plazan (14:30). Hona menua: txanpiñoiak; entsalada epela gulekin; okela gisatua saltsan; goxua; eta kafea eta pattarra.

Txaranga doinuek jarraipena izango dute arratsaldean (17:00), eta ondoren kontzertuak izango dira herriko taldeen eskutik: Gazte Iraultza; Neallta Fola; No Hope; eta Degenerados.

Jaieguna Elviscaino DJaren saioak agurtuko du (23:00), eta, iaz legez, mojitoa eskainiko dute.

Joseba Egibar EAJko legebiltzarkideak hitzaldia eskainiko du astelehenean

M.A. | ARETXABALETA

EAJko legebiltzarkide eta Gipuzko Buru Batzarreko presidenten Joseba Egibar izango da astelehenean, hilak 17, batzokian (19:30). Ekonomiaren eta gizar-tearen egoeraren gainean jardungo du. EAJko kideek jakinarazi dute interesa duen guztiarendako izango dituztela atek zabalik.

Posta bidez bozkatzeko

Bestalde, gogorazi dute postaz bozkatzeko eskaera epea zabalik dagoela urriaren 11 arte. Horretarako Korreosen edozein bulegotara joan behar da eskaera egitera. EAJko kideak gertu daude eskaera egin gura dutenei edozertan laguntzeko: 943 79 57 43; 616 75 85 99 eta 656 75 03 61.

'Dantza gogoz' ikastaroa aurkezteko dantza saioa eskainiko du Jaikik

M.A. | ARETXABALETA

Jaiki elkarteak *Dantza gogoz* ikastaroa antolatu du ikasturterako. Carla Fernandez irakaslea gidari hartuta, dantza sortzailea, kontakt-inprobisazioa eta beste hainbat landuko dituzte urriaren 10ean hasi eta Gabonak bitartean, kuartel zaharrean (eguztinetan, 18:00-19:30). Argi-

bide gehiagorako: jaikielkartea@yahoo.es edo 943 53 43 96. Prezioa: langileek 40 euro eta gainar-koek, 35 euro.

Dantza gogoz ikastaroa aurkeztu eta ezagutzera emateko dantza saio irekia egingo dute herritarrendako Jaikiko kideek hilaren 21ean, egubakoitza, Arkupen (19:00).

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Gurea
TABERNA
Lotoak eta
kinielak

Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



hemen bada
giro!

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



Etorri eta dastatu gure pinxto goxo-goxuak astebukaeretan

URBALTZ
taberna

Mitarte 19 - 20550
ARETXABALETA





Garai batean abade etxea izandako eraikineko beheko solairuan dago. | A.T.



Barrutik itxura hori dauka orain txokoak; irudian Juan Karlos Beloki –Basauria elkarteko lehendakaria– agertzen da. | A.T.

Mazmela laster irekiko dute auzotarrendako elkarte berritua

Elkarte gastronomikoaz gain, bestelako ekintzetarako ere izango da

AMAIA TXINTXURRETA | **ESKORIATZA**
Eskoriatzako Mazmela elizatean elkartearendako txoko bat egokitu dute.

Mazmelako elkartearen izen honekin ezagutzen da: Basauria, Mazmela Elizateko Bizilagunen Elkarte. 2002an eratu zuten auzotarrek, Eskoriatzako gainerako elizateek egin zuten moduan.

Lokala

Orain arte ere izan dute lokala mazmelatarrek euren ekintza eta bilerak aurrera eraman ahal izateko. Garai batean eskola izandako areto txiki bat erabiltzen zuten, abade etxeko beheko solai-

rua, hain zuzen. Baina beharrezkoa ikusten zuten auzoko bizilagun eta adiskideak biltzeko toki egokiagoa. Hauze esan digu Basauria elkarteko lehendakari Juan Karlos Belokik: "Lehen erabiltzen genuen aretoa ez zen txukuna, txikia zen eta ez geneukan ez komunik ezta urik ere".

Urte askoan ibili dira areto egokia egiteko asmotan; orain, elizarekin eta Gotzaitegiarekin egon direla aprobetxatuta, konponbidera iritsi ziren auzotarrak: beheko solairua eurek erabiliko dute eta lehenengo solairuan etxe bat egin dute alokatzen jartzeko. "Azkenean, egin genuena izan

zen lau paretak utzi eta gainerako guztia berritu. Gainera, lehenengo solairuaren eta behekoaren artean dagoen zolarria zaratarrendako ondo begiratuta egin dugu. Obra oso azkar joan da, baina urteetan ibili gara hori planifikatzen".

Erabilera

Mazmela elizateko familia guztiak izango dira bazkide, guztira 34 familia: "Elkarte gastronomiko erabilera ere emango diogu. Orain-txe ari gara araudia bezalako kontuak antolatzen, baina nahi genukeena da bazkide diren etxe bakoitzetik erabiltzaile bat baino

gehiago egotea. Erabiltzaile bakoitzak orduan kuota txiki bat ordaindu beharko du argia, berogailua, garbitasuna eta horrelako gastuak ordaintzeko".

Abuztuan bukatu zuten obra, eta, garbiketa orokorra egin duten arren, zapatu honetan berriro ere elkartuko dira lokala hobeto garbitzeko.

Gero, guztia txukuntzen joango dira, eta nahi dutena da urrian elkarteko txokoa martxan jartzea.

Helburuak

Lokal berrituarekin, helburu hauexek dituzte auzotarrek: Maz-

mela elizatearen hobekuntza eta mantenua bultzatzea, elizateko bizilagunen arteko elkar laguntza eta garapen soziokulturala sustatzea, eta auzoaren aldeko hainbat ekintza aurrera eramatea; besteak beste, kirol, kultura eta aisialdirako jarduerak eta bazkari eta afariak. Hauze esan digu Belokik: "Guk ikusten dugu guk ez baditugu mugitzen auzoko gauzak, inor ez dela etorriko guri ezer ekartzera, orduan geure artean eraman behar ditugu kontuak aurrera. Elkarte honek azken urteetan gauza positibo ugari ekarri dizkigu".

Etxebizitza alokagai

Abade etxean dagoen lehenengo solairuan, bestalde, hau da, elkarteko txokoaren goiko solairuan, etxebizitza bat egin dute. Etxebizitza hori 165 m²-koa da eta auzotarrek alokatzeko moduan jarri dute. Etxebizitzak 10 m²-ko biltegia, garajea eta ortua ere baditu. Beraz, alokatu nahi duen edozein Mazmelara joan daiteke eta bertakoek emango diote xehe-tasun gehiago.

Aisialdi ekintzen erakustaldia

Eguazten eta eguen arratsaldean 2012-2013 ikasturtean herrian aisialdiak gozatzeko aukeren berri eman zuen Eskoriatzako Udalak. Herritar ugari gerturatu ziren lehenengoz egin den topaketara.



AMAIA TXINTXURRETA

Hilaren 24a baino lehen eman behar da izena Amuskaren ikastaroetarako

A.T. | **ESKORIATZA**

Amuska emakume taldeak urrian hasiko ditu otsailera bitarteko ikastaroak. Izena hilaren 24a baino lehen eman beharko da, eta horretarako, bazkideek 35 euro eta gainontzekoek 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzaren kontu honetan: 3035 0044 85 0441021091.

Ikastaroak

Hauke dira eskainiko dituzten ikastaroak: joskintza, ehoziri lanak eta bainika, olio-pintura, patchwork, eskulanak eta antzerki tailerra.

Informazio gehiagorako idatzi amuska-esko@hotmail.com helbidera edo deitu 699 78 66 84 telefonora.



ZUZENKETA

Joan den astean, Eskoriatzako orrialde honetan bertan, Igor Ezpeletak zinegotzi kargua abuztuaren 1ean hartu zuela esaten zuen albistean, Ezker Anitza jarri beharrean Ezker Batua ipini genuen.

Akats horregatik barkamena eskatu nahi diegu guztiei.

San Juan kaleko jaiak ospatuko dituzte zapatuan

11:00ean emango diete San Juan kaleko jaiak hasiera, etxafuegoekin, eta ondoren kalejira egingo dute. 12:30ean Egokiena elkarteko plazan elkartuko dira eta 13:00etako mezara joango dira. Meza ostean txikiteoa egin eta 14:30ean bazkaldu egingo dute Egokienan. Bukatzeko, dantzaldia izango dute.

Karlos Ormazabalaren hitzaldia eguaztenean kultura etxean

Atez atekoa zergatik ez, bosgarren edukiontzia zergatik bai izenburupean, eguaztenean, hilak 19, hitzaldia emango du Karlos Ormazabalek. Bosgarren edukiontzia alde positiboak azalduko ditu. Hitzaldi horretara eskoriatzar guztiak daude gonbidatuta, eta kultura etxean izango da, arratsaldeko zazpietan.

NIRE USTEZ

KONTXI
LASKURAINUzarragari
bertsoa

Juan Jose Aranburuk, *Pollero*-k, egindako bertsoak; ez daukat ezer gehitu beharrik.

Uzarra zahar maitea mendi magalean mendi magalean da baserri artean hor zaude egoera zeharo tristean zu inork zaindu gabe ta bakardadean.

Autobia ta trenan danak abixadan horrelakoak hemen jarri dira modan sustraia jatorria ahazturik nun dan zuzen ote gabiltzan jarria naiz dudana.

Kontatu nahi ditugu guk hemen egiak penaturikan gaude bustirik begiak nora begira daude herriko semiak san juan uzarragako seme txit argiak.

Euriarekin beti isuriz malkuak zauri eta zimurrak pareta zuluak merezita dituzu gu danon mimuak ezingo gara izan bihotz gabekuak.

Biluzik hor zaude zu baita ere mutu nork egin zaitu nork hola kondenatu zure harriak dira garrasi bihurtu oihartzunen mailuak gaitzala kolpatu.

Ezinba zu ikusi horrela erortzen azken alegintxoak gu gatoz eskatzen hasi gaittezen azkar herritarrok batzen hasi gaittezen gure uzarra konpontzen.

Gai libreko argazki lehiaketan parte hartzeko epea zabalik

Lanak azaroaren 9ra arte entrega daitezke udaletxeko bulegoan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Argazki lehiaketan Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake. Hiru mailatan dago lehiaketa banatuta: lehen maila, 6-12 urte; bigarren maila, 13-18 urte; eta hirugarren maila, 19 urtetik gora. Argazkiak aurkezteko epea azaroaren 9an bukatuko da eta udaletxean entregatu beharko dira, hain zuzen ere.

Oinarriak

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkez ditzake lehiaketa horretara. Lanak koloretan edo zuri-beltzean egin daitezke, eta euskarriaren barruko argazkiaren neurriak, gehienez, 25x35 zentimetrokoa izan beharko du.

Argazkiak egileari buruzko datu barik entregatu beharko dira, baina argazki bakoitzari atzealdean izenburua ipini behar zaio. Argazkiarekin batera kar-



Bitsezko marrazkiak argazkiak irabazi zuen iaz. | IKER AIZKORBE

tazal itxi bat aurkeztuko da: kartazalaren gainean lanaren izenburua eta zein kategoriatan parte hartzen duen jarriko da; kartazal barruan, berriz, parte-hartzailearen datuak eta argazkiaren izenburua sartu beharko

dira. Argazki lehiaketan aurkeztu diren argazki guztiekin erakusketa egingo da azaroa bukatu, Orlanen.

Lehiaketan parte hartzeko oinarriak www.antzuela.com udal webgunean dituzue irakurgai.

Finalista egun borobila

43 lagunek parte hartu dute aurtengo Arrolako Finalista Egunean. Karakatetik Irukurutzetara eta handik Trekutzera egin zuten ibilbidea. Ondoren, bazkaria eginda borobildu zuten eguna. Urriaren 12an egingo dute hurrengo irteera: egun osokoa izango da, Iparraldera.



JABI ETXANIZ

Argi mozketen gaineko irtenbidea adostu du Udalak

M.A. | ANTZUOLA

Antzuolako herrian azken urtean argi mozketak ugaritu egin direla-eta, Udaleko ordezkariak Iberdrolari herritarren hainbat kexa helarazi dizkiote.

Izan ere, Antzuolan, 2012ko lehenengo seihilekoan 2011ko lehenengo seihilekoan baino lau aldiz gehiagotan gertatu dira argi mozketak. Hala, Iberdrolako ardu-

radunek arazoa bideratzeko jarduera plana azaldu berri diote Udaleko Hirigintza zinegotziari eta teknikariari; baita Ima Beristain alkateari ere.

Batetik, San Antonio-Antzuola kable sareko korridoreak garbitu eta zabaltze lanak aurreratu dituzte, eta legearen arabera utzi egindakoa. Lehenbailehen exekutatzeko da enpresaren asmoa

eta sei-zortzi hilabeteko epean egin, mozketak gutxituta.

Bestetik, Gorkako alternatiba automatizatu nahi du Iberdrolak. Hau da, Antzuolak argindarra Bergarako San Antoniotik jasotzen du, eta sare hori erortzean, Gorkatik beste sare bat ipini zen. Hala, argindarra ez datorrenean San Antoniotik, Gorkakoa konektatzea bi edo hiru ordu kostatzen

da, eskuz egiten delako. Iberdrolak planteatzen duena da sare konexio aldaketa automatizatzea telemando bidez. Asmoa da 10-15 minutuan argindarra berreskuratzea, batetik edo bestetik. Horren aurreikuspena hurrengo negua da.

Udalak kaleratutako oharrean azaldu du ontzat hartzen duela Iberdrolaren erantzuna, eta zain geratzen dela inbertsio horren emaitza positiboak lehenbailehen ikusteko.



Iturgintza - Berogintza

Laskurain

Energia berriztagarriak - Klimatizazioa - Iturgintza orokorra

Ondo ibili San Martín jaietan!



Jesus Garitaonandia | Alaiak erretiratu elkarteko presidentea

"Zaharren egoitza izatea da gure premia nagusia"

- ▶ Eguneko Zentroa "ondo" dagoela dio, baina uste du ez dela nahikoa
- ▶ Hilaren 23an, Txirritola egunean, bazkaria egingo dute kiroldegiko kantxan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

2011ko urrian hasi zen Alaiak erretiratu elkarteko presidente lanetan Jesus Garitaonandia (Ermua, 1943). Ermuan jaio zen; haurra zela Sorluzera joan zen bizi izatera, 38 urte bete arte. Ordutik hona, Aramaion bizi da. "Hiru lurraldeetan bizi izandakoa naiz", dio irribarretsu.

Nola izendatu zintuzten Alaiak erretiratu elkarteko presidentea?

Presidente berria aukeratzeko batzarra egin baino bi egun lehenago enteratu nintzen. Sorpresa eraman nuen proposamena egin zidatenean, baina ondo pentsatu eta onartzea erabaki nuen.

Zeintzuk dira zure betebeharrak? Hilean behin batzar bat egiten dugu elkartearen jardunari eta kontuei jarraipena egiteko. Gainera, ekitaldi bereziren bat egiten bada, bileraren bat edo beste ere tokatzen da. Eta noski, ia egunero egiten dut bueltatxo egoitza zerbait behar den-edo begiratzeko. Bestalde, Gasteizko Las Cuatro Torres elkartearekin ere harreman estua dugu. Arabako erretiratu elkarte guztiak batzen dituen elkarte da eta urtean zehar zenbait ekintza antolatzen ditugu elkarlanean.

Hilaren 23an Aramaioko erretiratu guztiendako bazkaria egingo duzue. Zer dela eta?

Bazkaria urtero egiten dugu. Txirritola egunarekin batera antolatzen dugu; izan ere, giro polita egoten da egun osoan eta gu ere jaiaren parte izaten gara. Bazkarian izena emateko Caja Laboral edo Vital Kutxako konuetan hamar euro sartu behar dira, besterik ez. Izena eman



Jesus Garitaonandia, erretiratu elkartearen egoitza atarian. | JOKIN BEREZIARTUA

"Harreman estua dugu Udalarekin, elkarlanean egiten dugu lan askotan"

behar da irailaren 17a baino lehen.

Non izango da bazkaria?

Urtero moduan, kiroldegiko kantxan egingo dugu bazkaria. 100 bat lagun elkartzen gara eta espero dugu aurten ere antzeko kopurura heltzea. Lau zaharrenei oparia egingo diegu, noski. *Catering* enpresa bat arduratuko da janariari.

Bazkariak gain, zein beste ekintza antolatzen ditu elkarteak urtean zehar?

Urtero astebeteko irteera egiten dugu. Iaz Cadizera joan ginen. Aurten ez dugu erabaki nora joan, oraindik bidaia agentziarekin adostu behar dugu-eta. Aste Santua pasa ostean egin ohi dugu.

Zein da zuen behar nagusia gaur egun?

Zaharren egoitza da gure premia nagusia. Egunko Zentroa ondo dago, baina menpekotasuna dutenak ezin dira joan. Gure ustez, ez da nahikoa. Aurreko legealdian, Diputazioan zuzenean egin genuen eskaera. Badakigu Covadonga Solaguren diputatuak idatziz utzi zuela eskaera, baina, dirudienez, hor geratu da. Ordutik ez dugu nobedaderik jaso. Horrez gain, podologo zerbitzua ere eskatzen aritu gara. Leku egoki bat behar genuke, besterik ez. Izan ere, gu prest gaude zerbitzu hori kudeatzeko.

Nolakoa da Udalarekin duzun harremana?

Harremana estua da. Hainbat alditan biltzen gara eta askotan elkarlanean egiten dugu lan. Datorren domekan, esaterako, luntxa Udalak jarriko du eta gu konprometitu gara elkarteko ateak ireki eta bertan egiteko. Leku egokia dela uste dugu eta prest gaude laguntzeko.



Abesbatzako haurren taldea kultur etxean, artxiboko irudi baten. | PAPARGORRI

Papargorri abesbatzaren kontzertua gaur Sastiñan

Haur, gazte zein helduek abestuko dute eta kantu herrikoiak izango dira nagusi, 19:30ean

J.B. | ARAMAIO

Udaleko Kultura Sailaren eskutik, Aramaioko Papargorri abesbatzak kontzertua emango du gaur Sastiñan (19:30). Blanca Mendialdua arduradunak adierazi duenez, kantu herrikoiak abestuko dituzte, batez ere. Era berean, gustura daude kontzertuagatik, nahiz eta Sastiña ez izan "abesbatza batendako lekuerik aproposena". Haur, gazte zein helduen taldeek abestuko dute; kantu batzuk denok batera eta beste batzuk taldeka. 20 bat kantu izango dira.

Ikasturtea lehenago hasi

Aurten ohi baino lehenago hasi dute ikasturtea Papargorri abesbatzakoek. Joan den egubakoitzean, irailak 7, egin zuten lehen entsegua eta asteon beste hainbat prestaketa saio egin dituzte, gaur herri osoaren aurrean emango duten kontzertuan dena ondo irten dadin.

Bestalde, bihar Txalamako taldeak joko du Iturrieta sagardotegian (19:30). Gasteizko taldea da, 1998an sortua, eta txalaparta doinuak izango dira emanaldiaren oinarria.

Haur eta gaztetxoendako eskalada ikastaroaren azken saioa bihar

J.B. | ARAMAIO

Orixol mendizale elkarteak eta San Martin eskolako guraso elkarteak gaztetxoendako eskalada ikastaroa antolatu zuen uztailan. Abuztuko oporren aurretik bi saio egin zituzten eta joan den zapatuan berriro ere elkartu ziren. Laugarren eta azken saioa, berriro, bihar egingo dute.

Ekimenaren helburua izan da eskalada materiala ezagutu eta eskaladaren oinarriko teknika batzuk ikastea. Eta noski, baita gaztetxoek ondo pasatzea ere; azken helburu hori lortu dute, Orixol elkarteko arbera: "Saioak primeran joan dira, eguraldia lagun izan dugu

eta haur zein gaztetxoak gustura aritu dira. Gainera, guraso batzuk ere animatu dira probatzera eta hori oso positiboa da guretzako. Gu ere oso gustura ibili gara". 12 haur eta gaztetxo aritu dira.

Aranaren omenezko martxa

Bestalde, Aitor Aranaren omenezko mendi martxa hilaren 29an egingo da. Ibarrik abiatuta, Tellamendi, Kasatxo, Orixol, Mirugain, Marixeka, Durakogain eta Asensio zeharkatuko dituzte, berriz ere Ibarra heltzeko. Sei-zortzi ordu arteko ibilbidea izango da eta egunean bertan eman ahal izango da ize-na, hamar euro ordainduta.

**2012-2013
ikasturtea:
140 ikasle eta
18 irakasle**

Irailaren 7an ekin zioten ikasturte berriari San Martin eskolan. 140 ikasle eta 18 irakasle izango dira aurten, hamar gelatan banatuta; pozik dago Nekane Arrondo zuzendaria: "Taldea osatu dugu hasieratik eta igogailuaren obrek espero baino eragozpen gutxiago sortu dizkigute". Igogailua gertu egingo da Gabonetarako.



TXOMIN MADINA

Kontzentrazioa antolatu du Herrirak biharko, 'Kanto'-ren askatasuna eskatzeko: plazan, 13:00etan

Luis Mari Azkargorta *Kanto* euskal preso aramaioarra eskatzeko kontzentrazioa antolatu du Herrirak. Agerraldia bihar izango da, hilak 15, Bizente Goikoetxea plazan (13:00). *Minutu bat gehiago ere ez, Kanto etxera* lelopean, herrikide aramaioarri *Parot doktrina* aplikatu eta 2018ra arte kondena luzatu diotela salatuko dute. Horren aurrean, honakoa eskatuko dute, besteak beste: "Kartzela politika, eskubideen errespetura eta konponbidea sustatzeko gakoetara aldatzea".

ELGETA

Vespa eta Lambretta barietate polita iragarri dute domekarako

Bazkarirako izena eman gura dutenek gaur, barikua, dute azken aukera


LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Gutxitan ikusten ditugu gure errepide eta kaleetan, baina bada jendea harri bitxiak bailira zaintzen dituen, eta domekan Vespa eta Lambretta motor zaleek Elgetan dute hitzordua. Fermin Iribarrek dihardu, besteak beste, antolatzaile lanetan. Topaketak zazpigarren edizioa izango du aurten. Iribarrek garai eta modelo ezberdinetako Vespa eta Lambretta motorrak espero ditu honakoan ere, eta goizean Herriko plazan egingo den elkarretaratzean barietate polita ikusteko aukera egongo dela adierazi du.

Krisi ekonomikoak eragina izan du sektore honetan ere: "Motor eta pieza salmenta nabarmen jaitsi da", adierazi du Iribarrek. Dena den, itxaropentsu dago, eta, aurreikuspenak betetzen badira, 80 bat motor espero ditu domekarako.

Motorrak txukuntzen

Zaletasunak asko daude, baina motor zale horiena berezia da oso. Iribarrek, aurten, elurretan ibiltzeko katea egin dio bere Lambretta motorretako bati. Domekan ikusgai izango du, nahiz eta ez



Fermin Iribarrek elurretarako katea egin dio Lambretta motorretako bati. | L.Z.

DATUA
80
MOTOR
Antolatzaileek 80 bat motor espero dituzte domeka eguerdiko topaketan, guztiak Vespak eta Lambrettak.

duen negura arte probatzeko aukerarik izango. Lambretta motorrak ditu Iribarrek, eta plazara aterako ditu domekan.

10:00 aldera hasiko dute izen-ematea, eta etorritako motorrak plazan egongo dira ikusgai eguerdira arte. 12:15ean 50 kilometroko ibilbidea egingo dute Bizkai aldean. Intxorta elkartearen egingo den bazkarian izena emateko interesa dutenek, berriz, gaur dute azken eguna.

Indartuta dator hilaren 22ko Sagardo Eguna

Bazkaria eta afaria antolatu ditu gaztetxeak; Udalak, berriz, Intxortako igoera deitu du

L.Z. | ELGETA

Nobedadeak izango ditugu aurten Sagardo Egunarekin batera. Badira urte batzuk herriko baserriarrek egun horretan egiten dutela urteroko azoka. Bada, aurten herriko baserrien argazki erakusketa, txorimalo lehiaketa eta Intxortako igoera gehitu ditu Udalak. Txorimalo bat egiten dutenek 10:30erako aurkeztu beharko dute plazan, eta Udalak hiru onenak sarituko ditu 50, 30 eta 15 euroekin.

Korrikalariendako erronka, berriz, XVI. Intxortako igoera izango da. Parte hartzera animatzen diren lasterkariek Herriko Plazatik abiatuta igo eta jaitsi beharko dute Intxorta. Hemen ere hiru onenak sarituko ditu Udalak, 60, 30 eta 20 euroekin. Sari berezia ere iragarri du orain arteko marka onena gainditzen duenarendako. Marka hori Jose Mari Arozenak dauka: 17 minutu eta 39 segundo. Lasterketa 12:00etan jokatuko da.

Bazkaria eta bertso afaria

Gaztetxeak antolatutako Sagardo Egunaren barruan, berriz, 17:00etan hasiko da urteroko tortilla lehiaketa. Interesatuak Udal Liburutegian eman behar dute izena hilaren 20a, eguna, baino lehen.

Gaztetxeak sagardo upelak ipiniko ditu herriko gune ezberdinetan. Ez hori bakarrik. Aurten, bazkaria eta bertso afaria antolatu dituzte, eta biak egingo dira gaztetxean. Bazkariaren prezioa zortzi euro da, eta bertso afariarena 15 euro. Kasu bietan interesatuak hilaren 20a baino lehen eman behar dute izena Haizea tabernan.

Eta baserriarrendako da azken oharra: gaur, hilak 14, amaitzen da azokan postua ipintzeko izen-emate epea.

LEINTZ GATZAGA

Erretiratuen Eguna ospatuko dute bihar, Udalaren eskutik

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Andramaixa jaiak pasatu ostean, bihar Erretiratuen Eguna ospatuko dute. Udalak herriko nagusiei eskainitako egun berezia da, eta, urtero legez, Garro jauregian izango dute bazkaria. Oparitxoak ere jasoko dituzte bertaratzen direnek, eta jokoan eginda bukatuko dute ospakizuna.

Eguerdi partean elkartu eta herrian ibilalditxo egin ondoren, bazkaltzera joango dira erretiratuak, 25 bat lagun. Eusebio Villarrek gertatutako bazkari goxoa izango dute zain Garro jauregian. Bazkalostean kontukontari jardun eta karta jokoan egingo dute, arratsaldea bukatu artean.

Nagusienei omenalditxo

Bazkaltzen elkartutakoan artean nagusienak direnei aipamen berezia egingo diete, eta oparia jasoko dute Udalaren partetik. Gainerakoek ere izango dute oparitxo, Kutzak emanda.

Herriko nagusia urrian 102 urte egingo dituen Astaisolo baserriko Narciso Beitia da; eta emakumeen artean Matilde Arrese, 94 urte martxoan eginda. Bihar bazkaltzera joaterik baldin badute oparia jasoko dute biek, azken urteotan legez.

Erretiratuendako hitzaldia, irteera eta podologia zerbitzua

L.Z. | ELGETA

Xalbadorpe erretiratuen elkarreko udazkeneko agendaren barruan hiru hitzordu izango ditugu datorren astean.

Martitzenean, hilak 18, hitzaldia egingo du Izarne Lizaso udaltxeko osoko bilkuren aretoan. *Belaunaldien arteko elkartasuna* izenburupean gizar-te kohesioaz, pertsona nagusien implikazio aktiboaz, eta belaunaldien arteko elkartasun-esperientziez ariko da Lizaso. Hitzaldi irekia da, eta 17:00etan hasiko da. Kutzaren dibulgazio-hitzaldien barruan kokatzen den saioa da, eta ordu eta erdi-ko iraupena izango du.

Irteera Elizondora

Biharamunean, hilak 19, egun osoko txangoa egingo dute Elgetako erretiratuek. Nafarroako Baztan bailaran izango dira, eta, besteak beste, Elizondo ezagutuko dute. Autobusa 08:00etan abiatuko da Herriko Plazatik.

Podologo zerbitzua

Abuztuko etenaldiaren ostean, berriz, podologia zerbitzua ere martxan izango da atzera ere. Iraileko kontsulta hilaren 20an, eguna, izango da. Ezinbestekoa da txanda hartzea. Interesatuak Nati Arrietari deitu behar diote, 943 76 80 77 telefono zenbakira.

Gaueko autobus zerbitzu berezia ipiniko dute zapatuan Bergarako San Martin jaiak direla-eta

Begarako Udalak gaueko autobus zerbitzua antolatu du San Martin jaiak direla-eta. Zerbitzu berezia zapatuan, hilaren 15etik 16rako gauean, emango dute, 00:10etik 06:25era, ordubeteko maiztasunarekin. Txartelaren prezioa 1,80 euro izango da, eta eskudirutan ordaindu beharko da, ez dute-eta Lurraldebus txartela onartuko.

Helduendako biodantza eskolak egingo ditu Ana Mari Sousak: lehen saioa urriaren 4an izango da

Haurrendako eskaintza egiteaz gain, Ana Mari Sousak helduendako biodantza saioak ere egin gura ditu ikasturte honetan. Saio irekia egingo du urriaren 4an, eguna, Herri Eskolako psikomotritzitate gelan, 19:15etik 21:00etara. Iniziazio saioa izango da, aproposa biodantzara lehen aldiz gerturatu nahi dutenendako. Argibide gehiagorako, deitu 606 63 61 99 telefono zenbakira.

Beteranoen pilota txapelketan parte hartu gura dutenek lehenbailehen eman behar dute izena

Iaz bezala, bi txapelketa jokatuko dira: 40 urtera artekoena eta 40 urtetik gorakoena. Antolatzaileek urrian hasi gura dute txapelketa, eta abian dute dagoeneko izen-ematea. Interesatuak Fernando Zenitagoiarekin jarri behar dute harremanetan, eta eskatu du izen-ematea lehenbailehen egitea egutegia ahalik eta azkarren prest edukitzeko.

Kultura etxeko ordenagailu gelan izango da astelehen arratsaldean KZguneko dinamizatzailea

Ikasturte honetan ere hilean bitan etorriko da Eli Modrego dinamizatzailea Elgetako KZgunera. Astelehenean, hilak 17, ikasturteko bigarren bisita egingo du, eta interesatuak kultura etxeko ordenagailu gelan aurkituko dute, 16:00etatik 20:00etara, kontsultak egin edo ikastaroak jasotzeko.

Logroñora joango dira 'sorginak' hilaren 22an eta zabalik dago izenematea

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Sorginak emakume elkarrekin irteera antolatu du hurrengo zapatarako, irailak 22. Logroño aldera joatea erabaki dute egun-pasa, eta bertan ospatuko den San Mateo feria ezagutu. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago; Labidea dendara jo behar da eta azken eguna irailaren 19a da, eguaztena.

San Mateo jaietan izango dira Logroñon datorren aste guztian eta Gatzagako emakumeek feria ezagutzea joan gura dute: "Azoka ekologikoa; produktuen dastatzeak; dantzak, antzerkiak eta beste hainbat ikuskizun izango dira. Hortaz, anima daitezela herriko emakumeak ederto pasatuko dugu eta!", diote.

ALOÑA MENDI, OHOREZKO ERREGIONALA

Etorkizunean fruituak jasotzeko apustua

XABIER URTZELAI | OÑATI

Nagusiak joan eta gazteak etorri, hori da aurtengo Aloña Mendiren egoera ondoen azal dezakeen esaldia. Talde gorritxoari etorkizunean fruituak batzeko baraztea lantzea dagokio, ez dago besterik, eta, egoera horren jakitun, Azkoagaingo zaleek pazientziatziaz hartu beharko dute Aloña Mendiren proiektu berria, gazte oñatiarrekin osatutakoa.

Aulkian Andoni Azkargortak jarraituko du. Txantxikuek jakin zuten iaz antzuolarraren proiektu berria pazientziatziaz hartzen, eta denborak erakutsi zuen asmatu egin zutela. Urte ikusgarria egin barik urduritasunak uxatu eta txukun amaitu zuten, baina aurrean badirudi, taldearen gaitetasunari erreparatuta, sufritzeko urtea izan daitekeela. Ea

aurreikuspen hori, goitik behera, okerra den.

Hutsune nabarmenak

Aurtengo denboraldian hutsune nabarmenak izango dira Azkoagainen: batetik, beterano batzuek taldea utzi dutelako –Roberto Idigoras aurrelaria tartean–; eta bestetik, kontrarioa bat-batean ezustean harrapatzeko gaitasuna duen Axier Ugarte Azkoitira joan delako: Hirugarren Mailako Anaitasunara.

Azkoagainen ahaleginduko dira jokalaririk horien hutsunea betetzen, eta denboraldi-aurrean nahi moduko itxurarik eman ez duten arren, goiz da, eta urteak askorako ematen du. Biharko Aloña Mendi sendoak orain jarri behar ditu oinarriak, eta horretan ari dira.



Aloña Mendiko hamaikakoa, Jose Luis Agirrerren oroimenezko partiduan. | JULIO CALLEJA



Oharra:
Aloña Mendiko denboraldi-aurrean egin duten jokalarien zerrenda da hau, ez da zerrenda definitiboa.



IÑIGO IDIGORAS

Atezaina.



MIKEL AGINAGALDE

Atezaina.



JULEN AGIRRE

Atezaina.



IKER OLALDE

Atzelaria.



JOSEBA IRIZAR

Atzelaria.



GAIZKA ZELAIA

Atzelaria.



MIKEL ETXEBERRIA

Atzelaria.



AITOR SAEZ

Atzelaria.



IÑIGO MARKINEZ

Atzelaria.



MIKEL BENGOA

Atzelaria.



ENDIKA RUIZ

Atzelaria.



XABI CARPINTERO

Atzelaria.



GORKA LAZKANO

Atzelaria.



ARITZ GARMENDIA

Erdilaria.



IÑIGO ZUBIA

Erdilaria.



GAIZKA IRIZAR

Erdilaria.



AIMAR LIZARRA

Erdilaria.



ANDOITZ BIAIN

Erdilaria.




JOSU MILLAS

Erdilaria.



GORKA IRIZAR

Erdilaria.



MIKEL PALACIOS

Erdilaria.



UNAI BIKUÑA

Aurrelaria.



JON LERTXUNDI

Aurrelaria.



UNAI URIBETXEBERRIA

Aurrelaria.



ENEKO AZURMENDI

Aurrelaria.



JULEN PALACIOS

Aurrelaria.



IBAI MORENO

Aurrelaria.



ANDONI AZKARGORTA

Entrenatzailea.



JAVIER ASPIAZU

Presidentea.

BERGARA, OHOREZKO ERREGIONALA

Emaitza onak ematen dituen filosofiari eutsi

XABIER URTZELAI | BERGARA

Bergarak hirugarren urtea egingo du jarraian ohorezko erregionalean. Duela urte batzuk mailaz jaitsi izana inflexio-puntua izan zen; etxeko jokalarien aldeko apustua egiteko erabakia hartu zuten eta mailaz igota azken bi denboraldietan lan txukuna egin dute kategorian horretan.

Aurten ere ez dituzte gauzak behar dena baino gehiago zaildu nahi. Neka Galanek jarraituko du aulkian; taldea ondo ezagutzen duen gizona da, eta dagoeneko beterano diren jokalarien esperientziak baliatuko da talde mahoneroa: Nafarrate, Crespo, Cabanillas, Macho... Horiek ez ziren atzo goizean futboleant hasi, eta zelaian igarriko da jokalariorien pisua, beste beterano

batzuek taldea uzteko erabakia hartu dute-eta; besteak beste, Bergararen atzealdean agintzen zuen Iker Arazkonagak.

Beste urte batez, gainera, belar naturaleko Agorrosin salbuespena izango da kategorian horretako zelaian artean, eta horretaz baliatu nahi dute Bergarakoek, etxean indartsu bilakatuta.

"Ordezkapen onak"

Denboraldiaz galdetuta, Neka Galanek aurreratu duenez, taldean izandako hutsune garrantzitsuak ondo ordezkatu dituzte, eta iaz baino talde orekatuagoa dutela onartu digu. Arrasatekoaren esanetan, baina, talde guztiak indartu dira ondo, eta lehia handiko txapelketa izango dela aurreratu du.



Etxeko torneoan, duela 15 egun, mahoneroen hamaikakoa. | JULIO CALLEJA

Bergara, K.E.



Oharra:
Bergararekin denboraldi-aurrea egin duten jokalarien zerrenda da hau, ez da zerrenda definitiboa.



JON SOTO

Atezaina.



IÑAKI MARDARAS

Atezaina.



AITOR ELIZBURU

Atzelaria.



JOSU APELLANIZ

Atzelaria.



XABIER URRUTIA

Atzelaria.



ANDONI NAFARRATE

Atzelaria.



JULEN IÑURRATEGI

Atzelaria.




ANDONI ARRUTI

Atzelaria.



AITOR ELORRIAGA

Atzelaria.



AITOR OREGI

Erdilaria.



JOKIN BALTZATEGI

Erdilaria.



AITOR BEITIA

Erdilaria.



BEÑAT ZUFIAUR

Erdilaria.



ERIK ARANBURU

Erdilaria.



ELOY CRESPO

Erdilaria.




IMANOL CABANILLAS

Aurrelaria.



IÑIGO MACHO

Aurrelaria.



ANDER PLAZAOLA

Aurrelaria.



EGOITZ REYES

Aurrelaria.



AITOR ALONSO

Aurrelaria.




ISMAEL NAVAS

Aurrelaria.



JON LINAZISORO

Aurrelaria.



PEDRO VALERIO

Aurrelaria.



NEKA GALAN

Entrenatzailea.



UNAI IPARRAGIRRE

2. entrenatzailea.



PEDRO RICO

Presidentea.

MONDRA, OHOREZKO ERREGIONALA

Iazko urte gogorra ez errepikatzeko, indartuta

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Mondrak urte gogorra izan zuen iaz, arlo instituzionalean, eta baita kirol arloan ere. Baina hasi dira bi arlo horietako egonei buelta ematen; lehenengo, klubaren kudeaketarena, bigarrena, eta bigarrena asteburuan hasita ikusiko dugu, ligan; nahiz eta klub baten kirol arloaren kudeaketa ez den lehenengo taldera mugatzen, ezta gutxiago ere.

Gutxi espero zuten Mondrak ohorezko erregionalean jarraituko zuenik, baina hala da, eta iazko akats beretan ez erortzeko, nobedadeak daude taldean. Derrigorra zen jendea ekartzea, duela bi urte taldeko beteranonek –bost guztira– jarraian utzi zuten futbola, eta talde zuri-mo- rearendako gehiegizkoa izan

zen hori. Orain, Lutxo Iturrino eta Txomin Arkotxa entrenatzaileen fitxaketarekin batera ahalegindu dira hainbat jokalaririk arrasatear etxeko klubera erakartzen.

Arrasateko jendearekin

Aurpegi berriei dagokienez, Iker Uribarren arrasatearra Baskoniatik etorri da, eta denboraldi-aurrean erakutsi du goragoko mailatik datorrela –Mondrakoaz batera Arrasatekoak bazuen beste eskaintzarik–. Josu Oleaga ere talde zuri-mo- rera itzuli da, eta baita Aloña Mendin jokatzeko ibili den Oier Zabaleta atezaina eta Elgoibarren jokatzeko ibili den Jon Zabaleta ere, biak arrasatearrak. Arrasate Hiria irabazi izanak, seguruenez, indarberri egin ditu.



Mondraren hamaikakoa, denboraldi-aurreko Bergara Hiria torneoan ateratako talde argazkian.

Oharra:
Mondraren denboraldi-aurrean egin duten jokalarien zerrenda da hau; baliteke gutxi batzuk kanpoan geratzea.

**ANDER RUIZ DE AZUA**

Atezaina.

**OIER ZABALETA**

Atezaina.

**ARKAITZ GARMENDIA**

Atzelaria.

**JON DEL PALACIO**

Atzelaria.

**UNAI CALZON**

Atzelaria.

**JON ZABALETA**


Atzelaria.

**MIKEL ZABALA**

Atzelaria.

**GORKA BOYON**

Atzelaria.

**ERIK JUSTEL**

Atzelaria.

**MIKEL GONZALEZ**

Erdilaria.

**ANDONI AIZPURU**

Erdilaria.

**TXONAN ORMAETXEA**

Erdilaria.

**IKER LOPEZ**


Erdilaria.

**MARKEL GONZALEZ**


Erdilaria.

**JOSU OLEAGA**

Erdilaria.

**IMANOL ARANTZABAL**

Aurrelaria.

**IKER URIBARREN**

Aurrelaria.

**LANDER ANDRES**

Aurrelaria.

**ASIER URRIA**

Aurrelaria.

**XABI PAVON**

Aurrelaria.

**AITOR AZKARATE**

Aurrelaria.

**JULEN ZAITEGI**

Aurrelaria.

**LUTXO ITURRINO**

Entrenatzailea.

**TXOMIN ARKOTXA**

2. entrenatzailea.

**JOSE LUIS EZKURRA**

Presidentea.

ARETXABALETA, OHOREZKO ERREGIONALA

Etxeko oinarriari eutsi, ezagunen itzulerarekin

XABIER URTZELAI | ARETXABALETA

Zalantza barik, azken urteotan Aretxabaletak izan du ohorezko erregional mailan ibarreko talderik indartsuena. 2009an Hirugarren Mailara igo izana da erakusle, baina urtebeteko abenturaren ostean ez zen taldean gainbeherarik izan –sarri gertatzen da– eta aretxabaletarrek ondo barneratu dute, bi denboraldi hauetan, zein den euren lekua, oraingoz.

Aurten ere, galdetuz gero, mailari eusteko asmotan hasiko direla izango da erantzuna, baina Donostia aldean Hirugarren Mailara igotzeko hautagaiengatik galdetuta, Aretxabaleta askoren kinie-la barruan dago. Hori bai, iazkoa ez da duela bi urteko Aretxabaleta izan. Orduan laugarren postuan amaitu zuten, eta iaz postu hori

hobetzea zen erronka, baina aurrean egoteko denboraldiko une erabakigarrietan kale egin zuten Juanan Cruzen mutilek.

Nobedadeak aulkian

Realeko jokalaririk ohi Alberto Albistegik du Aretxabaleta zuzentzeko ardura. Horretarako, iazko oinarri sendoarekin jarraituko du, nahiz eta hutsune batzuk egongo diren; esaterako, *Kika* atezainarena.

Taldea, baina, ondo indartu da. Hirugarren mailan jokatu duten –Elgoibarren– aspaldiko ezagun Andoni Amutxastegi eta Oinatz Agirre taldera itzuli dira, eta, Albistegik gomendatuta, Aitor Arroita Jauregi atzelaria ere ekarri dute. Gazte mailatik Castellano eta Arizmendiarrietara igo dira.



Bergara Hiria torneoan Aretxabaletak ateratako hamaikakoa. | JULIO CALLEJA



Oharra:
UDAK erabaki du dagoeneko ze jokalaririk izango dituen aurten; zerrendan dituzuenak dira.

**ASIER CASTELLANO**

Atezaina.

**IKER AGIRREGABIRIA**

Atezaina.

**GARTXI GOROSABEL**

Atzelaria.

**BEÑAT ETXABE**

Atzelaria.

**IGOR OIANGUREN**

Atzelaria.

**JULEN ARRIARAN**

Atzelaria.

**AITOR ARROITAJAUREGI**

Atzelaria.

**KERMAN AZKARRAGA**

Atzelaria.

**ANDONI AMUTXASTEGI**

Atzelaria.

**RAUL SANCHEZ**

Atzelaria.

**IKER SANCHEZ**

Erdilaria.

**IKER ORUETA**

Erdilaria.

**JULEN ERAÑA**

Erdilaria.

**AITOR PEREZ**

Erdilaria.

**HARITZ IGARTUA**


Erdilaria.

**IBAI HERNANDEZ**

Erdilaria.

**GILLEN MAR**

Erdilaria.

**JOKIN BADILLO**

Erdilaria.

**JOKIN URTZELAI**


Erdilaria.

**AITOR ETXEBERRIA**

Erdilaria.

**OXEL APRAIZ**

Aurrelaria.

**JOSU ARIZMENDIARRIETA**

Aurrelaria.

**OINATZ AGIRRE**

Aurrelaria.

**ALBERTO ALBISTEGI**

Entrenatzailea.

**GORKA VALLE**

2. entrenatzailea.

**JUAN MARI ENEKOTEGI**

Presidentea.

MENDIA

Iñurategiren hurrengo erronka, Nuptse mendian

X.U. | ARRASATE

Alberto Iñurategi erronka berria du, eta proiektu horretan, azken urteotako bidelagun Mikel Zabaltza eta Juan Vallejo izango ditu ondoan.

Hala, Antartikako esperientzia aberasgarria alde batera utzi, eta mendizaleak dagokien tokira itzuliko dira, mendira. Naturgas/BBK Nuptse 2012 da proiektu berriaren izena, eta BAT Basque Team taldeko alpinistak Himalaiako Nuptse mendia (7.861m) igotzen ahaleginduko dira, alpetar estiloan. Hau da, mendi horretako hegoaldeko, oxigeno barik, soka finko barik, garraiatzaile barik eta altuerako kanpaleku egonkorrik barik igotzen ahaleginduko dira; orain arte inork ez du Nuptsen halakorik egin. Astelehenean abiatuko dira.

MENDIA

San Martin sariak ziklista afizionatuak batuko ditu Bergaran

Bergarako lasterketaren 47. edizioak Lehendakari Txapelketako afizionatu mailako txirrindulariak batuko ditu domekan. Lasterketa San Antonion hasiko dute, 10:00etan, eta helmuga ere bertan izango da. Txirrindulariek 108 kilometro izango dituzte aurrean, gehienak bailaran.

TRIATLOIA

Alex Altuna eta Mikel Muxika, Euskal Selekzioaz Murtzian

Antxintxika Triatloi Taldeko kide Alex Altuna arrasatearra eta Mikel Muxika bergararra Mazarronen (Murtzia) lehiatuko dira asteburuan, Autonomien Arteko Espainiako Txapelketan. Debagoienarrek Euskal Selekzioa ordezkatzeko dute. Espainiako Koparako proba puntuagarria da.

FUTBOLA

Amaitu dira probak: benetan lehiatzen hasteko ordua da

Mondrak eta Aretxabaletak derbia jokatuko dute etzi; Aloñak eta Bergarak ere etxean hasiko dute liga

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Ohorezko erregional mailako taldeek asteburuan hasiko dute liga. Eta indartsu hasiko da, gainera, Mondraren eta Aretxabaletaren arteko derbiaz (domeka, 16:30, Mojategi). Hala, duela aste-bete Arrasate Hiriko finalean jokatutako partidua errepikatuko da, baina susmoa dugu denboraldi-aurreko torneoetan Mondrako entrenatzaile Lutxo Iturrinok karta guztiak erakutsi dituela, gustuko hamaikako bilatzen ibili dela, eta, aldiz, Aretxabaletako entrenatzaile Alberto Albistegi gehiago ibili dela *despistera* jokatzen, jokalariek guztiak minutuak emanda.

Kontu horiek guztiak domekan erabakiko dira, bi entrenatzaileek hamaikakoak erakusten dituztenean. Hortik aurrerako erreferentziak gutxiariko balio dute, baita joan den asteko finalak ere, Mondraren garaipenaz. Eta zer esan joan den liga amaieran Mondrak Ibarren lortu zuen garaipenaz; partidu hark ere ez du balio



Domekan, joan den asteko agertoki bera izango du lehiak. | JOSETXO ARANTZABAL

–hainbat motiborengatik– bi taldeen arteko alderaketa egiteko. Gauza bakarra da jakinekoa: Mondra egiteko dagoen taldea da, nahiz eta badirudien ondo indartu dela, eta Aretxabaletak maila oso oneko oinarria du, esperientzia handikoa. Hortik aurrerakoak domekan ikusiko ditugu.

Igo berrien kontra

Derbiaz batera Bergarak eta Aloña Mendik ere etxean jokatuko dute ligako lehen lehia, eta hain zuzen, ibarreko bi ordezkariak mailaz igo berri diren bi talde izango dituzte aurrean, Azpeitiako Lagun Onak, eta Lasarteko Ostadar. Iaz lehenengo sailkatuta Lagun Onak zuzen lortu zuen mailaz igoztea; Ostadarrek, berriz, igoera fasean Zumaiako utzi zuen kanpoan. Hala, Mahoneroek zapatuan 17:30ean jokatuko dute Lagun Onaken kontra, eta Aloña Mendiko mutilek, domekan izango dute hitzordua, 16:30ean.

Mondrako neskek Donostiara

Andoni Ezkurraren eta Isei Barberoren neskek ez zuten joan den astean liga nahi moduan hasi, eta oraingo asteburuan ahaleginduko dira Añorgaren zelaian hiru puntuak batzen (domeka, 12:00). Ezkurak berak onartu moduan taldeak aurten izan dituen baja garrantzitsuetara ohitu beharko du, eta jokatze modua ere aldatu, iaz 20 gol egin zituen Maitane Roa erreferentzia garbia zelako aurrean.

MENDIA

Besaideko Oroimen Eguna, Arrasateko bide zaharretatik

Domekan 08:30ean irtengo dira, Monterrondik



Mendizaleak, Besaiden, artxiboko erretratuan. | GOIENA

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Mendian hil diren mendizaleak omentzeko Oroimen Eguna egingo dute domekan Besaiden. Euskal Herri osoko mendizaleak batuko dira urteroko hitzorduan, eta aurtengo edizioan Elorrioko Erdella Mendizale Taldeak hartuko du eguna antolatze ardua. Besaide Mendi Elkartekoak, baina, proposamen bereziarekin datoz.

Arrasateko bide zaharretatik

Mendizale gehienak euren kabuz joango dira Besaidera, baina Arrasateko mendi elkartekoak proposamena da Besaidera Arrasateko bide zaharretatik joatea: "Domekan 08:30erako egin dugu hitzordua, Monterronen, eta deialdi irekia da, Arrasateko bide zaharrek ezagutu nahi dituenarendako pro-

posamena", adierazi digu aste barruan Aitor Zubiagak, Besaideko ordezkariak: "Meatzerrekan gora egingo dugu, Salturriko base-rritik pasa eta Txukurilloko bidetik Labasturrera, handik Besaidera jaisteko". Hain zuzen, Besaidek esku artean dituen proiektuetako bat da Arrasate inguruetako bide zaharrek errekuperatzea, eta ekimen horrekin, bide horietako batzuk ezagutarazi nahi dituzte.

Besaiden, 10:30ean

Oroimen Eguneko egitarauari dagokionez, txistulari eta txalapartariak ongiatorria egingo die mendizaleei 10:30 aldera. 11:00etan meza egingo dute, eta ondoren dantzari eta txistulariak izango dira. Txosna ere jarriko dute, jatekoarekin eta edatekoekin.

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2012
irailak 15

urriak 20
azaroak 17

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Engulu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariok konfiantza,
hurbitasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



KULTURA

Cesar Strawberryren eskutik saio didaktikoa eta zuzeneko bortitza

Def Con Dos eta Kaimanleon taldeek zuzeneko eskainiko dute bihar, 22:30ean, Oñatin

MAIDER ARREGI | OÑATI

XX. urteurrena ospatzen dabilta Cesar Strawberry eta haren mutiak. "20 urte ospatzen eta 20 urte bagenitu moduan ospatzen gabiltza, ilusio eta gogo berarekin", gaineratu digu Def Con Dos taldeko abeslari eta liderrak. Euskal Herrian ia ez dago txokorik taldeak ezagutzen ez duenik. "Ikaragarria da, denboraldi batean Burgoserako errepidea bakarrik hartzen genuen. 'Baina zer duzue zuek goialdean?', esaten ziguten Madrilgo lagunek". Umorea badu Cesar Montaña abeslariak, eta "modu ezohiko eta arraroan" jaio zen taldea egun "zeresana ematen" dabilela kontatu digu. "Jendeak denborarekin ikusi du guk esaten genituen gauza askotan arrazoa geneukala. Oraindik ere oihartzuna daukagu eta Mexikon, Argentinan eta Europan eskaintzen ditugu zuzenekoak. Gure jarraitzaileak baditugu eta jendeak baloratzen du talde zintzoa gara; egiten duguna gustatu egiten zaigula da gakoa!".

Saio didaktikoa

Cesar Montañak lau liburu ditu idatzita; tartean, Def Con Dosen biografia. Zapatuan 19:30ean gaztelekuan eskainiko duen saio didaktikoan, taldearen esperientzia eta bere bizitza, elkar lotuta, izango ditu mintzagai. Aspaldian, baina, musikarekin batera, beste ihesbide bat ere baduela azaldu digu: idaztea. "Literatura asko gustatzen zaidan arloa da; zure unibertsoa eraikitzen duzu eta ni oso gustura sentitzen naiz. Orain beste eleberrri bati helduko diot; nire lanek harrera ona izan dutenez oso gustura nago", dio.



Vigo eta Madril arteko Def Con Dos talde mitikoaren *promo* argazki berria. | DEF CON DOS TALDEA

Kaimanleon: aurkezpena

Kaimanleon talde oñatiarrak grabatu berri duen diskoa aurkeztuko du. Stoner eta metal ukituak nagusi. Sorpresarik ez dela faltako esan digute, eta ikuslea hotz ez dela geratuko zuzenekoan.



CD berriaren azala. | KAIMANLEON

CESAR MONTAÑA | ABESLARIA

"Gure iritziz, rock-and-rolla iparraldean bakarrik zegoen"

Cesar Strawberry da Def Con Dos taldearen arimetako bat. Disko berria prestatzen harrapatu dugu Madril. Zapatuan Oñatiko gaztelekuan emango duen zuzenekoan aurrerapentxoren bat izango ote da?

Alex de la Iglesiaen *Acción mutante* zer da zuendako?

Sekulako bultzada. Gure aldeko apustua egin zuten eta aurrera egiten lagundu ziguten.

Raparen ikono zarete?

Historiako etapa oso garrantzitsuak bizi izan ditugu eta horren parte izan

gara. Aurrekoan, Negu eta Fermin zertan ote dauden burura etorri zitzaizdan... gu oraindik ere hor gabiltza! Ikaragarriko zortea izan dugu, eta sekulako taldeak ezagutu.

Euskal Herriari asko zor diozue.

Askok! Alex de la Iglesia izan zen gu deskubritu gintuena. Gure lehen maketaren jarraitzaileak ziren, pentsa. Eta nola ez Neguri eta Fermini. Inori ez zitzaion Def Con Dos axola eta Ferminen bidea egiten lagundu zigun Euskal Herrian. Gure iritziz, rock-and-rolla iparraldean zegoen.

Nola gogoratzen duzu hasiera?

Ez ginen ezta amateur ere, txapuzer ginen. Siniestroko Julian Hernandez izan zen benetan bultzada eman ziguna; ideia eta proiektuekin aurrera egiten lagundu zigun. Aurpegi handiarekin eta tabernetan pegatunekin promozio txapuzeroak eginez, jendea ezagutzen hasi ginen.

Letra odoltsuekin arazoren bat?

Ba, ez, nahiz eta deabruaren hatsa lepatzean sentitu dugun. Umorearen eta mezuaren arteko oreka da sekretua; SA taldeari egin dioten

jarraipen injustua eta inkisidorea, esaterako, guri ez digute egin.

Noizko disko berria?

Azaroan grabatu behar dugu, eta otsailean kaleratu. Oso disko basatia eta freskoa egiten ari gara. Eskola zaharrekoa, *kañeroa*! Ez gara isilduko. Oso pozik gaude.

Arrasaten 90eko hamarkadan izan zineten; ze oroitzapen?

Su Ta Garrekin euskal festa askotan ibili ginen. Garai oso punka eta borrokalariaren zen; oso harro gaude garai hura bizi izateaz. Orain dena arau inozoz beteta dago; sortzaileei ere sekulako jarraipena egiten zaie eta ez dute arnasarik hartzen ere uzten, musika ito arte dabilta.



Zatozte Bergarako
San Martin jaietara!



BERGARAKO UDALA

San Martin plaza • Tel.: 943 77 91 00
www.bergara.net • bergara@bergara.net



Mikel Laskurainen azken kale antzezlanaz gozatzeko aukera

Gaur, Zabalotegin musika emanaldia; bihar, kalean antzerki umoretsua

MAIDER ARREGI | BERGARA

Ametsetan bizi kale antzerkiak kolorez jantziko du Munibe plaza zapatuan, 19:30ean. Aspaldidaniko bi aktoreen istorioan oinarritutako kontakizunean, umorerik eta ironiarik ez da falta izango. Mikel Laskurain eta Jabí Barandiaran aktoreen azken kale antzerkia dugu *Ametsetan bizi*.

Egungo egoera dela-eta kalea atera behar duten bi aktore dira. Euren lanaren promozioaren bila dabilta, eta bion lana zabalduko duen manager baten laguntza bila.

Tartean, elkarren-oso ezberdinak diren aktoreak- arteko erlazio zaila azaleratuko da, betiere umorez. Batez ere, bakoitza mundu desberdin batetik datorrelako: bata, telebistako kulebroietan parte hartetik; bestea, antzerki erradikalenetik.

On-Duo proiektua

Pello Ramirez -Ordizia- eta Xabier Zeberio -Tolosa- euskal musikan eskarmentudunak dira. Biek abian jarritako *On* proiektu berriak musika bizi eta ulertzeko bi modu elkartzeko ditu. Hiru dira proiektuaren zutabe



Ametsetan bizi kale antzerkiko une bat. | TRAPU ZAHARRAK KONPAINIA

nagusiak: batetik, sorkuntzako bide berriak bilatu eta esperimentatzeko beharra; bestetik, proposamen instrumental berri-tzaile eta originala aurkeztea; eta azkenik, espresuki sortutako konposizioz eta herrialde ezber-

dinetako folklorean oinarritutako hainbat doinuren errekreazioz osatutako errepertorio plurala eskaintzea.

On-duo emanaldia gaur, bari-kuia, izango da, Zabalotegi aretoan, 22:00etan hasita.



Errimak oinetan ikuskizuneko parte-hartzaileak. | WWW.BERTSOA.COM

'Errimak oinetan' bertso eta dantza ikuskizuna domekan

M.A. | BERGARA

Bertsolariak sentipen eta emozioak harilkatzen dituzte entzuleengan. Baina entzule horiek dantzariak balira? Nola adieraziko lukete belarrietatik jasotako zirrara errimatua oin puntetan menperatzen duten dantzaren bidez?

Galdera horren erantzun da *Errimak oinetan* bertsolaritza oinarri duen dantza emanaldia. Haatik dantza konpainiak jarri ditu oinak errimetan eta errimak oinetan. Dantza berriak, bertsoei jarriak direnak, alegia.

Unai Elizasuren ideia izan da eta Aiert Beobide eta biak ari dira zuzendari lanetan. Bertsoak Sustrai Colinak egin ditu. Dantzariak Aiert Beobide, Mai-

tane Muxika, Onintza Odriozola, Garazi Lekuona, Gotzon Poza eta Iurre Aranburu dira. Emanaldiak jende askoren parte hartzea izan du.

Pilotalekuan

Maiatzean estreinatutako ikuskizuna da eta dagoeneko Euskal Herriko txoko ugarian egin dituzte emanaldiak. Oraingoan, Bergarara etorriko dira. Izan ere, aste bukaeran San Martin jaiak ospatuko dira. Horren barruan, domekan, hilaren 16an, arratsaldeko zortzietan izango da *Errimak oinetan* bertso eta dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera aparta Udal Pilotalekuan. Sarrerak salgai daude zortzi euroren truke.

2012-2013 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Matrikula zabalik

Izena emateko epea irailaren 3tik 25era



EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE ikastaroak:
1., 2., 3. eta 4. HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK
(HOMOLOGATUTA)

EGA

MINTZAMENA lantzeko ikastaroak

BOGA. AUTOIKASKUNTZA

TOKIKO EUSKALKIA

AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN
Erritmo eta ordutegi egokituak, txandakako taldeak

BEKA SISTEMA

IKASLEEK, LANGABEEK ETA ERRETIRATUEK
PREZIO ERDIA



ARRASATEKO
UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ
UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA
UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Nik maite
dut
euskara



2012-2013 IKASTURTEA

Matrikula zabalik

UDAL EUSKALTEGIAK

Izena emateko epea irailaren 3tik 25era

Mireia Gabilondo | Zinema zuzendaria

"Ikusleen erantzun barik dena zailagoa da zineman"

Astelehenean egin zuten 'Barrura begiratzeko leihoak'-en aurrestreinaldia

USOA AGIRRE | ARRASATE

Barrura begiratzeko leihoak filma bi aldiz eman zuten astelehenean Donostiako Viktoria Eugenia aretoan. Ekarpenak egin zituen jendearentzako emanaldi pribatuak izan ziren, zuzendariak bertan zirela. Mireia Gabilondo bergarra da zuzendarietako bat eta harekin egin dugu berba, filmak izan duen harreraren berri izateko. Ikusle guztiendako estreinaldia urrian egingo dute.

Barrura begiratzeko leihoak filmak traba asko izan ditu bidean, baina, azkenean, aurrera egin du.

Hunkigarria izan zen, ia 1.000 pertsona etorri ziren filma ikustera. Lehenengo aldia zen eta publikoarekin kontraste txiki bat izatea beharrezkoa zen guretzat. Ikusita ze eztabaida sortu den inork ikusi gabe, nahi genuen filmak berak berba egin zezan; gero etorriko dira kontuak. Oso inpresio ona jaso genuen. Jendearekin egoteko beta handirik ez genuen izan, baina aretoan giro polita sumatzen zen. Txaloak

beroak izan ziren eta gu oso gustura geratu ginen; behar genuen horrelako zerbait. Zinema egitea garestia da, diru asko behar da eta ikusleen erantzun barik dena zailagoa da.

Gotzone Lopez de Luzuriagaren istorioa kontatu duzu. Zer moduz?

Lehenengo aldia zen dokumental bat egiten nuena. Lehenengo pentsakizuna izan zen nola aurre egin kontatzeko modu honi. Jakinda, gainera, bera preso egonda ezin nuela grabatu. Nire kasuan, baina, altxor txiki bat neukan; amak grabatu zituen alabarekin izandako telefono bidezko elkarrizketak. Material horrekin jokatu dut ahotsari emanez garrantzia. Oso polita izan da eman didatena, ia bi urte egin dut eurekin eta pixka bat familiaritatekoak dira niretzako. Bidean ere egunetik egunera gauzak aldatzen joan dira. Bazirudien duela hilabete *Parot doktrina*-rekin zerbait aldatuko zela, baina ez da horrela izan. Pena da doku-



Mireia Gabilondo. | GOIENA

"Oso polita izan da dokumentaleko elkarrizketatuek eman didatena"

mentalak beste bukaera bat ez izatea.

Dokumentala egitea oso ezberdina da orain arteko lanarekiko?

Lana egiteko modua antzekoa da. Ezberdina da dokumentala izate-rakoan benetako jendea dela, eta hor salto handia dago. Benetako jendearekin benetako gauzak kontatzen lan eginda, uste dut errespetu handiarekin jokatu behar dela. Familiatz gain, Josu Trueba Leiba argazkilariaren lana oso lagungarria izan da nire piezan. Dokumentalaren zati txiki batean duela urte batzuk bizi izandako bidaia bati buruz hitz egiten da eta bidaia hartako argazkiak utzi dizkit piezan erabiltzeko.

Amaren eskuak proiektua ere hor daukazue labean.

Joan den astean bukatu genuen filmaketa; sei asteko lana egin dugu udan. Bost urte badira irakurri nuenetik eta kontatzeko gogoia neukan istorio bat da. Egunerokotasunean oinarritua dago, amaren galtze horretaz hitz egiten du, nola bizitza bat-batean hankaz gora jartzen zaizun eta bizitzan guztia berriz kolokatzeko zaila izaten den. Hemengo aktore oso gustuko ditudanekin lan egin dut eta orain muntaketan ari naiz; urte bukaerarako bukatuta egongo da filma, datorren urtean estreinatzeko.

Beste proiekturen bat?

Antzerkian aktore moduan egongo naiz datorren hilabetean Tanttakarekin estreinatuko dugun lan batean. *Soinujolearen semea* egiten ari gara.

Lucio Muñoz margolaria omenduko dute Arantzazun

U.A. | ARRASATE

Arantzazuko Basilikako abside bereziaren egile Lucio Muñozen ibilbide artistikoa aintzat hartzea eta aurten 50. urteurrena betetzen duen artelanari omenaldia egitea da bihar, zapatua, Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Arantzazu Gaur Fundazioak antolatutako duten oroitzapen-jardunaldiaren xede nagusia. Muñoz margolari madrildarrak Arantzazuko Ama Birjina inguratzen duen 600 metro koadroko paretako dekoratzeko murala sortzeko erantzukizuna izan zuen, 1962an.

Egitaraua

10:30ean mahai-ingurua egingo dute Gandiaga Topagunean. Parte hartuko dute Antonio Lopez eta Julio Lopez Hernandez artistek eta Rodrigo Muñoz semeak. 12:30ean, Basilikan, Miguel Angel Alonso arkitektoak absidearen irakurketa egingo du, eta Esteban Elizondo organo-jotzaileak kontzertua eskainiko du.

Pintura lehiaketa ere egingo da egunean zehar.

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757
www.servimasa.com

ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN PREZIO BEREZIAK



Garbigailu integragarria, AWM 129

- A klasea
- 7 kiloko karga
- 1.200 b/min

Prezio garbia,
RAEE barne:

447,65€



Ontzi-garbigailu integragarria, LFTA 2164 (60 cm)

- A/A/A+ klasea
- Zarata maila: 47 db ½ • Karga automatikoa

Prezio garbia,
RAEE barne:

410,80€



Combi EBQH 20223 F -No Frost totala-

- A+ klasea
- 200x60x65,5 (AlxZabxFon)

Prezio garbia,
RAEE barne:

685,20€



Labe pirolitikoa -Newstyle linea-

- A klasea
- Pirolitikoa

Prezio garbia,
RAEE barne:

425,86€



Indukzio-plaka, Kic 631 TB -biselatua-

- 3 zona, zona hirukoitza Booster 4000 w-rekin, Touch Control
- (TB biselatua)

Prezio garbia,
RAEE barne:

345,80€



Mikrouhin-labea, MIC 201 EX

- 20 litro, 32 zm-ko hondoa,
- Altzairu herdoilgaitza, arrastoen aurkakoa

Prezio garbia,
RAEE barne:

175€



YERA SANCHEZ



UDAKO ARGAZKIEN VIII. GOIENA LEHIAKETA

Aukeratu zure argazki gustokoena eta irabazi

otar eder bat munduko kafe ezberdinekin



Eman botoa: goiena.net/blogak/argazkiak irailaren 18tik 26ra

Jarraitu gaitzazu:  udakoargazkiak  udakoargazkiak



Saria

Eman zure botoa eta irabazi otar eder bat munduko kafe ezberdinekin Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

kb
photoestudio
www.kbphotoestudio.com
Canon

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

aisia HOTELES

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasateko erdialdean. Aukera. Hiru logela, balkoi luzea, hormigoizko egitura, hirugarren pisua, dena kanpoaldera, sukalde hornitua, gas individuala, komuna, egongela eta ganbara. Oso argitsua. Bikoteentzat aproposa. 138.500 euro. 662 18 25 73

Bergara. Etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldia. Igogailua eta berokuntzarekin. Guztiz jantzia. 669 53 97 03

Oñati. Etxebizitza salgai Kale Zaharra auzoan. Bilogela, komuna, egongela, sukaldia eta baruko patio bat. Guztiz jantzia. Oso argitsua. Igogailuarekin. 190.000 euro. 655 72 27 35

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Etxebizitza ematen da errenta. Bi logela. Igogailuarekin. Berritua. 645 00 89 97 edo 605 76 76 30

Arrasate. Apartamentu txikia ematen da errentan erdigunean. Logela bat eta egongelarekin. Berokuntzarekin. Hilean 450 euro. 665 71 06 66 (Amaia).

Arrasate. Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldia, bainugela, terrazak, argitsua, berokuntza zentrala. Erdigunean. 450 euro. Deitu 628 22 45 09 edo 943 31 35 86 zerbakietara.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi bainugelakoa. Igogailuarekin. Erostea aukera ere bai. 675 71 50 36

Eskoriatza. Mazmela auzoan baserria ematen da errentan, ortu eta guzti. Guztiz eraberritua. Deitu 680 33 40 76 edo 605 77 51 65 zerbakira.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logelakoa. 615 73 29 83

Oñati. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. 657 13 33 44

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. 676 61 15 47

Aretxabaleta. Pixu bila gabiltzan Aretxabaletako bikote gazte bat gara. Nahigo dugu txikia izatea. Eskerrik asko!. 656 71 31 09

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. 629 80 77 73

Arrasate. Logela bila nabil errentan, San Andresen edo gertu ahal bada. 699 11 43 23

Bergara. Bi logelako etxebizitza behar dugu errentan. 654 24 13 27 edo 687 16 74 63

Bergara. Familia batentzat etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696 70 55 09

Elgeta. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Ama eta alaba gara. 686 08 16 90

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Bilogela ematen dira errentan erdigunean. 603 14 28 89

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Kontratuarekin. 678 73 66 54

Arrasate. Gela ematen da errentan San Andres auzoan. 657 55 81 15

Arrasate. Logela ematen da errentan Altamiran. Etxe oso eguzkitsua. 653 71 44 57

Arrasate. Unibertsitate ondo-ondoan, logela bat ematen da errentan, bi neskekin etxea osatzeko. Kafetaria zentrala prezio berruan. Lorea. 620 52 94 98

Arrasate. Unibertsitateko bi ikasle gara eta pisukide bila gabiltza Arrasateko Zerrajera auzoko 3. atarian. Consumerren ondoan eta autobus geltoki zentralaren parean. Hiru logela, bi komun (bat logela baten barruan), komuna balkoiarekin, egongela handi bat beste terraza batekin eta garbigailuarekin gelaxo bat. 100m koadro baino gehiago. 240 euro hilean gehi gastuak. 670 421 326 edo 686 201 835

Bergara. Erdialdean logela bat ematen da errentan bi mutilekin etxea osatzeko. Etxe berri eta handia da. Deitu: 697 265 216 edo 608 422 351.

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, denabame. Deitu 670 85 86 68 telefonora.

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 653 74 87 51 zerbakira.

Oñati. Herri erdialdean etxebizitza osatzeko pertsona baten bila nabil. 225 euro gehi gastuak. Etxea guztiz hornitua dago. 652 71 52 50

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai 15.000 euroan edo errentan hileko 60 euroan. Lezama auzian, Santakruz 24an. 647 080 016 edo 943 421822

3. LOKALAK

305. BESTELAKOAK

Oñati. Kale Zaharrean bulegoa konpartituko nuke. Guztiz egokita dago. Egokia izan daiteke bulegorako zein jendea atenditzeko. 651 70 17 41

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARETXABALETA

Sukaldari euskalduna behar da tabernan lan egiteko. 943 25 22 24

Debagoiena. Pertsona heldu bat behar da etxeko lanak egin eta nagusi bat zaintzeko. 669 53 97 03

Oñati. Pertsona euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 658 74 75 48 zerbakira.

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Emakumea gertu umeak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko, orduka. Deitu 672 70 71 25 telefono zerbakira

Arrasate. Neska boliviarra pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita garbitasun lanak egiteko ere. Esperientzia, informea eta paperak ditut. Gauz eta egunez, baita orduka ere. Deitu 618 14 71 34 telefono zerbakira.

Arrasate. Neska gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. 629 80 77 73

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Bergara. Adin ertaineko emakumea gertu arratsaldetan, 16:00etatik aurrera, nagusiak pasioan lagundu edo umeak zaintzeko. 610 34 97 88

Bergara. Arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 665 75 41 32

Debagoiena. Neska euskalduna, psikologian lizentziatua, goizetan haurrekin lan egiteko prest. Haurrekin esperientzia handia. 685 76 91 11

Debagoiena. Emakumea edozein ordutegirekin mota guztiakotako lanak egiteko prest. 664 124 325

Debagoiena. 40 urteko gizon eta emakumea gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Margoketa lanak ere egingo genituzke. Arrasaten bizi gara. 630 04 52 79

Debagoiena. Emakumea edozein lanetarako eta edozein ordutegirekin lan egiteko gertu. 600 20 524

Debagoiena. Emakumea gertu etxe edo atariak garbikete, umeak zaintzeko, edo bestelako lanetarako. Jatetxetan 13 urteko esperientziaduna. Deitu 647 10 58 72 edo 943 79 96 25 telefono zerbakietara.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, orduka edo egun osoz. Garbiketak ere egingo nituzke. Berehala hasteko prest. Deitu 602 87 09 30 edo 695 75 42 45 telefono zerbakietara.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka lan egiteko. Deitu 634 78 19 54 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi eta lan egiteko. Ospitalean gauz gaixok zaintzeko. Deitu 602 37 14 43 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketak orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoan laguntzeko. Deitu 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 telefono zerbakira.

Debagoiena. Eraikuntza ofizial tituludun mutila lanerako gertu. Metalak pulitzien eta garbiketak egin ere lan egingo nuke. Deitu 639 41 68 38 telefono zerbakira.

Debagoiena. Etxeko lanak egin, nagusiak zaindu, garbiketa zein sukalde laguntzaile lanetarako gertu. 697 20 00 86

Debagoiena. Etxeko lanak egin, nagusiak zaindu, garbiketa zein sukalde laguntzaile lanetarako gertu. 697 20 00 86

Debagoiena. Garbiketak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Geriatrian titulua daukat. Interesatuok deitu 691 03 25 02 edo 943 54 09 41 telefono zerbakietara.

Debagoiena. Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zerbakietara: 654 241 327

Debagoiena. Margolari gisa lan egingo nuke. 18 urteko esperientzia. Lehen mailako ofiziala, margoketan. 637 52 89 91

Debagoiena. Mutila gertu arratsalde eta asteburuetan sukaldian lan egiteko. Pintxo, menu eta abarretan eskarmentu handikoa. 666 83 21 95

Debagoiena. Mutila gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita baserriko lanetarako ere. 622 77 60 65

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu, mekanikari laguntzaile zein lorazain jarduteko. Baita ospitalean gaixok zaindu zein etxean bertan bizitzen lan egiteko ere. David. Deitu 626 36 02 01 edo 943 53 21 92 zerbakietara.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Geriatria eta etxeko laguntzaile titulua daukat. Gida baimena eta legezko paperak ere bai. Luis. Deitu telefono zerbakietara: 672 91 18 46

Debagoiena. Mutila gertu taberna edo kafetegian lan egiteko. Baita lorazain, garbiketa zein nagusien zainketan jarduteko ere. 616 32 90 12

Debagoiena. Mutila gertu, esperientziaduna, nagusiak zaintzen lan egiteko, orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Berehala hasteko prest. Deitu telefono zerbakietara: 602 07 12 06

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzeko gertu nago, baita ospitalean gaixok zaintzeko ere. Deitu telefono zerbakietara: 618 13 46 15

Debagoiena. Neska euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Esperientzia eta informea ditut. Autoa daukat eta ordutegi zein egutegi malgutasuna. Deitu telefono zerbakietara: 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak, garbiketetan, nagusiak zaindu, sukaldatu eta abarretan jarduteko. Interesatuok deitu telefono zerbakietara: 610 99 70 46

Debagoiena. Neska gertu garbitasun lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. Nancy. 636 47 64 92

Debagoiena. Neska gertu lan desberdinetan aritzeko: etxeak garbitzen, nagusiak zaintzen, umeak zaintzen eta abar. Interesatuok deitu 626 51 05 58 edo 943 25 38 67 telefono zerbakietara.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Baita tabernan sukaldian ere. Erreferentziak ditut. Autoa ere bai. 680 87 38 66

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Baita tabernan sukaldian ere. Erreferentziak ditut. Autoa ere bai. 634 40 64 65

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko, orduka edo egun osoz. Garbiketak ere egingo nituzke. Berehala hasteko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 673 47 53 74

Debagoiena. Neska gertu orduka etxeak garbitzen, nagusiak zaintzen, ospitalean gauak egin, taberna garbiketa eta abarretan lan egiteko. Deitu telefono zerbakietara: 699 60 91 90

Debagoiena. Neska gertu tabernan, ume edo nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. 697 20 00 86

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Baita garbiketak egiteko ere. Pertsona arduratsua. Orduka zein etxean bertan bizitzen. Interesatuok deitu telefono zerbakietara: 722 14 42 86

Debagoiena. Ostalaritzan lan egingo nuke: sukaldari edo laguntzaile. 634 41 90 51

Debagoiena. Senar-emazteak, erizaintza laguntzaile titulua erekin, pertsona nagusiak zainduko lituzke: etxean bertan bizitzen, ospitalean, eta abar. 697 35 62 49 edo 943 79 04 69

Debagoiena. Sukaldari edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke. Zortzi urteko esperientzia daukat. Elikagaiak ibiltzeko titulua daukat. Autoa ere bai. 634 40 64 65

Zerbitzaria. Taberna edota kafeteria batean arratsaldean lan egiteko gogoz dagoen neska gaztea. Ikaslea goizetan. Deitu telefono zerbakietara: 686 20 18 35

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Kitarra eskolak Oñatin. Kitararako eskola partikularrek emateko prest dagoen pertsona batetan interesatuak gaude. Interesatuok deitu zerbakietara: 626 75 61 12

Oñati. DBH 4. mailako eskolak emango dizkidan norbait behar dut, kurtsuan zehar laguntzeko. 627 91 23 21

502. EMAN

Bergara. Ingelesko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Talde txikietan. Azterketak prestatzeko: Cambridge eta HEO. Baita enpresarako eskolak ere. Goizez, eguerdian edo arratsaldian. 618 91 32 89

Oñati. Irakasle eta psikopedagogoko eskola partikularrek ematen ditut: klase pertsonalizatuak (euskara indartzeak, ulermen arazoak, eta abar), bakarka edo talde txikietan. Kontsulta ezazu konpromisirik gabe. 685 76 83 16 edo 943 78 07 49

6. MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana. Fiat Ducato 2900 salgai. Sei pertsonendako.

"Sei gau sei egun". 2006koa. 66.000km. 669 53 97 03

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Irailan jaiotako katakume poli-politika familia berri baten bila dabilta. Deitu 626 12 57 47 zerbakira.

Txakurkumeak. Arratoi arrazako txakurkumea ematen da opari. Hiru hilabetekoa. Deitu 943 79 62 63 zerbakira.

704. BESTELAKOAK

Txakurra galdtu Arrasaten. Abuztuaren 13an Bedona inguruan, Arrasate, artzaitz txakur zuria galdtu zen. Oso alai eta beti jolasteko gogoz. Lepoko marroixka dauka. Ikusi baduzue mesedez telefono hauetara deitu. 665 71 44 76 edo 653 70 33 44

8. DENETARIK

801. SALDU

Apple MacBook Pro. 15 hazbeteko Apple MacBook Pro (mid 2010) ordenagailu eramangarria salgai. Core i7 prozesagailua, 8Gb-eko RAM memoriaduna, Mac OS X Lion Sistema eragilearekin. Egocera ezinhobea 1000 euro. 605 98 37 06.

Biolinak. Hasiberriandako bi biolin salgai Debagoienean. Prezioa negoziatzeko. 643 76 79 64

Lowepro Primus AW. Refrex argazki kamera gordetzeko motxila salgai. Mendira joateko oso egokia. Kamera bi objektibo sartzen dira. Gauzak gordetzeko leku handia. 667 95 73 16.

Sehaska eta haurren aldalakua. 0-2 urtera arteko minia eta sehaska salgai. Stokke Sleepi zuria. 2010eko uztailakoa, egocera oso onean eta gutxi erabilia. 350 euro. Haurren aldagailu zuria (Stokke) 150 euro. 648 20 37 75

Furgonetarentzat ohea bihurtzen den altzaria. VW T4 furgonetarentzat ohea bihurtzen den altzaria salgai. Bi arki dira eta gauzak gordetzeko edukera handia dute. Koltxoak barne. 667 95 73 16.

Yamaha Clavinova pianoa. Yamaha Clavinova piano elektronikoa salgai. Piano ikasketak oso egokia. Nahizanez gero argazkiak baldintzen dira, edo ikusi eta probatu daiteke. Interesatuok deitu 20:30etatik aurrera. Prezio negoziagarria. 653 73 78 58

802. EROSI

Estetika tresnak erosteko prest. Kamilar eta abar. Deitu 619 87 95 57 zerbakira.

803. EMAN

CDak. CD pila bat daukat emateko. Arrasaten. Ez dira jatorrizkoak. Denetarik estilotakoak. Interesa izanez gero deitu zerbakietara: 695 785 249 (Aitor)

806. GALDU

Bizikleta Bergaran. Irailaren 3an desagertu da bizikleta. Lapierre 400 modeloa, zuria. 677 63 42 55

Patinete larrosa. Abuztuaren 3an desagertu da bizikleta. Inguruan patineta larrosa galdtu genuen. Nora izena eta telefono zerbakietara deitu. 665 71 44 76 edo 679 49 40 27.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA 14

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Walker
13:52 Onein
14:20 Taula gainean
14:42 Zorion Agurrak
14:49 Berriak
15:09 Eguraldia
15:12 Laino arteko plana
15:47 Bizitegia
16:17 Erreportajea: Balkoia... baratze!
16:47 Berriak
17:07 Eguraldia
17:10 Nere herrie
17:56 Harira
18:29 Erreportajea: Ekonomia berdea: berde-berdea?
19:04 Berriak
19:24 Eguraldia
19:27 Goierri Creation Center
19:53 Harira
20:26 Berriak
20:46 Eguraldia
20:49 Musikaz Gain
21:00 Ekogune
21:30 Berriak
21:50 Eguraldia
21:53 Goierri Creation Center
22:19 Ekogune
22:49 Esatea libre
23:59 Taula gainean
00:19 Berriak

ZAPATUA 15

10:00 Erreportajea: Zer jan, hura izan
10:30 Zorion Agurrak
10:35 Ekogune
11:05 Bizitegia
11:35 Taula gainean
12:05 Onein
12:33 Berriak
12:48 Magazinea
13:48 Esatea libre
15:03 Harira
15:35 Zorion Agurrak
15:40 Berriak
15:55 Onein
16:27 Erreportajea: Bioaniztasuna arriskuan
16:53 Goierri Creation Center
17:23 Erreportajea: Hizkuntza ekologia
17:53 Zorion Agurrak
17:58 Berriak
18:13 Laino arteko plana
18:43 Magazinea
19:43 Musikaz Gain
19:53 Jaiak: Lekeitioko jaiak
20:23 Harira
20:55 Musikaz Gain
21:05 Trikitilari gazteen txapelketa
22:45 Magazinea
23:45 Goierri Creation Center

DOMEKA 16

10:00 Erreportajea: Bioaniztasuna arriskuan
10:26 Erreportajea: Hizkuntza ekologia
10:56 Zorion Agurrak
11:01 Onein
11:28 Magazinea
12:28 Bizitegia
12:58 Berriak
13:13 Onein
13:36 Taula gainean
14:06 Trikitilari gazteen txapelketa
15:46 Zorion Agurrak
15:51 Berriak
16:06 Jaiak: Lekeitioko jaiak
16:36 Berriak
16:51 Magazinea
17:51 Harira
18:23 Laino arteko plana
18:53 Magazinea
19:53 Ikusmira
20:23 Taula gainean
20:53 Zorion Agurrak
20:58 Erreportajea: Hizkuntza ekologia
21:23 Magazinea
21:58 Goierri Creation Center
22:25 Berriak
22:40 Bizitegia
23:10 Laino arteko plana
23:28 Magazinea
00:28 Esatea libre

ASTELEHENA 17

12:25 Magazinea
13:10 Zorion Agurrak
13:15 Onein
13:43 Ekogune
14:13 Jaiak: Lekeitioko jaiak
14:43 Berriak
15:03 Eguraldia
15:06 Zorion Agurrak
15:11 Erreportajea: Hizkuntza ekologia
15:41 Erreportajea: Aralar
16:11 Erreportajea: Zer jan, hura izan
16:41 Zorion Agurrak
16:46 Berriak
17:06 Eguraldia
17:09 Onein
17:41 Goierri Creation Center
18:06 Esatea libre
19:21 Ekogune
19:56 Berriak
20:16 Eguraldia
20:19 Magazinea
21:04 Berriak
21:24 Eguraldia
21:30 Harmailatik
22:15 Magazinea
23:00 Harmailatik
23:45 Berriak

MARTITZENA 18

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Harmailatik
14:05 Erreportajea: Zer jan, hura izan
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Harmailatik
15:53 Onein
16:21 Goierri Creation Center
16:56 Berriak
17:16 Eguraldia
17:19 Ikusmira
17:49 Bizitegia
18:19 Harmailatik
19:04 Laino arteko plana
19:32 Erreportajea: Bioaniztasuna arriskuan
19:58 Berriak
20:18 Eguraldia
20:23 Magazinea
21:08 Berriak
21:28 Eguraldia
21:30 Harira
22:00 Erreportajea: Zer jan, hura izan
22:30 Musikaz Gain
22:41 Magazinea
23:26 Jaiak: Lekeitioko jaiak
23:56 Berriak
00:16 Eguraldia

EGUAZTENA 19

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Harira
13:53 Musikaz Gain
14:03 Harmailatik
14:48 Berriak
15:08 Eguraldia
15:11 Ikusmira
15:41 Onein
16:08 Goierri Creation Center
16:43 Berriak
17:03 Eguraldia
17:06 Harmailatik
17:51 Zorion Agurrak
17:56 Musikaz Gain
18:07 Laino arteko plana
18:37 Harira
19:10 Erreportajea: Hizkuntza ekologia
19:40 Zorion Agurrak
19:45 Musikaz Gain
19:55 Berriak
20:15 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:03 Lehiaketa
21:18 Berriak
21:38 Eguraldia
21:43 Magazinea
22:28 Tertulia
23:28 Berriak
23:33 Eguraldia

EGUENA 20

12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Tertulia
13:40 Tertulia
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Erreportajea: Bioaniztasuna arriskuan
15:34 Goierri Creation Center
16:04 Musikaz Gain
16:15 Erreportajea: Zer jan, hura izan
16:45 Berriak
17:05 Eguraldia
17:08 Tertulia
18:08 Onein
18:35 Planik bai?
18:55 Walker
19:25 Ekogune
19:55 Berriak
20:15 Eguraldia
20:19 Magazinea
21:04 Planik bai?
21:24 Berriak
21:44 Eguraldia
21:47 Erreportajea: Bioaniztasuna arriskuan
22:13 Walker
22:43 Planik bai?
23:03 Magazinea
23:48 Berriak
00:08 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Maritxu Kajoi prestatzeko gomendio bikainak

Maritxu Kajoi heltzear dagoela-eta, moda adituekin egongo gara datozen aste hauetan. Lehenengo hitzordua Amaia Albes moda diseinatzailearekin egin dugu. Nork bere etxean ditugun arropekin gure ingurukoak zela txunditu erakutsiko digu.

Zozketa gehiago Arrasate Irratian datorren astean

Lobo Electrico, Nuevo Catecismo Catolico, Iheskidea eta McOnak ikusteko Kooltur asteburuko sarrerak zozketan. Zozketan parte hartzeko: 943 25 05 05 telefonora deitu edo bidali mezu bat irratia@goiena.com-era. Zorte on, guztioi!

URTEURRENA

Jose Luis Kapanaga Azkuenaga



Bergaran hil zen 2011ko irailaren 9an.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 16an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Beti gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko senideen izenean.

URTEURRENA

Jesus Mari Zuazua Garcia de Cortazar




2011ko abuztuaren 8an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 16an, 11:30ean, Aretxabaletako Andra Mari parrokiari.


Beti gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA



Daniel Osa Alberdi



2011ko irailaren 20an hil zen, 75 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 16an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko senideen izenean.

URTEURRENA

Xabier Altzelai Sagasta



Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 15ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren eliza nagusian.

Aurrez esker on bertaraten zareten guztioi.

URTEURRENA

Narciso Sasiain Zabala



'Gatxikarro'

Arrasaten hil zen 2011ko irailaren 17an, 94 urte zituela.


Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 16an, 12:30ean, Arrasateko Santa Teresa elizan.

Elur melur ez naiz aurtzen zure beldur badauket ganbaran nahiko arto eta egur. Familiaren partetik. Gero arte, lagun.

Arrasaten, 2012ko irailaren 10ean.

URTEURRENA

Francisco Javier Lascurain Arizaga



'Barrenetxe'

Osintxun hil zen 2011ko irailaren 2an, 71 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 16an, 12:00etan, Osintxuko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko familiaren izenean.

URTEURRENA

Juan Jauregi Loiti



Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 16an, 12:00etan, Aramaioko San Martin parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Francisca Uribesalgo Zuazua



2011ko abuztuaren 4an hil zen, 93 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 16an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA



Ignacio Aranburu Intxausti



2011ko irailaren 15ean hil zen, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 16an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko senideen izenean.

ESKER ONA

**Mertxe Arana Zuazubiskar**

Arrasaten hil zen 2012ko abuztuaren 5ean, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta sami-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2012ko irailaren 14an.

ESKER ONA

**Juanita Eguren Eguren**

Arrasaten hil zen 2012ko irailaren 11n, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Beti izan zaitugu bizitzan gidari beti izango gaituzu bilobak alboan aurrerantzean ere izango ditugu zure esanak gogoan.

Eskerrik asko gure amama maiteari.

Bilobak: Iñaki eta Oihana, Mikel eta Maite, Amaia, Irene eta Erik, Maite, Izaskun, Julen, Xabier eta Ander. **Birlobak:** June, Peru, Alexander eta Elene.

ESKER ONA

**Valentina Lizarralde Eskibel**

Juan Kruz Mujikaren alarguna

2011ko irailaren 7an hil zen, 82 urte zituela.

Urteurren mezara etorritakoei, eskerrik asko sendikoen izenean.

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen. Eta inoiz itzaltzen ez delako gogoan zaitugu.

Antzuolan, 2012ko irailaren 14n.

ESKER ONA

Maria Juana Gabilondo Liciaga

Benigno Elkorobarrutia Iturberen alarguna

2012ko abuztuaren 11n hil zen, 96 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren aldeko meza domekan izango da, irailaren 16an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

Eskoriatzan, 2012ko irailaren 14an.

ESKER ONA

Domingo Labrador Mendez

Basilía Garciaren alarguna

2012ko irailaren 11n hil zen, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2012ko irailaren 14an.

**Markel eta Iratxe**

Irailaren 15ean Markel Arrazola eta Iratxe Aranburu Oñatiko Madalenako ermitan ezkonduko dira. "Zuen arteko maittasunak zapatuan batuko gaittu eta ongi pasaitteko irrikaz gauzatu. Zoriontsu izan! Muxu bat. Zuen familia eta lagunak".

**Sara eta Aritz**

Arrasateko Sara Mera eta Aritz Errasti irailaren 8an ezkondu ziren Barajuengo Andra Mari elizan. Egun berean, euren seme Oier bataiatu zuten. "Egun pozgarria izan zen denontzat. Eskerrik asko eta orain arte bezain zoriontsu jarraitu, familia guztiaren partetik".

**Joseba eta Leire**

Joseba Pujana atxondoarra eta Leire Ibabe arrasatearra irailaren 15ean ezkonduko dira Santa Agedako parrokian. "Lagunen partetik, zorionak, bikote! Zoriontsu izan zaitetzte eta asko goza eza zue bai ezkontza-egunean, baita AEBetan ere!"

**Miren eta Kote**

Irailaren 15ean Arrasateko Miren Segurola Maron eta Antzuolako Kote Akosta Urkuluko San Juan Bataiatzailearen elizan ezkonduko dira. "Ondo pasatu, bikote, koadrilakoen partetik".

**Aitor eta Aintzane**

Aitor Murgoitio eta Aintzane Bengoa 1987ko irailaren 12an ezkondu ziren. "Egun eguzkitzua izan zen, 42 gradu besterik ez! Zilarrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak, familia guztiaren partetik".

**Alain eta Maite**

Irailaren 15ean. "Heldu da eguna! Zorionak, bikote! Egun eder-erri pasatu eta bidaiaz asko gozatu. Patxo handi bat. Urko".

HILDAKOAK

- Mertxe Arana Zuazubiskar.** Arrasaten, abuztuaren 5ean. 75 urte.
Asuncion Gonzalez Fernandez. Arrasaten, irailaren 5ean. 75 urte.
Diego Ortiz Hidalgo. Arrasaten, irailaren 7an. 87 urte.
Jose Pingarron Magaña. Arrasaten, irailaren 10ean. 92 urte.
Jose Andres Leturia Albizua. Oñatin, irailaren 10ean. 64 urte.
M. Juana Gabilondo Liciaga. Eskoriatzan, irailaren 11n. 96 urte.
Inaxi Garai Santa Cruz. Bergaran, irailaren 11n. 91 urte.
Juanita Eguren Eguren. Arrasaten, irailaren 11n. 83 urte.
Domingo Labrador Mendez. Aretxabaletan, irailaren 11n. 88 urte.

**Begoña eta Iñaki**

Irailaren 13an 50 urte bete dira Begoña Garitano eta Iñaki Arregi bergararrak ezkondu zirela, eta, urrezko ezteiak ospatzeko, egu-bakoitzean elkartuko dira, mahaiaren bueltan, bikotea eta haien hurbileko senitartekoak; lagunak ere ondoan izango dituzte. "Urte askotarako, bikote, sendikoen izenean".

OROIGARRIA

Domingo Labrador Mendez

Imanol Soriano Goienako lankidearen aitaita

2012ko irailaren 11n hil zen, 88 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena

Goiena.
Debagoiengan, 2012ko irailaren 14an.

OROIGARRIA

Inaxi Garai Santa Cruz

Beti oraituko baitzaitugu, zuk gu maitatu gaituzun bezela, zu izan baitzara guretzako, bizitzako lorerik kuttunena.

Zure familia.
Bergaran, 2012ko irailaren 14an.

ARANTZAZU Lucio Muñoz omenaldia

Lucio Muñoz margolariak Arantzazuko Basilikako erre-
taulan utzi zuen obrak 50 urte
betetzen ditu aurten, eta, hori
ospatzeko, oroitzapen-jardu-
naldia egingo dute Arantza-
zuko Adiskideak elkarteak
eta Arantzazu Gaur Funda-
zioak bihar, Gandiaga Topa-
gunean.

Bihar, Gandiaga Topagunean, 10:30ean.

**BERGARA San Martin jaiak**

Badatoz San Martinak Bergarara eta aurten, gainera, berezita-
sun batekin; izan ere, 50 urte betetzen dira Surragan San Mar-
tinen omenezko gurutzea eraiki zutenetik eta 150 haren kano-
nizaziotik. Plazan dago Surragako gurutzearen erreplika.
Asteburuan, Bergaran.

DANTZA

BERGARA 'Errimak oinetan, dantza
berriak bertsoei jarriak' ikuskizuna
Haatik dantza konpainiak *Erri-
mak oinetan* ikuskizuna eskai-
niko du etzi Bergarako Udal
Pilotalekuan, San Martin jaien
barruan. Sarrera 8 euro kostaa-
ko da.

Etzi, Udal Pilotalekuan, 20:00etan.

MUSIKA**ARRASATE Kulturate Akustikoa**

Gaur emango zaio hasiera Kul-
turate Akustikoaren hirugarren
edizioari. Gaur eta datozen hiru
egubakoitzetan kontzertuak
izango dira bertan. 20:00etan
izango dira eta gaur Boat Beam
taldea arituko da.

Gaur, Kulturateko areto nagusian, 20:00etan.

BERGARA Elvis Caino

Egubakoitzean Elvis Caino dis-

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

URTARRILA 14
OTSAILA 20

ko-jartzailea izango da kartzela
zaharrean, gaueko hamabietan
hasita.

Gaur, Bergarako gaztetxean, 00:00etan.

BERGARA 'On duo' musika saioa

Pello Ramirez eta Xabier Zebe-
riok kontzertua eskainiko dute
Zabalotegi aretoan.

Gaur, Zabalotegi aretoan, 22:00etan.

JAIK**ARRASATE Erguingo jaiak**

Screamers & Sinners, Bitter
Honey eta Dirty Brothers taldeek
kontzertuak eskainiko dituzte

gaur, 22:30ean hasita, Erguingo
jaietan.

Gaur, Erguingo jaietan, 22:30ean.

OSPAKIZUNAK**ARETXABALETA Urbaltz eguna**

Elkartearen eguna ospatuko
dute bazkideek bihar. Kaleji-
ra, herri bazkaria, herriko
taldeen kontzertuak-eta egon-
go dira.

Bihar, Mitarte plazan, 12:00etan.

OÑATI EkoBira Azoka

Kontsumo iraunkorraren azoka
Oñatin izango da bihar, Foruen

plazan, 10:30etik 14:30era eta
16:30etik 19:30era.

Bihar, Herriko Plazan, 10:30ean.

ERAKUSKETAK**BERGARA Ageriko 24. pintura lehiaketako margoak**

San Martinetako lehiaketan parte
hartutako lanak egongo dira ikus-
gai datorren irailaren 19tik aurre-
ra Osoko bilkuren aretoan. Aste-
lehenetik egubakoitzera 18:00etatik
21:00etara eta jaiegunetan 12:00e-
tatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00e-
tara egongo da ikusgai.

Irailaren 19a, eguaztena, osoko bilkuren aretoan.

TOPAKETA**ELGETA Vespa eta Lambretta topaketa**

Elgetan, Vespa eta Lambretta
topaketa etzi. 12:15ean plazatik
irtengo dira. 50 kilometroko ibil-
bidetxo egingo dute eta
14:30ean, bazkaria.

Etzi, Herriko Plazan, 11:00etan.

IRTEERA**ELGETA Erretiratuak Elizondora**

Xalbadorpe erretiratuaren elkar-
teak antolatuta egun osoko irteera
Baztan bailarara.

Irailaren 19a, eguaztena, Herriko Plazatik,
08:00etan.

OÑATI Espeleoabentura irteerak Arrikruzten

Ohiko pasarelatik irtenda, Arri-
krutzeko galeria aktiboa eta
eszentrika ikusten dira irteera
horretan. Informazioa jasotzeko

Ondo ondo pasau Bergarako San Martin Jaixetan!

San Martin Jaixak 2012
Irailaren 14, 15 eta 16
BERGARA

Kayak
Azpeitxi
Etxagi
Zunbeltz
Irish Pub Galways
Bule
Euxebio II
Toki Ona Bodegoia
Usoa
Infernukua
Ariznoa
Kai
Iraho





GOIENA

OÑATI Def Con Dos kontzertuan

XX. urteurrena ospatzen ari diren honetan, *La culpa de todo la tiene Def Con Dos* box defa kaleratu berri dute. Bertan, tributu-diskoa, liburu biografikoa, abesti bilduma eta DVD bat batu dituzte. Hori aurkeztera dator taldea Oñatira. Bihar, gaztelekuan, 22:30ean.

eta izena emateko telefono honetan duzue aukera: 943 08 20 00. Bihar, Arrikruzten, 10:00etan.

HITZALDIAK**ARETXABALETA Joseba Egibarren hitzaldia**

EAJko legebiltzarkidea eta Gipuzko Buru Batzarreko presidente Joseba Egibar izango da batzokian ekonomiaren eta gizartearen egoeraren gainean jarduteko. Aretxabaleto EAJ alderdiak interesa duen edonon gonbidatu gura du hitzaldi horretara. Irailaren 17a, astelehena, batzokia, 19:30ean.

ARETXABALETA 'Erditze naturala' hitzaldia

Erditze naturalaren gaineko berbaldia eskainiko du Debagoieneko ospitaleko emagin David Monterok. Sarrera, debalde. Irailaren 17a, astelehena, Arkupeko Zeraia aretoa, 19:00etan

ARRASATE 'Ongi etorri bizitzara. Erditze naturala'

David Moreno Debagoieneko Ospitaleko emaginak Osasun Ikasgela berri bat eskainiko du irailaren 17an eta 18an Aretxabaletan eta Arrasaten. Erditze naturala izango du hizpide eta hurrengo atalak landuko ditu. Irailaren 18an, martitzena, Kulturaten, 19:00etan.

ELGETA 'Belaunaldien arteko elkartasuna' hitzaldia

Kutzak eta Elgetako Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta. Hizlaria: Izarne Lizaso Elgarresta. Sarrera doan. Irailaren 18a, martitzena, udaletxean, 17:00etan.

ANTZUOLA Hitzaldia erretiratuendako

Belaunaldien arteko elkartasuna izeneko hitzaldia egongo da Antzuolan datorren eguaztenean Erretiratuen Elkartearen, 17:00etan. Hizlaria Izarne Lizaso Elgarresta izango da. Irailaren 19a, eguaztana, Erretiratuen Elkartearen, 17:00etan.

BERGARA Familia guztiarendako Zuresku jolasak

Egurrezko jolas tradizionalak dira Zuresku jokoak, eta familia guztiari zuzenduta dago erakus-

ladia; gaur izango da hori, Bergarako Oxirondo plazan. Gaur, Oxirondo plazan, 17:00etan.

ZINEMA**BERGARA 'Gazta zati bat' filma**

Adin guztietarako zuzendutako filma da *Gazta zati bat*. Jon Maiak, filmaren zuzendariak, solasaldia egingo du emanaldiaren ondoren Zabalotegi aretoan. Irailaren 19a, eguaztana, Zabalotegi aretoa, 20:00etan.

ARRASATE 'Ice Age 4'

Ice Age 4 filma eskainiko dute gaur Monterronen. Gaur, Monterron parkean, 22:30ean.

LEHIAKETAK**BERGARA Ageriko pintura lehiaketa**

38. lehiaketa jokatu da, San Martin jaien barruan. Izen-ematea kultura etxean izango da eta sari ematea 14:30ean udal-etxean. Etzi, domeka, herriko kaleetan, 09:00etan.

BERGARA Dantza suelto txapelketa

Bikote nagusientzako Moises Aspiazuren omenezko 28. dantza suelto txapelketa jokatu da gaur. Gaur, Udal Pilotalekuan, 19:30ean.

IKASTAROAK**OÑATI Fitness eta gimnasia zerbitzuetako ekintzak hasten dira**

2012-2013 ikasturtea hasiko dute datorren astelehenean fitness eta gimnasia zerbitzuetan apuntatu direnek. Irailaren 17a, astelehena, Zubikoa, 10:00etan.

DEBAGOIENA Buruko gaixotasuna dutenen senideendako

Gaixotasun mentala dutenen familiakoendako ikastaroa antolatuta du Agifes elkarteak. Ikastaroaren helburua da buruko gaixotasunen gainean erakustea eta elkarbizitza hobetzen laguntzea. Interesatuak irailaren 19a baino lehen eman behar dute izena honako telefono honetan: 943 43 37. Izen-ematea irailaren 19a baino lehen.

ZINEMA**EIBAR****COLISEO****El Irlandes**

Egubakoitz eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

La delicadeza

Egubakoitz eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Madagascar 3

Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

ANTZOKIA**Desafio total**

Egubakoitz eta zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.

GASTEIZ**FLORIDA****Una botella en el mar de Gaza**

Egubakoitz eta zapatua: 18:00, 20:15, 22:30, 00:20.
Domekatik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

Ted

Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

Camera Obscura

Egubakoitzetik zapatua: 18:15, 20:15, 22:30, 00:20.

Domekatik eguenera: 18:50, 20:35, 22:30.

Todos tenemos un plan

Egubakoitzetik zapatua: 17:30, 20:00, 22:15, 00:30.

Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:15.

Total Recall

Egubakoitz eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:15, 00:35.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

El Nombre

Egubakoitz eta zapatua: 18:00, 20:15, 22:30, 00:20.

Domekatik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

Brave

Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

Shangai

Egubakoitz eta zapatua: 18:15, 20:15, 22:30, 00:20.
Domekan: 18:15, 20:15, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 18:40, 20:30, 22:30.

Las aventuras de Tadeo Jones

Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:45, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:40.

Amor bajo el espino blanco

Egubakoitz eta zapatua: 20:15, 22:30, 00:35.
Domekan: 20:15.
Astelehenetik eguenera: 20:30, 22:40.

GORBEIA**Total Recall**

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:15.
Egunero: 18:45, 21:15.
Egubakoitz eta zapatua: 23:45.
Domekatik eguenera, baita: 17:30, 20:00, 22:30.

Don gato y su pandilla

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

Lorax

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

Los cachorros

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

El gato con botas

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

Alvin y las ardillas

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

Las aventuras de Tadeo Jones

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:30.
Egunero: 17:30, 19:30.

Las aventuras de Tadeo Jones 3D

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:30.
Egunero: 18:30, 20:30.

Todos tenemos un plan

Egunero: 17:30, 19:50, 22:10.
Egubakoitz eta zapatua: 00:30.

La posesion

Egunero: 17:45, 19:45, 21:45.
Egubakoitz eta zapatua: 23:45.

Dredd

Egunero: 22:20.
Egubakoitz eta zapatua: 00:20.

Step Up revolution

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:10.

Abraham Lincoln

Egunero: 20:00.

Abraham Lincoln 3D

Egunero: 22:10.

Los Mercenarios

Egunero: 20:30, 22:40.
Egubakoitz eta zapatua: 00:45.

Eternamente comprometidos

Egunero: 22:00.
Egubakoitz eta zapatua: 00:00

El legado de Bourne

Egunero: 22:20.

Ted

Egunero: 20:20, 22:30.
Egubakoitz eta zapatua: 00:40.

Prometheus

Egunero: 18:00.

Prometheus 3D

Egubakoitz eta zapatua: 00:20.

Madagascar 3D

Egunero: 18:20.

Brave

Egunero: 17:50.

Brave 3D

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:45.

Ice Age 4

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:30.

Piratas

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:50.

BOULEVARD**Total Recall**

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Las Aventuras de Tadeo Jones

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:40.
Egunero: 17:40, 19:40.

The Possession

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:10.
Egunero: 18:20, 20:30, 22:40.
Egubakoitz eta zapatua, baita: 00:50.

Todos tenemos un plan

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:30.
Egunero: 17:50, 20:10, 22:30.
Egubakoitz eta zapatua, baita: 00:50.

Ted

Egunero: 20:15, 22:30.
Egubakoitz eta zapatua, baita: 00:45.

Los Mercenarios

Egunero: 17:45, 20:00, 22:15.
Egubakoitz eta zapatua: 00:30.

Abraham Lincoln

Egunero: 20:15, 22:30.
Egubakoitz eta zapatua, baita: 00:45.

Desmadre de padre

Egunero: 22:40.
Egubakoitz eta zapatua, baita: 00:50.

El legado de Bourne

Egunero: 21:40.
Egubakoitz eta zapatua, baita: 00:15.

Madagascar 3

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:40.

Dredd

Egubakoitz eta zapatua: 00:00.

Step Up Revolution

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.
Egunero: 22:00.
Egubakoitz eta zapatua, baita: 00:00.

Brave

Egunero: 18:00.

Ice Age 4

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:45.

Piratas

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

Prometheus

Egubakoitz eta zapatua: 23:45

KRITIKA**THE DEEP BLUE SEA ★★★★★**

Zuzendaria: Terence Davies.

Herrialdea: Erresuma Batua.

Urtea: 2011.

Aktoreak: Rachel Weisz, Tom Hiddleston, Simon Russell Beale.

Iraupena: 98minutu.

Amodioaren argiak eta itzalak

Daviesen *Voces distantes* edo *El largo día acaba* ikusteko aukera izan duenak badaki zuzendariak oroimenari ematen dion garrantzia. *The Deep Blue Sea* zuzenean ez da hain autobiografikoa, Terence Rattiganen antzerki obra baten oinarrituta dago eta besteak baino narratiboagoa da. Baina hori horrela izanik, filmean 50eko hamarkadako giro zapaltzailea eta iluna azaltzen da. Amodioa da istorioaren ardatz nagusia. Amodio mota desberdinak agertzen dira filmean. Neska bat bera baino helduago den gizon batekin ezkondu da. Senarra maite du, baina ia modu platonikoan, senarraren zaletasunekin bat

egiten du eta horren sentsibilitateaz jabetzen bada ere, euren harremanetan ez dago irrikarik. Beste aldetik, neskaren amorea dago, neska harreman horietan buru-belarri murgilduta dago, amodio hori bere bizitza da eta ez du sentitzen bestearen aldetik jokaera bera denik. Maitaleak II. Mundu Gerra bizi izan du, eta hantxe izandako bizipenek moldatu gabeko gizaki hotz bihurtu dute. Horrela daukagu amodioa %100 bizi nahi duen emakumea, alde batetik, garaiko zorrotasun eta konbentzionaltasunarekin eta, bestetik, mundu gerrak izandako ondorioekin topo egiten. Terence Davies zuzendariak zinema maite du eta maitasun hori

ederki islatzen du bere filmetan. Aktoreen interpretazioak, garairen giroak, musikaren garrantzia, isiluneek eta hitzek duten pisu dramatikoak, kamera mugimenduak... Detaile guztiak ondo neurtuak daude eta bere zergatia dute. Zuzendariak emakumearen barnean sartzen gaitu eta horren sentimenduak, gogoetak eta oroimenak ikusten ditugu. Horiek (istorioa egun baten gertatzen bada ere) protagonistaren azkeneko urteak nolakoak izan diren ezagutzeko balio dute. Oroimenekin eta denborarekin jokatu Daviesek amodioaren itzalei eta argiei buruzko film erromantiko zoragarria burutu du.

ANTONIO ZABALA



goiena

2012-09-14

BUKATZEKO

Dendara joan barik, landare-esnea etxean

- ▶ Itziar Bartolome arrasatearra Chufamix etxetresna Euskal Herrian komertzializatzen ari da egunotan
- ▶ Landare-esnearen sektorean dagoen "monopolioa" eta prezio garestiak hautsi nahi dituzte

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

"Esne begetala kontsumitzen dutenendako sekulako iraultza da". Horrelaxe aurkeztu digu Itziar Bartolome arrasatearrak merkaturatu berri duten etxetresna; Chufamix dauka izena.

Merkea eta kalitatezkoa

Hazietatik eratorritako esnea kontsumitzen dutenek ondo dakite ekonomikoki zer dakarren horrek. Bada, besteak beste, horrek egiten du erakargarri etxetresna berria. "Enpresa handiek esne begetalaren merkaturatu monopolizatuta daukate, eta hori bidegabera iruditzen zaigu. Tetrabrik batek bizpahiru euro balio du. Bada, Chufamixekin, 500 gramo hazirekin, hau da, bi euro ingururekin, 10 litro esne lortzen ditugu. Kontuan izanda Chufamixek 36 euro balio duela, berehala amortizatzen da. Esnearen kalitatea, gainera, askoz hobea da, pasteurizatu gabea eta momentuan egindakoa".

Hortxatagile baten ideia

Arrasatearra hasieratik dago proiektuan sartuta, baina etxetresnaren ideia Valentzian bizi den Andoni Monforterena izan zen: "Hortxata egiten du, eta edozeini hortxata etxean egiteko



Itziar Bartolome (morez), ekodenda batean, Chufamixa aurkezten. | CHUFAMIX

aukera eskaini nahian jaio zen ideia. Hortxata edozein hazirekin egin daiteke: hurrak, almendrak, intxaurrek..."

Debagoienean, laster

Arrasatearra oso pozik dago proiektuak izan duen hasierarekin: "Ikargarria da izaten ari den harre-

ra. Valentzian aurkeztu ostean Katalunian ibili gara. Orain, Euskal Herrian gabiltza komertzializatzen; hemendik Madrilera eta Alemaniara goaz".

Debagoienean ere hainbat denda bisitatu dituzte eta laster Bergaran, Arrasaten eta Oñatin eskuratu ahal izango da.



Erabilera moduaren azalpena. | CHUFAMIX

Zapatuan baseritarren azokan

Chufamixa bertatik bertara ikusteko eta sortzen duen landare-esnea probatzeko aukera izango da bihar, zapatua, Arrasaten. Baseritarren azoka egingo da Seber Altuben, eta Garaion elkartearen postuan egongo dira, azalpen guztiak ematen.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Visca Catalunya Lliure

Milioi eta erdi lagun Kataluniako Estatu eskatuz. Hauxe izan da aste honetako argazkia. Inbidia pixka bat ematen didala ezin uka! Aldarrikapen honen oinarrian dagoen arrazoa benetako identitate sentimendua bada ere, azken hilabeteotan agerian geratu den Kataluniako arazo ekonomiko larriak behartu du jendea aldarrikapen hau, momentu honetan, egitera. Euskadiko Kontzertu Ekonomikoari esker, 30 urteotan, euskaldunok gure zergak bildu eta guk kudeatu ditugu. Orain 30 urte alderdi politiko batzuek aldarrikatu eta bultzatu zuten tresna hori berreskuratzea. Ikusi besterik ez dago ze zerbitzu ditugun Euskadin osasun gaitetan, gizarte laguntzetan edo hezkuntzan, besteak beste. Baina ez gaitzen sinplekerian erori. Espainiako Estatuak ere badu kontzertu ekonomiko propioa, baina ez dio guri bezala funtzionatu. Tresna edukitzea oso garrantzitsua da, baina ondo kudeatzen ez bada, alferrik! Burujabetza eta ekonomia erabat loturik daudela ukazina da. Euskadik bere burujabetza lortzeko ekonomia eta industria oinarri sendoak beharko ditu. Ez da gutxi gehienok diagnostiko bera partekatzea, baina nola egin behar den oso argi eduki behar da.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA

San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak

